# 2017 BAROMETROA

## Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak



eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ikuspegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
*Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza*
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
*Dirección de Política Familiar y Diversidad*

# 2017 BAROMETROA

## Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak

ikuspegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

*CIP. Unibertsitateko Biblioteka*

**2017** Barometroa [Recurso electrónico]: jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak / Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokiak [egindakoa]. – Datos. - Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2017. – 1 recurso en línea : PDF)
Modo de acceso: World Wide Web.
ISBN: 978-84-9082-795-6.

1. Inmigrantes - Opinión pública. 2. Inmigrantes - País Vasco - Siglo XXI. 3. País Vasco - Emigración e inmigración - Siglo XXI. I. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración.

(0.034)314.7 (460.15)
(0.034)325.1 (460.15)

**Argitalpen hau nola aipatu:**
*(APA arauen arabera)*

Ikuspegi (2018). *2017 Barometroa. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak*. Eskuragarri http://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2017/bar_2017eusOK.pdf

*Argitaraldi elektronikoa*

| | |
|---|---|
| Argitalpenaren urtea eta lekua: | 2018ko urtarrila, Bilbo |
| Argitaratzailea: | Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua |
| Dokumentazioa: | Antonio Gómez, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia |
| Itzulpena: | Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L. |
| ISBN: | 978-84-9082-795-6 |

# Aurkibidea


Sarrera 5

Metodologia 7

1. Kopuruak 9

2. Jatorri atzerritarra duten biztanleei buruzko iritziak eta jarrerak 15

   2.1. Etorkinen presentziaren pertzepzioa: bolumena 15

   2.2. Etorkinen presentzia arazotzat hautematea 20

   2.3. Eragina euskal gizartean 22

   2.4. Harrerako komunitatearen eta etorkinen arteko bizikidetza eta integrazioa 31

   2.5. Immigrazio-politika 54

3. Immigrazioaren aurreko Tolerantzia-Indizea: tipologia bat 61

4. EAEko biztanleriaren talde handiak 73

5. Ondorioak 83

Eranskina 85

Eranskina: Galdetegia 89

Eranskina: Grafikoa 95

# Sarrera

“Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak” azken barometrotik urtebete igaro den honetan, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak egindako 2017ko Barometroaren emaitzak aurkeztuko ditugu ondoren. María José Martín Herrero, José Antonio Oleaga Páramo, Gorka Moreno Márquez, Maite Fouassier Zamalloa, Taide Arteta Esnal, Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Iraide Fernández Aragón, Julia Shershneva, Beatriz Otero Gutiérrez eta Maddalen Epelde Juaristi arduratu dira 2017ko Barometroaz. Horiez gain, Antonio Gómez Parada dokumentazio eta bibliografia euskarriaz arduratu da.

2017ko Barometroko emaitzek berretsi egin dute 2015ean azaleratzen hasi zen krisi ondorengo egoera finkatzen ari dela; horrezaz gain, emaitzetako batzuk krisi ekonomikoa hasi aurreko emaitzen oso antzekoak dira. Aurten, 2017ko barometroa egiteko, egokia iruditu zaigu zenbait aldagai berri kontuan hartzea; horien artean, hauek dira nabarmentzeko modukoak:

- Batetik, orain arte egin ez genituen zenbait galdera egin ditugu aurten galdetegian; hala nola zer iritzi duten beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonen janzkeraz eta zer konfiantza-maila duten islamarekiko. Horrezaz gain, eta etorkizunari begira, euskal gizarteak zer pentsatzen duen jakin nahi izan dugu, eta galdetu diegu ea beren ustez etorkinak gurera etortzen jarraituko duten, eta etorkin horiek nongoak izatea nahiko luketen.

- Eta bestetik, moldatu egin dugu Euskadiko hiru arazo nagusien inguruko pertzepzioari buruzko galdera (iradokia), baina 2016ko Eurobarometroko Inkestan ageri diren arazo berberak adierazi ditugu.

Txosten hau eginda, helburu hauek bete nahi izan ditugu:

1. 2017ko barometroaren datuak aurkeztea. Euskal gizarteak jatorriz atzerritarrak diren biztanleekiko dituen jarrera, sinesmen, iritzi, balio eta abarren deskribapen panoramikoa jasotzen du barometroak, eta immigrazioarekiko jarrera hobekien azaltzen duten aldagai soziodemografiko garrantzitsuenak nabarmentzen ditu.
2. Jarrera eta iritzi horien bilakaera aztertzea, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2004. urteaz geroztik egindako barometroak oinarritzat hartuta. Hain zuzen, gaur egungo barometroen aurrekaria izan zen 2004an egindako lehen barometro hura, eta 2007az geroztik urtero egiten da, metodologia eta eduki aldetik gaur egungo formatuari jarraituz.

3. Krisi ekonomikotik irteten ari garen uneotan, immigrazioarekiko zer iritzi ditugun hautematen saiatzea.
4. Azpimarratu egin behar da EAEko biztanleria-taldeetan jarrera-alde esanguratsuak ezarri ahal diren arren, antzekotasunak desberdintasunak baino ugariagoak direla: aldagai soziodemografikoek desberdintasunetako batzuk baino ez dituzte azaltzen, eta alde horiek pertsonen artekoak dira gehiago, taldeen artekoak baino. Oro har, biztanle gehienak anbibalenteak dira (diskurtso kontrajarriak ditugu) eta taldeen artean dauden desberdintasunak ez dira muturreko jokabideen adierazgarri; aitzitik, gehiago dira ñabardurazko edo intentsitatezko aldeak. Hori ondorioztatzen da, halaber, 2007tik hona egindako immigrazioarekiko tolerantzia-indizearen azterketetatik.
5. Euskal populazioaren tipologia bat eraikitzea, zenbait talderen artean nabarmendu ditugun eta estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak adierazteko; baina, era berean, azpimarratzea, gure tolerantzia-indizearen arabera, desberdintasun horiek taldeen arteko intentsitate-desberdintasunak direla, baina ezin dela esan muturreko talde kontrajarririk edo polarizaturik dagoenik. 2016ko datuekin alderatuta, tolerantzia-indizeak euskal gizartearen irekitze-mailaren hobekuntza adierazten du.

2017ko Barometroa txostena bost zatitan egituraturik dago:

- Lehen zatian, EAEko bertako biztanleei eta etorkinei buruzko **informazio objektiboa** aurkezten da, nazionalitateen eta haien bilakaeraren arabera. Lehen zatian, EAEko bertako biztanleei eta etorkinei buruzko informazio objektiboa aurkezten da, nazionalitateen eta haien bilakaeraren arabera. Eta egoera hori estatuko gainerako erkidegoetan gertatzen ari diren aldaketekin alderatzen da. Azken urteetan, eta nazionalizazio-prozesuen harira, EAEn bizi diren atzerritar batzuek bertako nazionalitatea eskuratu dute eta, ondorioz, ez dira atzerritartzat agertzen estatistiketan. Horrexegatik, 2014az geroztik jaioterriaren aldagaia erantsi dugu, migrazio-fenomenoaren ideia zehatzagoa eskuratzeko asmoz.

- Bigarren kapituluan i**nformazio subjektiboa** aztertzen da: bertoko herritarrek immigrazioaren aurrean dituzten iritzi eta jarrerak. Gai nagusiak bost blokeren inguruan egituratu dira: bolumenaren pertzepzioa, immigrazioa arazotzat hartzea, immigrazioak euskal gizartean dituen ondorioak (ekonomikoak, ongizateari lotutakoak, hizkuntzaren erabilera eta garapena, euskal nortasuna eta harremanen garapena), bizikidetza eta harrerako komunitatearen eta immigratzaileen bat-egitea, eta immigrazio-politika.

- Hirugarren atalean, bertakoen tolerantzia-indizea aztertu dugu, pertzepzio eta jarrerei buruzko azterlanean jasotako datuetan oinarrituta.

- Laugarren kapituluan, euskal gizartean dauden talde handiak aurkeztu ditugu laburbilduta, tolerantzia-indizea eta identifikazioarekin loturiko aldagaiak aintzat hartuta.

- Azkenik, bosgarren kapituluan, ondorio nagusiak aurkeztu ditugu, laburtuta. 2017ko Barometroko emaitzak, oro har, iazkoaren oso antzekoak dira, eta, beraz, agerian geratu da 2015az geroztik azaleratzen hasi zen krisi ondorengo egoera finkatzen ari dela.

# Metodologia

Euskal gizarteak immigrazioaren inguruan dituen jarrera, sinesmen eta pertzepzioei buruzko txostena da 2017ko barometroa, eta diseinu metodologiko kuantitatibo batetik abiatuta egin da. Erdi egituratutako galdera-sortaren teknika erabili dugu (txosten honen amaieran jaso dugu galdera-sorta hori), eta eskura banatu ditugu galdetegiak. Urtero egiten dugu barometroa, helburu nagusi hauekin: EAEn immigrazioaren fenomenoari buruz gehiago jakitea, euskal gizarte osoari gai horren inguruko informazioa ematea, eta, azken batean, fenomeno sozial hori kudeatzen lan egiten duten pertsona eta erakunde guztiei immigrazioari buruzko ezaguera sakonagoa izaten laguntzea.

Horretarako, 600 inkestako lagin bat diseinatu genuen (EE = % 95, sigma = 1,96 eta Akatsa +/- % 4). Etxez etxeko banakako inkestak egin genizkien EAEn bizi ziren (bertako populazioa) 18 urtetik gorako pertsonei, eta aukeratutako laginketa habitat-tamainan, adinean eta sexuan oinarritutako kuoten araberako esleipen proportzionalaren bidez estratifikatutakoa izan zen.

Etxeen aukeraketa ausazko ibilbideen sistemaren bidez egin zen, 25 udalerritan banatutako 39 laginketa-puntutan (3 Araban, 10 Gipuzkoan eta 12 Bizkaian). Txosten honetan, gainera, osotasunean garatuko dugu 2017ko barometroko informazioa, eta azpimarratu egingo dugu euskal biztanleria bereizten duten aldagaiak aurkitzearekin eta gure herrialdean immigrazioaren fenomenoa hobeto ulertzen lagunduko diguten tipologien lanketarekin lotutako guztia.

# 1

# Kopuruak

2017ko urtarrilaren 1ean, EAEn erroldatutako biztanleen % 8,9 atzerrian jaiotakoa da (195.969 lagun). Datuon bilakaerari erreparatuta, duela hamaika urte, 2006an, 108.094 lagun ziren jatorriz atzerritarrak EAEn. Hamaika urte geroago, jatorriz atzerritarrak direnen kopurua % 81,3 hazi da (1. taula); jatorriz atzerritarrak direnen tasa % 5,1 zen duela hamar urte, eta gaur egun % 8,9. Lurralde historikoen artean, orain arte moduan, Bizkaia da erroldatutako biztanle atzerritar gehien dituena, 95.146 lagun, eta atzetik daude Gipuzkoa (65.360) eta Araba (35.463).

1. taula. Atzerrian jaiotako EAEko biztanleak, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera (absolutuak eta ehunekoak), 2006 eta 2017

| | 2006 | | | | | 2017 | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Gizonezkoak | | Emakumezkoak | | Guztira | Gizonezkoak | | Emakumezkoak | |
| | K | K | % | K | % | K | K | % | K | % |
| Estatua | 4.837.622 | 2.532.756 | 52,4 | 2.304.866 | 47,6 | 6.160.458 | 2.994.644 | 49,2 | 3.165.814 | 51,4 |
| EAE | 108.094 | 53.479 | 49,5 | 54.615 | 50,5 | 195.969 | 93.433 | 45,4 | 102.536 | 52,3 |
| Araba | 19.717 | 10.395 | 52,7 | 9.322 | 47,3 | 35.463 | 17.623 | 48,7 | 17.840 | 50,3 |
| Bizkaia | 55.516 | 26.623 | 48,0 | 28.893 | 52,0 | 95.146 | 44.567 | 44,1 | 50.579 | 53,2 |
| Gipuzkoa | 32.861 | 16.461 | 50,1 | 16.400 | 49,9 | 65.360 | 31.243 | 45,5 | 34.117 | 52,2 |

*Iturria: EIN*

Agerian geratu da, 2. taulan, atzerritarrak gurera etortzen jarraitzen dutela eta demografiaren ikuspegitik oraindik ere erabakigarria dela haien etorrera, EAEko herritar-kopuruen zifrak positiboak izango badira. Izan ere, 1998tik 2017ra bitartean, bertako herritarren kopuruak behera egin du (-75.058 lagun), baina, hala ere, EAEn 94.577 herritar gehiago gara, adierazitako epe horretan jatorri atzerritarra duten herritarrak gurera etortzearen ondorioz (+169.635).

Azken urtean, 2016. eta 2017. urteen artean, jatorri atzerritarra duen biztanlerian izan den bilakaerari dagokionez (1. grafikoa), nabarmentzekoa da Estatuan izan den hazkunde erlatiboa (+% 0,60), eta batez ere zenbait autonomia-erkidegotakoa; haien artean, EAEn gora egin du gehien, eta atzetik daude Katalunia, Nafarroa, Madril, Aragoi, Kanariak, Galizia eta Balearrak, guztietan bataz bestekoaren gainetik.

2. taula. EAEn bertako eta atzerrian jaiotako biztanleek izandako bilakaera eta EAEko eta estatuko atzerritarren ehunekoak (absolutuak eta ehunekoak),1998-2017

| | Guztira EAE | Bertakoa | Atzerrian jaiotakoa | | | Atzerrian jaiotakoen tasa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Hazkundea | | EAE | Espainia |
| | K | K | K | K | % | % | % |
| 1998 | 2.098.628 | 2.072.294 | 26.334 | | | 1,3 | 2,9 |
| 1999 | 2.100.441 | 2.071.418 | 29.023 | 2.689 | 10,2 | 1,4 | 3,1 |
| 2000 | 2.098.596 | 2.063.453 | 35.143 | 6.120 | 21,1 | 1,7 | 3,6 |
| 2001 | 2.101.478 | 2.057.655 | 43.823 | 8.680 | 24,7 | 2,1 | 4,8 |
| 2002 | 2.108.281 | 2.052.413 | 55.868 | 12.045 | 27,5 | 2,6 | 6,2 |
| 2003 | 2.112.204 | 2.044.675 | 67.529 | 11.661 | 20,9 | 3,2 | 7,7 |
| 2004 | 2.115.279 | 2.037.073 | 78.206 | 10.677 | 15,8 | 3,7 | 8,6 |
| 2005 | 2.124.846 | 2.030.818 | 94.028 | 15.822 | 20,2 | 4,4 | 10,0 |
| 2006 | 2.133.684 | 2.025.590 | 108.094 | 14.066 | 15,0 | 5,1 | 10,8 |
| 2007 | 2.141.860 | 2.019.664 | 122.196 | 14.102 | 13,0 | 5,7 | 11,6 |
| 2008 | 2.157.112 | 2.014.628 | 142.484 | 20.288 | 16,6 | 6,6 | 13,1 |
| 2009 | 2.172.175 | 2.012.538 | 159.637 | 17.153 | 12,0 | 7,3 | 13,8 |
| 2010 | 2.178.339 | 2.010.957 | 167.382 | 7.745 | 4,9 | 7,7 | 14,0 |
| 2011 | 2.184.606 | 2.009.567 | 175.039 | 7.657 | 4,6 | 8,0 | 14,2 |
| 2012 | 2.193.093 | 2.009.321 | 183.772 | 8.733 | 5,0 | 8,4 | 14,3 |
| 2013 | 2.191.682 | 2.008.399 | 183.283 | -489 | -0,3 | 8,4 | 14,1 |
| 2014 | 2.188.985 | 2.007.268 | 181.717 | -1.566 | -0,9 | 8,3 | 13,4 |
| 2015 | 2.189.257 | 2.005.060 | 184.197 | 2.480 | 1,4 | 8,4 | 13,2 |
| 2016 | 2.189.534 | 2.000.938 | 188.596 | 4.399 | 2,4 | 8,6 | 13,2 |
| 2017 | 2.193.205 | 1.997.236 | 195.969 | 7.373 | 3,9 | 8,9 | 13,2 |
| 1998-2017 | 94.577 | -75.058 | 169.635 | | | | |

*Iturria: EIN*

1. grafikoa. Atzerrian jaiotako biztanleen urtetik urterako hazkundea, autonomia-erkidegoka (%), 2017




*Iturria: EIN*

Hau da atzerrian jaiotako biztanleriaren osaera, jatorri-eremuaren arabera (3. taula):

- % 46,7 latinoamerikarrak dira jatorriz, eta EAEn bizi den jatorri atzerritarreko kolektibo nagusia osatzen dute.
- % 0,9 Ipar Amerikan –Kanadan eta AEBn– jaiotakoak dira.
- Asiatik etorri dira atzerritarren % 7,1, eta kontinente horretako etorkin gehienak Txinakoak dira, % 2,7 hain justu; eta gero, aldea txikia bada ere, Pakistanekoak (% 2,5).
- Atzerrian jaiotako biztanleriaren % 23,3 europarra da, EBkoen guztizkoa % 19,5 da; eta Europar Batasunaz kanpoko europarrek, berriz, % 3,9 egiten dute.

Lurralde historikoei erreparatuta, jatorri latinoamerikarreko biztanleak dira nagusi Araban (% 40,9), Gipuzkoan (% 44,5) eta, batez ere, Bizkaian (% 50,4). Baina bestelako jatorrizko herrialdeak ere nabarmentzen dira: Araban, esaterako, atzerrian jaiotako biztanleen % 22,7 magrebtarrak dira jatorriz, eta Gipuzkoan, berriz, atzerrian jaiotako biztanleen % 22,5 jatorriz europarrak dira.

3. taula. EAEko atzerritar jatorriko biztanleak, eremu geografikoaren eta lurralde historikoaren arabera (absolutuak eta ehunekoak), 2017

| | EAE | | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | K | % | K | % | K | % | K | % |
| EB 25 | 21.605 | 11,0 | 3.358 | 9,5 | 8.729 | 9,2 | 9.518 | 14,6 |
| EB 28 | 16.563 | 8,5 | 1.764 | 5,0 | 9.579 | 10,1 | 5.220 | 8,0 |
| EB guztira | 38.168 | 19,5 | 5.122 | 14,4 | 18.308 | 19,2 | 14.738 | 22,5 |
| Gainerako Europa | 7.569 | 3,9 | 1.572 | 4,4 | 2.720 | 2,9 | 3.277 | 5,0 |
| Europa guztira | 45.737 | 23,3 | 6.694 | 18,9 | 21.028 | 22,1 | 18.015 | 27,6 |
| Magreb | 27.441 | 14,0 | 8.041 | 22,7 | 10.303 | 10,8 | 9.097 | 13,9 |
| Gainerako Afrika | 15.182 | 7,7 | 3.395 | 9,6 | 8.268 | 8,7 | 3.519 | 5,4 |
| Afrika guztira | 42.623 | 21,7 | 11.436 | 32,2 | 18.571 | 19,5 | 12.616 | 19,3 |
| AEB eta Kanada | 1.744 | 0,9 | 154 | 0,4 | 947 | 1,0 | 643 | 1,0 |
| Latinoamerika | 91.510 | 46,7 | 14.506 | 40,9 | 47.923 | 50,4 | 29.081 | 44,5 |
| Amerika guztira | 93.254 | 47,6 | 14.660 | 41,3 | 48.870 | 51,4 | 29.724 | 45,5 |
| Txina | 5.389 | 2,7 | 818 | 2,3 | 3.210 | 3,4 | 1.361 | 2,1 |
| Pakistan | 4.875 | 2,5 | 1.458 | 4,1 | 1.243 | 1,3 | 2.174 | 3,3 |
| Gainerako Asia | 3.694 | 1,9 | 362 | 1,0 | 1.982 | 2,1 | 1.350 | 2,1 |
| Asia guztira | 13.958 | 7,1 | 2.638 | 7,4 | 6.435 | 6,8 | 4.885 | 7,5 |
| Ozeania | 397 | 0,2 | 35 | 0,1 | 242 | 0,3 | 120 | 0,2 |
| Guztira | 195.969 | 100,0 | 35.463 | 100,0 | 95.146 | 100,0 | 65.360 | 100,0 |

*Iturria: EIN*

4. taula. Jatorri atzerritarra duten biztanleen bilakaera EAEn, jaioterri nagusien arabera (absolutuak eta ehunekoak), 2002, 2005, 2008, 2011, 2014, 2017

| | 2002 | | 2005 | | 2008 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | K | % | K | % | K | % |
| Jaioterri nagusiak | 35.457 | 63,5 | 55.432 | 59,0 | 87.238 | 61,2 |
| Gainerako jaioterriak | 20.411 | 36,5 | 38.596 | 41,0 | 55.246 | 38,8 |
| Guztira | 55.868 | 100,0 | 94.028 | 100,0 | 142.484 | 100,0 |

| | 2011 | | 2014 | | 2017 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | K | % | K | % | K | % |
| Jaioterri nagusiak | 101.363 | 57,9 | 101.898 | 56,1 | 106.844 | 54,5 |
| Gainerako jaioterriak | 73.676 | 42,1 | 79.819 | 43,9 | 89.125 | 45,5 |
| Guztira | 175.039 | 100,0 | 181.717 | 100,0 | 195.969 | 100,0 |

*Iturria: EIN*

5. taula. Atzerrian jaio eta EAEn bizi diren biztanleak, jaioterri nagusien arabera, gaur egun eta aurreko urteetan (absolutuak), 2002, 2005, 2008, , 2011, 2014 eta 2017

| | 2002 | | 2005 | | 2008 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | K | Posizioa | K | Posizioa | K | Posizioa |
| Maroko | 4.532 | 4 | 7.648 | 2 | 10.964 | 4 |
| Kolonbia | 7.135 | 1 | 10.925 | 1 | 14.750 | 1 |
| Errumania | 847 | 18 | 4.347 | 7 | 12.515 | 2 |
| Bolivia | 224 | 34 | 3.574 | 8 | 11.724 | 3 |
| Ekuador | 2.938 | 5 | 7.634 | 3 | 8.349 | 6 |
| Nikaragua | 98 | 50 | 184 | 45 | 1.189 | 26 |
| Portugal | 4.540 | 3 | 6.175 | 5 | 9.475 | 5 |
| Brasil | 2.230 | 7 | 3.541 | 9 | 5.841 | 8 |
| Paraguai | 88 | 53 | 656 | 28 | 2.998 | 14 |
| Frantzia | 5.665 | 2 | 6.369 | 4 | 6.668 | 7 |
| Guztira | 55.868 | | 94.028 | | 142.484 | |

| | 2011 | | 2014 | | 2017 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | K | Posizioa | K | Posizioa | K | Posizioa |
| Maroko | 15.663 | 2 | 18.165 | 1 | 21.345 | 1 |
| Kolonbia | 17.789 | 1 | 17.494 | 2 | 18.216 | 2 |
| Errumania | 15.109 | 3 | 15.370 | 3 | 15.451 | 3 |
| Bolivia | 11.885 | 4 | 11.191 | 4 | 11.156 | 4 |
| Ekuador | 9.430 | 5 | 8.681 | 5 | 8.393 | 5 |
| Nikaragua | 3.035 | 17 | 4.777 | 13 | 7.183 | 6 |
| Portugal | 9.256 | 6 | 7.970 | 6 | 6.952 | 7 |
| Brasil | 6.687 | 7 | 5.875 | 8 | 6.202 | 8 |
| Paraguai | 5.190 | 10 | 5.351 | 10 | 6.027 | 9 |
| Frantzia | 6.506 | 8 | 6.244 | 7 | 5.919 | 10 |
| Guztira | 175.039 | | 181.717 | | 195.969 | |

*Iturria: EIN*

5. taulan azaltzen dira atzerrian jaio eta gaur egun EAEn bizi diren biztanleen jatorrizko hamar herrialde nagusiak (kopurua haintzat hartuta). Horien artean sei Latinoamerikako herrialdeak dira –Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Nikaragua, Brasil eta Paraguai–, hiru Europar Batasunekoak –Errumania, Portugal eta Frantzia–, eta bat Magrebekoa –Maroko–. Jatorri horietako biztanlerian izandako bilakaerari dagokionez, batzuek gora egin dute krisialdi ekonomikoan –nikaraguarren eta paraguaiarren kopuruak, adibidez–, eta beste batzuk, berriz, aurretik ugaritu ziren –boliviarrak edo ekuadortarrak, kasu–; hau da, urte gehiago daramatzate EAEn bizitzen. Deigarria da azken urteotan gurera iritsi diren jatorri berrietako (Nikaragua eta Paraguai) atzerritarren artean gehiago direla emakumezkoak, ekonomiaren oparoaldian etorritako atzerritarren artean baino. Esate baterako, Nikaraguatik etorritako herritarren % 80 baino gehiago emakumezkoak dira.

2017ko urtarrilaren 1ean, 142.392 atzerritar daude erroldatuta EAEn, eta horietatik 125.480 lagunek dute egoitza-txartela edo -baimena. Horrenbestez, erregularizazio-tasaren kalkuluak adieraziko luke erroldatutako atzerritarren % 88k duela egoitza-baimena. Atzerritar gehienak administrazio-egoera irregularrean dauden uste zabalduaren kontrako egoera erakusten du datu horrek.

6. taula. Erregularizazio-indizea EAEn, 1998-2017

| | Erroldatuak | Baimenak | Erregularizazio-tasa |
|---|---|---|---|
| 1998 | 15.198 | 15.647 | 1,03 |
| 1999 | 16.793 | 16.995 | 1,01 |
| 2000 | 21.140 | 18.622 | 0,88 |
| 2001 | 27.438 | 18.822 | 0,69 |
| 2002 | 38.408 | 19.515 | 0,51 |
| 2003 | 49.231 | 24.201 | 0,49 |
| 2004 | 59.166 | 28.600 | 0,48 |
| 2005 | 72.894 | 37.150 | 0,51 |
| 2006 | 85.542 | 57.395 | 0,67 |
| 2007 | 98.524 | 64.228 | 0,65 |
| 2008 | 117.337 | 83.875 | 0,71 |
| 2009 | 132.865 | 96.635 | 0,73 |
| 2010 | 139.369 | 106.658 | 0,77 |
| 2011 | 145.256 | 110.063 | 0,76 |
| 2012 | 151.894 | 119.984 | 0,79 |
| 2013 | 148.877 | 123.484 | 0,83 |
| 2014 | 141.316 | 122.994 | 0,87 |
| 2015 | 137.816 | 122.076 | 0,89 |
| 2016 | 139.425 | 124.064 | 0,89 |
| 2017 | 142.392 | 125.480 | 0,88 |

*Iturria: EIN eta Emplegua eta Gizarte Segurantzako Ministerioa*

# 2

# Jatorri atzerritarra duten biztanleei buruzko iritziak eta jarrerak

Orain, 2017ko barometroaren informazioa aztertuko dugu: bertako jendeak atzerriko immigrazioari buruz dituen jarrerak, usteak, balioak eta iritziak adierazten ditu lan horrek. Urtero jakitera ematen dugunez, eta urte hauetan guztietan eskuratutako eskarmentua dela eta, jarrera eta iritzi horiek nondik nora egin duten ikusteko modua daukagu, azken urteetako barometroekin alderatuta; horrezaz gain, krisi ekonomikotik irteten argi garen garaiotan, immigrazioarekiko zer iritsi dauden hautemateko ere modua badugu.

Kapitulu honen egitura bost bloketan banaturik dago:

- Etorkinen presentziaren pertzepzioa: bolumena.
- Etorkinen presentziaren pertzepzioa: arazo moduan.
- Immigrazioak EAEko gizartean duen eragina, hainbat arlotan: ekonomian, ongizatearen alderdietan, abertzaletasunaren helburuetan, hizkuntzaren erabileran eta bilakaeran, harremanen bilakaeran.
- Harrerako komunitatearen eta etorkinen komunitatearen arteko harremanen bilakaera eta integrazioa: bizikidetza-ereduak; estereotipoak eta aurreiritziak; eskubideak eta zerbitzuak eskuratzea; harremanetarako eremuak eta kultura-ereduei eustea; begikotasuna eta lehentasuna.
- Immigrazio-politika: sartzea, bertan gelditzea eta kanporatzea.

Bost blokeetan, egitura berari jarraitu diogu:

1. Iritzi eta jarrerei loturiko emaitzak eta emaitza horien bilakaera (%) aurkeztu eta interpretatu ditugu lehenbizi.
2. Alderdi bakoitzaren indize laburtua landu dugu, alde esanguratsuak dauden profilei arreta berezia eskainita.
3. Aztertutako bloke bakoitzaren ondorioak atera ditugu.

## Etorkinen presentziaren pertzepzioa: bolumena

Atal honetan, euskal herritarrek jatorri atzerritarra duten biztanleen bolumenari buruz zer pertzepzio duten aztertuko dugu. Garrantzi handiko gaia da; izan ere, pertzepzio horrek aukera ematen du jakiteko fenomenoaren tamaina berez dena baino handiagoa ikusten den, horrek eragina izan baitezake immigrazioarekiko jarrera on edo txarretan.

Horretarako, EAEn erroldatuta dauden atzerritarren benetako bolumena zein den jakitera eman aurretik eta jakitera eman ondoren aztertu dugu etorkinen bolumenaren pertzepzioa. Aurten, gainera, lehendabizikoz eskatu diegu inkesta bete duten pertsonei esateko ea beren ustez hurrengo bost urteetan jatorri atzerritarra duten biztanleak Euskadira etortzen jarraituko duten. Hortaz, bolumenaren indize sintetiko bat prestatu dugu, erakusteko atzerritarren bolumenarekiko jarrera alarmistekin edo jarrera ez hain kezkatuarekin zerikusia duten aldagaiak.

1. irudia. Etorkinen presentziaren pertzepzioa eta balorazioa




Euskal gizarteak immigrazioari buruz duen pertzepzioa ez dator bat EAEn bizi diren atzerritarren bolumenarekin, egiaz bizi direnak baino atzerritar gehiago bizi direla uste baitu (1 irudia). Zehazki, bertako biztanleek atzerritarren bolumenari buruz duten ustea erroldatutako bolumenaren halako bi baino handiagoa da. Alegia, uste da atzerritarrek % 22,25 egiten dutela, eta benetako zifra % 8,9 da. Bestalde, beren ustez EAEn bizi diren atzerritarren kopurua baloratzeko eskatu zaie, eta erantzunak bi multzotan bana daitezke; batetik, askotxo direla (% 24,8) edo gehiegi direla (% 25,1) adierazi dutenak, eta bestetik, kopurua egokia dela (% 34,1) adierazi dutenak. Datu hori esanguratsua da, aintzat hartzen bada jatorri atzerritarra duten biztanleen portzentajea Euskal Autonomia Erkidegoan, beste lurralde batzuetako portzentajeen aldean, bataz bestekoa baino txikiagoa dela.

2. grafikoa. Atzerriko biztanleen bolumenaren hasierako pertzepzioa (%), 2007-2017




*3G. Beste herrialde batzuetatik etorri eta Euskadin bizi diren etorkinen kopurua, zure iritziz, …*

2012. urteaz geroztik izandako bilakaerak, urte hartan gehitu zen “kopurua egokia da” aukera, argi adierazten du behera egin duela gehiegi edo askotxo direla uste duten pertsonen ehunekoak, nahiz eta azken urtean pixka bat gora egin duen(% 21,3tik % 25,1era).

Euskal herritarrei galdetu diegu Euskadin bizi diren 100 pertsonetatik zenbat diren, beren ustez, atzerriko etorkinak, eta hemen benetan bizi diren pertsona kopuruaren halako bi edo halako hiru direla erantzun dute gehienek. Azken urteotako bilakaera aztertu ondoren, ikusi dugu jatorri atzerritarra duten biztanleen bolumenaren pertzepzioa % 15etik % 18ra bitartekoa izan dela, hurrenez hurren, 2007. urtetik 2016. urtera bitartean. Baina azken urtean, pertzepzioaren ehunekoak gora egin du nabarmen; 2016n % 16,8 zen eta 2017an, berriz, % 20,3.

3. grafikoa. Euskadin bizi diren 100 pertsonatik, gutxi gorabehera zenbat dira, zure ustez, atzerriko etorkinak (alegia, Espainiatik kanpoko herrialdeetatik etorriak)? (%), 2007-2017




*4G. Euskadin bizi diren 100 pertsonetatik zenbat dira, zure ustez, atzerriko etorkinak (alegia, Espainiatik kanpoko herrialdeetatik etorriak)?*

4. grafikoa. Atzerriko biztanleen bolumenari buruzko pertzepzioa, erroldatuta dauden atzerritarren benetako kopuruaren berri eman ondoren (%), 2007-2017




*5G. Nik esango banizu Euskadin bizi diren pertsonen % 8 edo % 9 gutxi gorabehera beste herrialdetako etorkinak direla, berdin pentsatzen al duzu edo…*

EAEn erroldatuta dauden atzerritarrei buruzko datu benetakoa eman ondoren galdera horren beraren erantzunak erakusten ditu 4. grafikoak. Galdera hori egiteak hau du xede: jakitea ea benetako zifrak eragina baduen atzerritarren bolumenaren balorazioan. Emaitzek erakusten dute benetako zifraren berri izateak baduela eraginik, baina ez espero zitekeena bezain bestekoa. Izan ere, bertako biztanleen % 16,6k uste du gehiegizkoa dela atzerritarren ehunekoa % 8,9koa izatea, % 22k uste du atzerritarren ehuneko hori askotxo dela, eta % 40,1ek kopurua egokia dela. Nolanahi ere, aldaketa handiena hau da: inkesta erantzun duten pertsonen % 15,8k uste du gutxi dela ehunekoa. Hain zuzen, 2014. urtean % 7,3k adierazi zuen hori, eta 2017an ehuneko horren halako bik baino gehiagok adierazi du.

Aurten, Barometroan, euskal herritarrei lehenbizikoz galdetu diegu nola ikusten duten jatorri atzerritarra duten biztanleen etorrera datozen urteetan. Datozen bost urteetan Euskadin gertatuko denari buruzko galderari dagokionez, inkesta erantzun duten pertsonen erdiak baino gehiagok (% 54,5) garbi daukate gora egingo duela, bost lagunetik batek (% 28,4) uste du egoera berdintsua izango dela eta % 10ek uste du kopuruak behera egingo duela.

5. grafikoa. Etorkizunerako perspektibak. Jatorri atzerritarra duten pertsonak Euskadira heltzea (%), 2017




*22G. Hurrengo 5 urteetako egoerari begira, immigrazioak EAEn, zure ustez, behera egingo du, gora egingo du edo oraingoa bezalakoa izango da gutxi gorabehera?*

### Atzerriko etorkinen bolumenaren pertzepzioari buruzko indizea

Hiru galdera horien erantzunekin (galdetegiko 3., 4. eta 5. itemak) atzerriko immigratzaileen bolumenaren pertzepzioari buruzko indize partziala landu dugu. Otik 10 puntura doa indize hori; horrela, jarrera alarmista eta/edo gehiegizko pertzepzioa dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta jarrera eta pertzepzio ez hain kezkatua eta zuzenagoa dutenak 10 puntura.

Estatistikoki alde nabarmenak aurkitu ditugu bertako herritar talde batzuen eta besteen artean, aldagai batzuen arabera. 7. taulan ageri dira immigratzaileen bolumenaz duten pertzepzioaren arabera jarrera toleranteena duten pertsonen profila (puntuazio handiena eskalan) eta jarrera intoleranteena duten pertsonen profila (puntuazio txikiena eskalan).

7. taula. Atzerriko etorkinen bolumenaren indizearekin lotutako aldagaiak

| BOLUMENAREN PERTZEPZIOA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Pertsona intoleranteenen profila | | Aldagaia | | Pertsona toleranteenen profila |
| Emakumea | 4,06 | Sexua | 4,90 | Gizona |
| 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 3,85 | Adina | 4,69/4,72 | 45-64 eta 30-44 urte bitartekoak |
| Ikasketarik ez | 3,44 | Ikasketak | 5,68 | Goi-mailako unibertsitate-ikasketak |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak | 3,89/4,20 | Erlijioa | 5,12 | Agnostikoak, ateoas… |
| Erdaldunak | 4,02 | Hizkuntza | 4,91 | Euskaldunak |
| Espainiarra | 3,52 | Nazionalismoa | 5,22 | Euskalduna |
| Batik bat espainiar sentitzen dira | 2,44 | Identitate-sentipena | 4,87/4,26 | Batik bat euskaldun edo espainiar-euskaldunak sentitzen dira |
| Zentrokoak | 3,97 | Ideologia | 5,10 | Ezkerrekoak |
| Hileko 1.000 €, 1.001-1.800 € | 3,33/4,25 | Diru-sarrerak | 5,34/5,65 | Hileko 1.801-2.500 €, 2.500 €-tik gora |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 3,72 | Egoera-ekonomikoa | 5,01/4,45 | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin, ezaxola |
| Etxea zaintzen duten pertsonak | 3,12 | Lanbidea | 5,23/4,77 | Ikasleak eta aktiboak |
| Apala, ertaina | 4,09/4,58 | Estatusa | 5,65 | Altua |
| Ezkorrak | 3,74 | Baikortasuna | 4,79/4,62 | Baikorrak, ezaxola |
| Aurreikuspen txarrak | 3,24 | Etorkizuna | 5,09 | Aurreikuspen onak |
| Etorkinen presentzia ertaina edo altua | 3,86/3,18 | Auzoa | 4,82 | Bertakoak |
| Inolako harremanik ez, harreman handia | 4,28/4,23 | Interakzio pribatua | 5,03 | Interakzio apur bat |
| Inolako harremanik ez | 3,72 | Interakzio publikoa | 4,76/4,67 | Harreman handia edo interakzio apur bat |
| Batere ez edo interakzio apur bat | 4,09 | Aisiako interak. | 4,77 | Handia |

*Iturria: egileek egina.*

**Laburrean.** Etorkinen presentziaren pertzepzioa: bolumena

2017ko Barometroko emaitzek adierazten dute euskal gizarteak immigrazioari buruz duen pertzepzioa ez datorrela bat EAEn bizi diren atzerritarren bolumenarekin, egiaz bizi direnak baino atzerritar gehiago bizi direla uste baitu. Zehazki, estatistika ofizialetan erregistratuta eta erroldatuta dauden jatorri atzerritarreko biztanleen ehunekoa baino bi aldiz eta erdi baino gehiago hautematen du euskal gizarteak. Bilakaerari dagokionez, esan daiteke apenas aldatu dela jatorri atzerritarra duten biztanleen benetako –erroldatutakoak– ehunekoaren eta hautemandakoaren arteko aldea. Hala ere, azken urtean, aldea pixka bat handiagoa izan da. Ikusteko dago zer gertatuko den datozen urteetan eta beste joera bat ezagutzen dugun, edo, aitzitik, aurreko urteetako joera berarekin jarraitzen dugun. Gainera, euskal herritarren erdiak baino gehiagok garbi dauka datozen bost urteetan gora egingo duela EAEn jatorri atzerritarra duten biztanleen kopuruak.

## Etorkinen presentzia arazotzat hautematea

Atal honetan, bizikidetzan eragina duen faktore nagusietako bat aztertuko dugu: immigrazioa arazotzat hartzea edo ikustea. Alderdi hori aztertzeko, gaur egun Euskadin dauden hiru arazo nagusiak zein diren galdetu dugu lehenenik eta behin, eta bat-bateko erantzunak bildu ditugu. Gero, galdera berbera egin dugu, baina Eurobarometroan erabiltzen denaren moduko arazo-zerrenda bat erakutsita. Azkenik, galdera bera egin dugu baina immigrazioa arazo pertsonaltzat harturik, eta, horrekin guztiarekin, «immigrazioa arazo gisa» arloaren indize laburtua egin eta aztertu dugu.

2. irudia. Immigrazioa arazo pertsonaltzat eta EAEko arazotzat hartzea (bat-bateko erantzuna eta erantzun iradokia) (lehen aipamena, eta aipamenak guztira, %), 2017

**IMMIGRAZIOA ARAZOTZAT HARTZEA**

| ARAZO PERTSONALA | ARAZOA EAEn<br>Bat-bateko erantzuna | ARAZOA EAEn<br>Bat-bateko erantzuna |
|---|---|---|
| % 1,2 | % 2,4 | % 2,3 |
| Aipamenak guztira<br>% 5,2 | Aipamenak guztira<br>% 12,6 | Aipamenak guztira<br>% 13,6 |

Gizarte-arazo gisa ikusten al da immigrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan? 2017ko barometroak adierazten du, beste behin ere, EAEko gizartearen gehiengo zabalak ez duela pertsona immigratzaileen presentzia arazo sozial edo pertsonaltzat hartzen. % 12,6k soilik erantzun du, bat-batean, immigrazioa arazo bat dela, eta % 5,2k hartzen du arazo pertsonaltzat. Inkesta-egileak immigrazioaren gaia iradokitzen duenean, neurri handiagoan hartzen da immigrazioa arazotzat (% 13,6) (2. irudia).

Euskal gizarteak Euskadik dituen arazo nagusiei buruz duen pertzepzioari dagokionez, langabezia da, alde handiarekin, arazo nagusia herritarren ustez (% 77,3). Gainerako arazoak askoz ere jende gutxiagok adierazi ditu; oro har, arazo ekonomikoak adierazi dituzte (% 25), bai eta ustelkeria/iruzurra (% 17,1) eta klase politikoa (% 14,8) ere.

Aurreko barometroetan adierazi dugunez, hipotesi zabalduenak esaten du immigrazioaren pertzepzioak okerrera egiten duela krisi ekonomikoko egoerak irauten duen heinean. Alabaina, emaitzak ez datoz bat hipotesi horrekin; izan ere, arazo sozioekonomikoak dira nagusi, eta gainerakoak bigarren mailan geratu dira. Galdera horrek beste zalantza bat ere piztu du; hau da, zenbateko eragina duten albisteek eta komunikabideek jarreran, iritzian edo gogo-aldartean.

6. grafikoa. Euskadiko arazoak (bat-bateko erantzunak) (%)




*1G. Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun hiru arazo nagusiak?*

7. grafikoak galdera hori bera baina 2016ko Eurobarometroan erabilitako arazoen zerrenda erakutsita emandako erantzunak adierazten ditu. Zerrenda horretan hamahiru arazo ageri dira eta horietatik aukeratu behar dituzte. Kasu horretan, aukeratzeko erantzuna eskaintzen denean, immigrazioa arazoa delako pertzepzioaren ehunekoa % 13,6 da, eta horrek esan nahi du bat-batean erantzuten dutenean baino puntu bat gehiago dela. Eta inkesta erantzun duten pertsonen ustez arazo nagusiak oraindik ere dira, lehenbizi, langabezia (% 70,1), eta gero, alde handi samarrarekin, egoera ekonomikoa, prezioen garestitzea, inflazioa eta bizi-kostua (% 33,3).

7. grafikoa. Euskadiko arazoak (iradoki ondorengo erantzunak) (%)




*2G. Txartel honetan ageri diren arazoetatik zein dira, zure iritziz, Euskadiko hiru arazo garrantzitsuenak?*

[1]EUROSTAT 2016ko erantzunen zerrenda.

Immigrazioa hein txikiagoan hartzen da arazotzat inkestatuak bat-batean erantzuten duenean edo haren arazo pertsonal nagusiak zein diren galdetzen zaionean. 2007tik datorren joera horrek adierazten du EAEko gizarteak ez duela immigrazioa arazo larritzat hartzen, baldin eta gaia ez bada gizarte-eztabaidako gaien artean sartzen; izan ere, gaia iradokitzen denean adierazten du jendeak, batik bat, gaia arazo bat izan daitekeela, baina oso jende gutxik ikusten du arazo pertsonal moduan (8. grafikoa).

8. grafikoa. Immigrazioa EAEn arazotzat hartzeak izan duen bilakaera (bat-bateko erantzuna, erantzun iradokia eta arazo pertsonala) (%) 2007-2017




*25G. Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki zein 3 arazok ukitzen zaituzte gehien?*

### Atzerriko immigrazioa arazotzat hartzearen pertzepzioaren indize partziala

Esparru honetako hiru galderen erantzunekin (galdetegiko 1., 2. eta 25. itemak), pertzepzio-indize partzial bat landu dugu: atzerriko immigrazioa arazotzat hartzearen indizea. Otik 10erako eskala batean taxutu dugu indize hori. Horrela, immigrazioa arazo izatearekin gehien lotzen dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta arazotzat hartzen ez dutenak, 10 puntura. Indize hori nola landu den zehatzago jakiteko, jo beza irakurleak metodologiaren kapitulura.

Ikerketa-eremu horretan ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu. Arlo horretan toleranteenak eta intoleranteenak diren pertsonen profilak 8. taulan laburbildu ditugu.

8. taula. Atzerriko immigrazioa arazotzat hartzearen indizearekin lotutako aldagaiak

IMMIGRAZIOA ARAZOTZAT HAUTEMATEA

| Pertsona intoleranteenen profila | | Aldagaia | | Pertsona toleranteenen profila |
|---|---|---|---|---|
| Bigarren mailakoak | 9,47 | Ikasketak | 9,83/9,78/9,78 | Ikasketarik ez, goi- eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak |
| Handia | 9,45 | Aisiako interak. | 9,72 | Interakzio apur bat |

*Iturria: egileek egina.*

**Laburrean.** Etorkinen presentzia arazotzat hautematea

2017ko Barometroak berriro ere agerian utzi du euskal gizartearen gehiengo zabalak ez duela pertsona immigratzaileen presentzia arazo sozial edo pertsonaltzat hartzen. Inkesta erantzun duten pertsonen % 12,6k baino ez du erantzun, bat-batean, immigrazioa arazo dela, eta % 5,2k adierazi du immigrazioa arazo pertsonaltzat hartzen duela. Aukeran utzitako arazoak erakustean (Eurobarometroak baliatzen duen arazoen zerrenda berbera), immigrazioa arazotzat jende gehiagok aukeratzen du (% 13,6).

Euskal herritarren kezka nagusiak (bat-bateko erantzuna) ekonomiarekin zerikusia duten gaiak dira, langabezia, batik bat. Gainerako arazoak jende gutxiagok adierazten ditu, hala nola ustelkeria eta iruzurra, eta politikariak.

## Eragina euskal gizartean

Immigrazioaren alderdiek euskal gizartean izan dezaketen eragina, positiboa nahiz negatiboa, aztertuko dugu atal honetan. Horretarako, inkesta egin diegun pertsonei galdetu zaie immigrazioak zer ondorio eragiten dituen zenbait arlotan; hala nola ekonomian, identitatean eta harremanetan. Erantzunak bildu eta hiru indize sintetiko prestatu eta aztertu ditugu, jakiteko zein den iritzi horietako bakoitzaren inpaktua arlo ekonomikoari eta euskal gizartean duen eraginari dagokionez, bai eta immigrazioaren ondorio guztiari buruzko iritzia jakiteko ere, kontuan hartuta erantzunetan alde nabarmenak dauden taldeak.

3. irudia. EAEko gizartean dituen eraginak. Aztertutako alderdiak,



### Eragina ekonomian

Euskal gizarteak onartu egiten ditu, nolabait ere, atzerritarren etorrerak ekonomian eragiten dituen onurak eta lan-funtzionalitatea, eta bigarren mailakotzat hartzen dituzte eragin ditzakeen kalteak. Gure gizartean, zeinetan langabezia eta arazo ekonomikoak jotzen diren euskal gizartearen arazo nagusitzat, oraindik ere berebiziko garrantzia du jakiteak zer balorazio egiten duen gaiaz, horrela ikus baitezakegu zenbateraino egiten dituzten bertako herritarrek etorkinak arazo ekonomiko horien “erantzule”, hala nola langabeziaren erantzule.

Hala, 9. grafikoari erreparatuz gero, jakin dezakegu euskal herritarrek uste dutela immigrazioak ekonomian eragin dituen ondorioak positiboak direla, negatiboak baino gehiago; baina nolabaiteko anbibalentziaz adierazi dute hori, eta ez dute iritzi bataren edo bestearen alde argi eta garbi egin. Batetik, gehienek ez dute uste etorkinen etorrerak alderdi ekonomikoetan ondorio negatiboak eragiten dituenik, hala nola soldaten beherakada (% 59,9) edo langabeziaren gorakada (% 45,2). Eta, aitzitik, gehiago dira pentsatzen dutenak etorkinen etorrerak ekonomiari mesede egin diola (% 45,9). Baina, bestetik, gure ekonomiako zenbait sektoretan lan egiteko etorkinak behar ditugulako ideiarekin zerikusia duten gaietan bertakoen iritzia banatuta dago.

9. grafikoa. Ekonomian dituen eraginak (%), 2017




*6G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin. 19jG Atzerriko etorkinen presentziak Euskadin langabezia handiagoa izatea dakar.*

Kontuan hartzen badugu 2004. urteaz geroztik gaurdainoko bilakaera (11. grafikoa), agerian dago lan-merkatuarekiko immigrazioaren ikuspegi funtzional eta utilitarista, hau da, etorkinak lan-merkatura ondo egokitzen direlako ikuspegia, nabarmen apaldu zela krisi ekonomikoaren eragina dela eta; esaterako, 2009an ikuspegi hori zuten herritarren % 55,9k eta 2014an, berriz, % 30,4k. Nolanahi ere, gorabeherak izan badira ere, 2015. urteaz geroztik, ikuspegi utilitarista hori dutenen kopuruak gora egin du; hala, 2017an % 41,4k du ikuspegi hori.

Antzeko zerbait gertatu da baieztapen honekin: “etorkinei esker, ekonomiak hobera egiten du, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako”. 2004an, % 63 ados zegoen baieztapen horrekin. Eta 2017an, berriz, % 45,9. Horrenbestez, immigrazioarekiko ikuspegi funtzional eta utilitarista indarra hartzen ari da berriro, krisi aurreko garaian nagusi zen ikuspegi bera.

10. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragin ekonomikoak (negatiboak) EAEn (Erabat ados/ Ados) (%), 2004, 2007-2017




*6G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin. 19jG Atzerriko etorkinen presentziak Euskadin langabezia handiagoa izatea dakar.*

11. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragin ekonomikoak (positiboak) EAEn: bilakaera (Erabat ados/ Ados) (%), 2004, 2007-2017




*6G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin.*

Immigrazioak lan-merkatuan eragin dituen alderdi negatiboei dagokienez (10. grafikoa), hauteman dugu gero eta jende gutxiagok uste duela etorkinek langabezia handitzen dutela. Azken urte honetan, hala pentsatzen dutenen kopuruak behera egin du nabarmen (-15,3 puntu). Nolabait ere, esan genezake etorkinak ez direla bertako herritarren enplegurik ezaren eta bertakoen enpleguaren erantzuletzat hartzen.

***Atzerriko immigrazioak ekonomian duen eraginaren pertzepzioari buruzko indizea***

Esparru honetako bost galderei (galdetegiko 6a, 6c, 6e, 6h eta 19j itemak) emandako erantzunekin, atzerriko immigrazioak sortutako eragin ekonomikoen pertzepzioari buruzko indize partziala landu dugu. Indizearen eskala 0tik 10 puntura doa; horrenbestez, immigrazioak ekonomian duen eraginari buruzko ikuspegi negatiboena dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta ikuspegi positiboena dutenak 10 puntura.

Hor ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu. Jarrera toleranteena eta intoleranteena dutenen profilak 9. taulan jaso ditugu.

9. taula. Atzerriko immigrazioak sortutako eragin ekonomikoei buruzko indizearekin lotutako aldagaiak

| Pertsona intoleranteenen profila | | Aldagaia | | Pertsona toleranteenen profila |
|---|---|---|---|---|
| | | ERAGIN EKONOMIKOEN PERTZEPZIOA | | |
| Emakumea | 5,34 | Sexua | 5,82 | Gizona |
| 18-29 urte eta 65 urtekoak edo + | 5,40/5,24 | Adina | 5,87 | 30-44 urte bitartekoak |
| Ikasketarik ez | 4,77 | Ikasketak | 6,46 | Goi-mailako unibertsitate-ikasketak |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak | 5,09/5,38 | Erlijioa | 6,04 | Agnostikoak, ateoak… |
| Erdaldunak | 5,35 | Hizkuntza | 5,79 | Euskaldunak |
| Espainiarra | 5,00 | Nazionalismoa | 5,88 | Euskalduna |
| Batik bat espainiar sentitzen dira | 4,25 | Identitate-sentipena | 5,70/5,54 | Batik bat euskaldun edo espainiar-euskaldunak sentitzen dira |
| Hileko 1.000 € edo gutxiago | 4,98 | Diru-sarrerak | 6,41 | Hileko 2.500 €-tik gora |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 4,84 | Egoera-ekonomikoa | 6,04/5,60 | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin, ezaxola |
| Apala, ertaina | 5,30/5,58 | Estatusa | 6,42 | Altua |
| Ezkorrak | 5,24 | Baikortasuna | 5,74 | Baikorrak |
| Aurreikuspen txarrak | 4,63 | Etorkizuna | 5,61/5,90 | Aurreikuspen onak eta normalak |
| Etorkinen presentzia ertaina | 4,83 | Auzoa | 5,74 | Bertakoak |
| Inolako harremanik ez | 5,31 | Interakzio pribatua | 5,98/5,84 | Harreman handia edo interakzio apur bat |
| Inolako harremanik ez | 5,00 | Interakzio publikoa | 5,67/5,81 | Harreman handia edo interakzio apur bat |
| Batere ez | 5,15 | Aisiako interak. | 5,77/6,22 | Harreman handia edo interakzio apur bat |

*Iturria: egileek egina.*

### Eragina identitatean eta hizkuntzan

Atal honetan, atzerriko immigrazioak alderdi jakin batzuetan, hala nola euskal nazionalismoari buruzko helburuetan, identitatean, eta euskararen erabileran eta hedapenean izan dezakeen eraginari buruz zer iritzi duten galdetu zaie bertako biztanleei.

Inkestari erantzun dioten gehienek (% 75,6) ez dute uste etorkinen etorrerak euskal identitatea galaraziko duenik edo euskal nazionalismoaren helburuak geldiaraziko dituenik (% 70,1). Euskarari dagokionez, euskal herritarren % 68,4k uste du atzerriko immigrazioaren fenomenoak ez duela euskararen erabilera murriztuko, gaur egun EAEn gehiengoak euskaraz dakien eremuetan (% 68,1) (12. grafikoa).

12. grafikoa. Identitatean eta hizkuntzan dituen eraginak (%), 2017




*24G. Esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin: Immigrante atzerritarrak etortzeak...*

2004. urteaz geroztik gaurdainoko joera aztertuz gero, zenbait aldaketa ageri dira. Oro har, 13. grafikoak agerian uzten du adostasun-maila ez dela bera izan 2004. urteaz geroztik gaurdaino.

Azken batean, esan dezakegu bertako biztanleria ez dagoela kezkatuta atzerritarren etorrerak euskal nazionalismoan edo identitatean izan dezakeen eraginaz, ez eta euskararen garapenean eta erabileran izan dezakeen eraginaz ere. 2004. urtetik 2017. urtera bitarteko bilakaera aztertuta, agerian dago aipatutako alderdi horietan atzerritarren etorrerak izan dezakeen eraginaz kezkatuta zeudenen kopuruak behera egin duela, batik bat 2014az geroztik.

13. grafikoa. Atzerriko immigrazioaren eragina EAEko gizartean (Erabat ados/Ados) (%), 2004, 2007-2017




*24G. Esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin: Immigrante atzerritarrak etortzeak...*

***Atzerriko immigrazioak EAEko gizartean duen eraginaren pertzepzioari buruzko indizea***

Esparru honetan egindako galderen erantzunekin (galdetegiko 19e, 19h, 24a, 24b, 24c, eta 24d itemak) atzerriko immigrazioak EAEko gizartean duen eraginari buruzko pertzepzioaren indizea landu dugu. Indizearen eskala 0tik 10 puntura doa; horrenbestez, immigrazioak EAEko gizartean duen eraginari buruzko ikuspegi negatiboagoa dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta ikuspegi positiboagoa dutenak 10 puntura.

Beste behin ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean. Jarrera toleranteena eta intoleranteena dutenen profilak 10. taulan jaso ditugu.

10. taula. Atzerriko immigrazioak EAEko gizartean duen eraginari buruzko indizearekin lotutako aldagaiak

ERAGINA EAE-KO GIZARTEAN

| Pertsona intoleranteenen profila | | Aldagaia | | Pertsona toleranteenen profila |
|---|---|---|---|---|
| 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 6,18 | Adina | 6,77 | 30-44 urte bitartekoak |
| Katoliko praktikanteak | 6,15 | Erlijioa | 6,62 | Agnostikoak, ateoak… |
| Apala | 6,31 | Estatusa | 6,83 | Altua |
| Ezkorrak | 6,06 | Baikortasuna | 6,65/6,51 | Baikorrak, ezaxola |
| Aurreikuspen txarrak | 5,73 | Etorkizuna | 6,85 | Aurreikuspen onak |
| Etorkinen presentzia altua | 5,73 | Auzoa | 6,57/6,34 | Bertakoak eta etorkinen presentzia ertaina |
| Inolako harremanik ez | 6,29 | Aisiako interak. | 6,77 | Interakzio apur bat |

*Iturria: egileek egina.*

## Iritzi orokorra: harremanen bilakaera

Immigratzaile gehiagoren etorrera dela-eta zenbait arlotan –hala nola ekonomian, gizarte-ongizatean eta euskal identitatean– bertako biztanleriak sumatzen duen eragina aztertuta, EAEko gizarteak atzerriko biztanleekin dituen harremanak eta harreman horien bilakaera nola baloratzen dituen jakin nahi izan dugu.

Oro har, euskal herritar gehienen iritziz (% 70,9), bertako herritarren eta jatorri atzerritarra duten biztanleen arteko harremanak berdin jarraitzen du, % 12,7k uste du harremanak hobera egin duela, eta % 10,8k okerrera egin duela. Datu horiek eta 2016ko Barometroko datuak alderatu ditugu, eta agerian geratu da iritzi orokorrak hobera egin duela, eta 2014ko joerara bueltatu garela. Bilakaerari erreparatuta, ikus daiteke 2009tik 2013ra bitartean hautemandako jarrera muturrekoagoen eta azken bi urteetan hautemandakoen artean aldaketa gertatu dela.

Amaitzeko, eta immigrazioak EAEko gizartean dituen ondorioen alderdiak aztertu ondoren, inkestari erantzun diotenei balorazio orokorra egiteko eskatu diegu. Balorazioa 0tik 10era egin da: 0 immigrazioak oso ondorio negatiboak dituela uste badute, eta 10 oso ondorio positiboak dituela uste badute. Aurten apur bat behera egin du puntuazioak; justu-justu gainditzen da nahikoa: lehen 5,2 zen eta 2017an, berriz, 5,1. Datu horiek baieztatu egiten dute etorkinak gurera etortzeari buruzko ikuspegi optimistagoaren sorrerari buruz adierazi genuena, eta hori hala da azken hiru urteetan. Iritzi hori oso egonkorra da urteen joanean, baina gorabehera gutxi batzuk ere izan

dira, gizartean izandako aldaketen adierazgarri, eta esan daiteke euskal gizarteak jarrera anbibalentea duela immigrazioaren eraginarekiko.

14. grafikoa. Bertakoen eta etorkinen arteko harremanaren bilakaera azken urtean (%), 2007-2017




*8G. Euskal herritarren eta atzerriko jendearen arteko harremanak, zure ustez, hobera egin du, txarrera egin du, edo duela urtebete bezalakoa da?*

15. grafikoa. EAEko gizarteak immigrazioaren etorreraren ondorioei buruz egiten duen balorazio orokorra: 0 (oso eragin negatiboak) 10 (oso eragin positiboak), 2014-2017




*26G. Orokorrean zure ustez, atzerriko pertsonak etortzeak, ondorio positiboak edo negatiboak eragiten dizkio euskal gizarteari?*

***Immigrazioaren eragin orokorrari buruzko pertzepzioaren indizea***

Esparru honetako galderei (6b, 6k, 6l, 8, 19 eta 26 itemak) emandako erantzunekin, atzerriko immigrazioak sortutako eragin orokorren pertzepzioari buruzko indize partziala landu dugu. Indizearen eskala 0tik 10 puntura doa; horrenbestez, immigrazioak duen eragin orokorrari buruzko ikuspegi negatiboena dutenak 0 puntura hurbilduko dira, eta ikuspegi positiboena dutenak 10 puntura.

Beste behin ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean. Immigrazioaren eragin orokorrari buruzko pertzepzioan jarrera toleranteena eta intoleranteena erakutsi duten pertsonen profilak 11. taulan jaso ditugu.

11. taula. Immigrazioaren eragin orokorrari buruzko pertzepzioaren indizearekin lotutako aldagaiak

| ERAGIN OROKORREI BURUZKO PERTZEPZIOA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Pertsona intoleranteenen profila | | Aldagaia | | Pertsona toleranteenen profila |
| Emakumea | 5,06 | Sexua | 5,66 | Gizona |
| 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 4,93 | Adina | 5,63/5,58 | 18-29 eta 30-44 urte bitartekoak |
| Ikasketarik ez | 4,84 | Ikasketak | 5,92 | Goi-mailako unibertsitate-ikasketak |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak | 4,87/5,14 | Erlijioa | 5,86 | Agnostikoak, ateoak… |
| Erdaldunak | 5,13 | Hizkuntza | 5,59 | Euskaldunak |
| Batik bat espainiar sentitzen dira | 4,27 | Identitate-sentipena | 5,49/5,28 | Batik bat euskaldun edo espainiar-euskaldunak sentitzen dira |
| Zentrokoak, eskuinekoak | 4,97/5,03 | Ideologia | 5,83 | Ezkerrekoak |
| Hileko 1.000 € | 4,91 | Diru-sarrerak | 5,68/5,86 | Hileko 1.801-2.500 €, 2.500 €-tik gora |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 4,70 | Egoera-ekonomikoa | 5,76/5,38 | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin, ezaxola |
| Etxea zaintzen duten pertsonak | 4,73 | Lanbidea | 5,84 | Ikasleak |
| Apala | 5,10 | Estatusa | 5,90 | Altua |
| Ezkorrak | 4,94 | Baikortasuna | 5,55/5,43 | Baikorrak, ezaxola |
| Aurreikuspen txarrak | 4,66 | Etorkizuna | 5,32/5,68 | Aurreikuspen onak eta normalak |
| Etorkinen presentzia ertaina | 4,74 | Auzoa | 5,49 | Bertakoak |
| Inolako harremanik ez, harreman handia | 5,18/5,29 | Interakzio pribatua | 5,77 | Interakzio apur bat |
| Inolako harremanik ez | 4,80 | Interakzio publikoa | 5,54/5,52 | Harreman handia edo interakzio apur bat |
| Inolako harremanik ez | 4,92 | Aisiako interak. | 5,56/5,92 | Harreman handia edo interakzio apur bat |

*Iturria: egileek egina.*

**Laburrean.** Eragina euskal gizartean

Immigrazioak euskal gizartean duen eragina aztertuta, agerian dago, beste behin ere, EAEn immigrazioaren fenomenoari buruzko eztabaida soziala ez dela lotzen identitateei eta euskararen erabilerari buruzko eztabaida politikoarekin. Gaiak bereizten direnez, ez da sortzen gizarte osoari eragiten dion pertzepzio negatiborik. Horren haritik, immigrazioaren eraginari buruzko kezkak lotura handiagoa du gai sozioekonomikoekin, identitatearekin baino.

Ekonomian eragiten dituen ondorioei dagokienez, 2017ko Barometroan pixka bat behera egin du immigrazioak ekonomian ondorio positiboak eragiten dituelako pertzepzioak, baina 2015az geroztiko joerari eutsi zaio, hau da, alderdi positiboek hobera egin dute. Eta immigrazioak euskal gizartean ondorio negatiboak eragiten dituelako iritzien kopuruak, berriz, behera egiten jarraitzen du. Azken batean, jende gehiagok pentsatzen du etorkinen etorrerak onurak eragiten dituela ekonomian eta etorkinak behar ditugula gure ekonomiaren zenbait sektoretan lan egiteko. Iritzi horrek adierazten du, aurten ere bai, unean uneko egoera ekonomikoak lotura duela immigrazioarekiko eta lan-merkatuarekiko jarrerekin.

Iritzi orokorrari dagokionez, aurten zertxobait behera egin badu ere (-0,1 puntu), berretsi egin da etorkinak gurera etortzeari buruzko ikuspegi optimistagoa, eta hori hala da azken hiru urteetan.

## Harrerako komunitatearen eta etorkinen arteko bizikidetza eta integrazioa

«Harrerako komunitatearen eta etorkinen komunitatearen arteko bizikidetza eta integrazioa» deritzon atal honetan, hau guztia landuko dugu: bizikidetza-ereduak, estereotipoak eta aurreiritziak, eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera, harremanetarako eremuak, kultura-ohiturak mantentzea, begikotasuna eta jatorri atzerritarreko biztanleen jatorriarekiko lehentasunak. Erantzunak bildu eta lau indize sintetiko prestatu eta aztertu ditugu, jakiteko iritzi horietako bakoitzak zer inpaktu duen bizikidetza-ereduei, estereotipo eta aurreiritziei, eskubideak eta zerbitzuak baliatzeko aukerei eta harremanetarako eremuei dagokienez.

4. irudia. Bizikidetza eta integrazioa: aztertutako alderdiak




### Bizikidetza-ereduak

Bertako biztanleen % 59,2k dio (16. grafikoa) beste etnia-talde batzuetako immigratzaile atzerritarrek aberastu egiten dutela Euskadiko bizitza kulturala, eta % 17,2k ez du uste hori horrela denik. 2016ko datuekin alderatuta, kultura-aniztasunaren aldeko jarrerak apur bat gora egin du (17. grafikoa). Gorabehera txiki batzuk izan badira ere, 2010etik hona gora egin du atzerriko immigratzaileen eta beste talde etniko batzuen etorrerak aberastasuna dakarrelako iritzia duten pertsonen ehunekoak.

16. grafikoa. Bizikidetza-ereduak. Balorazioa, (%)




*19G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin*

Ohitura eta tradizio berak izateari dagokionez, EAEko herritarren erdiek (% 54,3) uste dute hori izango litzatekeela egoera onena, baina % 28,8k ez du hori uste. Ildo berean, jakin nahi izan dugu ea bertako biztanleek begi onez ikusten duten atzerritarrek eta etorkinek harrerako herrialdeko hizkuntzak hitz egitea. Bertako biztanle gehienen iritziz (% 75,9), pertsona guztiek, etorkinek zein atzerritarrek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egin beharko lituzkete. Bilakaerari erreparatuta, iritzi hori agertu dutenen kopurua 2014koaren antzekoa da. 2007. urteaz geroztik eta 2011ra bitartean, bi iritzi sortu ziren: asimilazioaren aldekoak eta kultura-aniztasunaren aldekoak. Eta azken urte horretatik aurrera, joera eten eta asimilazioaren aldeko jarrera nagusitzen ari da (17. grafikoa).

17. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetza-ereduen bilakaera (Erabat ados / Ados, %), 2004, 2007-2017




*19G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin*

Galdeketari erantzun diotenek kultura-aniztasunari buruz duten iritzia aztertu ondoren, ikus dezagun EAEko herritarren arabera aniztasun hori nola kudeatu beharko litzatekeen eta zein diren bizikidetza-eredu egokienak. Horrenbestez, bertako biztanleei galdetu diegu nork egin

behar duen bizikidetza hobea lortzeko ahalegina, etorkinek ala den-denek, immigranteek nahiz bertakoek.

18. grafikoa Bizikidetza-ereduak. Aniztasunaren kudeaketari buruzko balorazioa (%), 2017




*19G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin*

Hasiera batean, herritarren % 75,2k uste du guztiek egin behar dutela ahalegina, bai atzerritarrek, bai bertakoek. Alabaina, ahalegina etorkinek egin beharko luketela galdetutakoan, inkestatuen % 83,5ek baietz erantzun du, horrela izan beharko lukeela, eta % 56,3k ez du uste bertakoek ahalegina egin behar dutenik (18. grafikoa).

Bestalde, asko dira (% 67,9) uste dutenak etorkinek alde batera utzi beharko lituzketela beren erlijioen eta kulturen zenbait alderdi; hain zuzen, gure legediarekin talka egiten duten alderdiak.

19. grafikoa. EAEko biztanleen arteko bizikidetza-ereduen bilakaera (Erabat ados / Ados, %), 2004, 2007-2017




*19G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin*

Azken urteotako bilakaerak adierazten du herritar gehienek asimilazioaren aldeko eredua hobesten dutela. Hala, eredu horren arabera, etorkinek egin beharko lukete EAEko gizartean integratzeko ahalegina, gure ohiturak eta tradizioak hartuz.

***EAEko herritarrek bizikidetza-ereduen gainean duten jarrerari buruzko indize partziala***

Gaiari buruzko galderen erantzunekin (galdetegiko 19a, 19b, 19c, 19g, 19i eta 19l itemak) EAEko biztanleek bizikidetza-ereduen gainean duten jarrerari buruzko indizea landu dugu. Indizea 0 puntutik 10era bitartekoa da. Horrela, immigrazioarekiko jarrera asimilatzaileena, uzkurrena eta negatiboena dutenak 0 puntura gerturatu dira indize horretan, eta jarrera positiboena, irekiena, pluralena, ekintzaileena eta kulturartekoena dutenak 10 puntura.

Beste behin ere, estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean. Kultura-aniztasunaren aurrean jarrera toleranteena eta intoleranteena dutenen profilak 12. taulan jaso ditugu.

12. taula. Bizikidetza-ereduari buruzko pertzepzioaren indizearekin lotutako aldagaiak

| BIZIKIDETZA-EREDUAK | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Pertsona intoleranteenen profila | | Aldagaia | | Pertsona toleranteenen profila |
| 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 3,34 | Adina | 4,10/4,16 | 18 -29 eta 30-44 urte bitartekoak |
| Ikasketarik ez | 3,20 | Ikasketak | 4,43 | Goi-mailako unibertsitate-ikasketak |
| 5.000 biztanle edo gutxiago | 3,20 | Bizilekua | 3,81/4,06/3,79 | Hiriburuak, 20.001-150.000 biztanle eta 5.001-20.000 biztanle artean |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak | 3,41/3,69 | Erlijioa | 4,18 | Agnostikoak, ateoak… |
| Erdaldunak | 3,66 | Hizkuntza | 3,99 | Euskaldunak |
| Batik bat espainiar sentitzen dira | 2,90 | Identitate sentimendua | 3,93/3,79 | Batik bat euskaldun edo espainiar-euskaldunak sentitzen dira |
| Eskuinekoak | 3,18 | Ideologia | 3,90/4,16 | Ezker-zentrokoak eta ezkerrekoak |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 3,52 | Egoera-ekonomikoa | 4,08 | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin |
| Etxea zaintzen duten pertsonak | 3,38 | Lanbidea | 4,29 | Ikasleak |
| Apala | 3,65 | Estatusa | 4,32 | Altua |
| Aurreikuspen txarrak | 3,15 | Etorkizuna | 3,81/4,13 | Aurreikuspen onak eta normalak |
| Etorkinen presentzia altua | 3,43 | Auzoa | 4,06 | Etorkinen presentzia ertaina |
| Inolako harremanik ez | 3,49 | Interakzio pribatua | 4,08 | Interakzio apur bat |
| Inolako harremanik ez | 3,56 | Interakzio publikoa | 3,93 | Interakzio apur bat |
| Batere ez edo interakzio apur bat | 3,60/3,88 | Aisiako interak. | 4,38 | Handia |

*Iturria: egileek egina.*

### Estereotipoak eta aurreiritziak

Atal honetan aztertuko dugu zenbateraino dauden indarrean hemengo biztanleen artean etorkinei buruz gehien zabalduta dauden estereotipoak; hau da, azken batean, integrazioa zailtzen duten estereotipoak. Amaieran, zenbait estereotiporen eta aurreiritziren indize sintetikoa azaldu dugu.

Zehazki, aztertuko dugu zer ikuspegi duen hemengo biztanleriak etorkinen erlijio-ohiturei buruz, gizartea zahartzearen arazoan duten eraginari buruz, gizarte-babeseko sistematik jasotzen duten onurari buruz, herritarren segurtasunaren arloan duten eraginari buruz, zergekin duten erlazioari buruz eta haien etorrerak langabeziaren gorakadan duen eraginari buruz. Zaila da estereotipo horiei guztiei aurre egitea, gizartean oso erroturik daudelako eta, hain onartuak egonik, egitura ia hautsiezina eratzen dutelako. Nahiz eta egitura hori ia aldaezina den, haren iraupenaz eta gizarte-hedaduraz zantzu batzuk ageri dira orain ere.

20. grafikoa. Estereotipo negatiboak. Balorazioa (%), 2017




*19G. eta 6G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin...*

Biztanleriaren zahartzeari dagokionez (20. grafikoa), bertako herritarrek onartzen dute etorkinak Europara etorrita zahartzearen ondorioz sortu ohi diren arazoak konpon daitezkeela (% 50,0), eta gutxi batzuek (% 19,1) ez dute uste horrela denik. Nahiz eta jakin badakigun hori ez dela horrela, jakin nahi genuen Europako eta Euskadiko gizarteen egiturazko arazo horrekiko ekarpen instrumentalak zenbateraino baldintza zezakeen immigrazioaren onarpena. Hortaz, badira oraindik ere ideia horrekin bat datozenak, nahiz eta azken urtean gutxiago izan diren (-4,8 puntu) (21. grafikoa).

Etorkinei buruzko estereotipo negatiboei dagokienez, kontuan izan behar da estereotipo horiek, askotan, gure gizartean immigrazioaren kontrako eguneroko diskurtsoaren oinarri direla. Estereotipo horietako batzuek zerikusia dute gizarte-babesarekin, zergekin eta herritarren segurtasunarekin, eta beste batzuek, berriz, nortasunaren ezaugarriekin.

**Etorkinen erlijio-ohiturek** ez dituzte bertoko herritarrak kezkatzen. Hau da, euskal herritarren % 53,1ek ez du uste erlijio-ohiturek arriskuan jartzen dutenik gure bizimodua, eta % 26,7k uste du baietz (20. grafikoa). Estereotipo horrek, bilakaera aztertuta, gora egin du azken urtean (+4,5 puntu), baina esan dezakegu ez dela arriskutzat hartzen (21. grafikoa).

**Gizarte-babesari eta zergei** dagokienez, bertakoen % 52,7k uste du etorkinek onura handiegia jasotzen dutela gizarte-babeseko sistematik, eta % 24,9k kontrakoa uste du. “Etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino” estereotipoari dagokionez, oraindik ere hori pentsatzen dute euskal herritar askok, baina orain gutxiagok.

Hortaz, estereotipo horrekiko jarrerak bereizita daude; % 37 ados dago, % 26 kontra, % 17,3ri berdin dio eta % 19,3k ez daki edo ez du erantzun.

**Herritarren segurtasuna** da etorkinen kolektiboari kalte handien egin dion estereotipoetako bat, askotan lotzen baitira immigrazioa eta herritarren segurtasunik eza. 20. grafikoan ikusten denez, herritarren % 35ek uste du immigrazioak modu negatiboan eragiten duela herritarren segurtasunean, eta ehuneko handiagoak uste du hori ez dela horrela (% 41,7). Bestela esanda, bi uste kontrajarri daude: immigrazioa eta delinkuentzia lotzen dituena, eta lotura hori inola ere ez dagoela dioena. Are gehiago, 2016az geroztik jende gehiagok uste du immigrazioak ez duela eragiten herritarren segurtasunean, kontrakoa baino.

21. grafikoa. Estereotipoen bilakaera EAEko biztanleen artean, (Erabat ados/Ados) (%), 2004, 2007-2017




*19G. eta 6G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin...*

22. grafikoa. Etorkinei buruzko estereotipoak EAEko biztanleen artean (%), 2017




*19G. eta 6G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin...*

Aztertutako estereotipo horietaz gain, bosgarren urtez jarraian bildu ditugu kalean entzuten diren eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak immigrazioarekiko dituen estereotipoak eta aurreiritziak eraikitzen laguntzen duten iritzi eta iruzkinak. Besteak beste, honako hauek bildu ditugu: "immigranteak gizarte-laguntzei esker bizi dira", "immigranteek matxismoa eta genero-indarkeria handitzen dute", "immigranteek ez dute integratu nahi", "immigranteek eskoletako hezkuntza-maila jaisten dute" eta "immigranteek lana kentzen digute".

Estereotipo horietatik guztietatik, euskal herritarrek ados daudela gehien adierazi dituztenak hauek dira: “immigranteak gizarte-laguntzei esker bizi dira” (ados dago % 44,6) eta “immigranteek matxismoa eta genero-indarkeria handitzen dute” (% 43,2). Gainerako iritziekin ez daude hain ados; hau da: “immigranteek eskoletako hezkuntza-maila jaisten dute” (ez dago ados (% 57,2) eta “immigranteek lana kentzen digute” (ez dago ados % 62,5).

Bilakaerari dagokionez, estereotipo horietako batzuk gero eta indar gutxiago dute 2013tik 2017ra bitartean. Eta horietako batzuk, halaber, nabarmen dute indar gutxiago, hala nola “lana kentzen digute” (2013an % 42,5 zegoen ados iritzi horrekin, eta 2017an % 23,1); “gizarte-laguntzei esker bizi dira” (lau urtean -18,4 puntu egin du behera). Gainerako estereotipoek ere galdu dute indarra, baina ez hain nabarmen: “matxismoa eta genero-indarkeria handitzen dute” (-5,3 puntu), “ez dute integratu nahi” (-7,5 puntu) eta “eskoletako hezkuntza-maila jaisten dute” (-0,4 puntu).

Bertako biztanleek etorkinez daukaten irudiari buruzko atal honi amaiera emateko, aurten ere galdetu dugu atzerritarrek duten pertzepzioaz, bertakoenarekin alderatuta. Horretarako, bi kolektiboak definitzeko erabiltzen diren topiko batzuk erakutsi dizkiegu galdetegia bete dutenei: matxismoa, zintzotasuna, adeitasuna, ardura, langile izatea eta elkartasuna.

Oro har, esan daiteke, aurreko urteetan bezala, etorkinek etorkinei buruz irudi ona dutela, matxismoaren gaian izan ezik; izan ere, erantzun duten pertsonen erdiak baino gehiagok (% 56,7) uste dute atzerritarrak matxistagoak direla hemengoak baino. Aztertutako gainerako alderdiei erreparatuta, bertoko biztanleen gehiengoak uste du ez dagoela alderik; hau da zintzoak (% 77,2), adeitsuak (% 78,6), solidarioak (% 65,3), langileak (% 68,1) eta arduratsuak (% 70,6) direla.

23. grafikoa. Bertako biztanleek etorkinen gainean dituzten estereotipoen bilakaera (%), 2013-2017




*19G. eta 6G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin...*

24. grafikoa. Bizikidetza-ereduak. Topikoak. Etorkinei buruzko pertzepzioa, EAEko biztanleekin alderatuta (%), 2017




*17G. Atzerriko pertsonak nolakoak iruditzen zaizkizu, Euskadikoekin alderatuta....*

Bilakaerari erreparatuta, aztertutako ezaugarriei buruzko iritzia ez dela apenas aldatu 2008tik gaurdaino.

**Zurrumurruak.** Inkesta bete duten pertsonei eskatu diegu auzoan edo udalerrian gehien entzuten diren hiru zurrumurruak aukeratzeko, hurrenkeran (lehenbizikoa, bigarrena eta hirugarrena). Gehien entzun duten zurrumurruak honako honekin du zerikusia: “Immigranteak gizarte-laguntzei esker bizi dira, eta gehiegi baliatzen dituzte”; hamar lagunetik seik (% 65,4) erantzun dute hori entzuten dela gehien. Beste zurrumurru batzuk ere oso hedatuta daude, baina ez hainbeste, hala nola “immigranteek lana kentzen digute” (% 34,8) eta “immigranteek ez dute integratu nahi” (% 30,2).

25. grafikoa. Zurrumurru nagusiak. Txartel honetako zurrumurruetatik, zein da, zure ustez, zure udalerrian edo auzoan gehien zabalduta dagoena? Eta ondoren? Eta hirugarrenik?




*37G. Txartel honetako zurrumurruetatik, zein da, zure ustez, zure udalerrian edo auzoan gehien zabalduta dagoena? Eta ondoren? Eta hirugarrenik?*

2014ko Barometroarekin alderatuta, aztertutako zurrumurruen erdiak baino gehiagok behera egin dute 2017an, edo bestela esanda, ez daude duela hiru urte bezain zabalduta. Hortaz, esaterako, euskal gizartean zabalduen zeuden bi zurrumurruk indar gutxiago dute: bata, “immigranteak gizarte-laguntzei esker bizi dira” zurrumurrua, 2014an % 67,9k adierazi zuen eta 2017an % 65,4k; eta bestea, “immigranteek lana kentzen digute” zurrumurrua, 2014an % 45,3k adierazi zuen eta 2017an % 34,8k (hamar puntu baino gehiago egin du behera).

Aztertutako gainerako zurrumurruei dagokienez, nabarmentzekoa da zenbateraino galdu duen indarra “Ezin dugu etorkin gehiago onartu; gehiegi dira” zurrumurruak, 13,5 puntu egin baitu behera 2014tik 2017ra bitartean. Bestalde, “immigranteek ez dute integratu nahi” zurrumurrua euskal herritarren artean gehien entzuten direnetatik hirugarrena da orain, 5,3 puntu egin baitu gora 2014tik 2017ra bitartean.

Horrela, bada, immigrazioarekiko jarrerak hobera egin du oro har, azken urteotan hautemandakoaren arabera, eta hori bera nabari da, halaber, gure gizartean hedatuen dauden zurrumurru eta estereotipo gehienei dagokienez.

26. grafikoa. Zurrumurru nagusiak. 2014, 2017




*37G. Txartel honetako zurrumurruetatik, zein da, zure ustez, zure udalerrian edo auzoan gehien zabalduta dagoena? Eta ondoren? Eta hirugarrenik?*

***Immigrazioarekiko estereotipo eta aurreiritzi jakin batzuk zenbateraino errotuta dauden adierazten duen indize partziala***

Gaiari buruzko galderen erantzunekin (galdetegiko 6g, 6i, 6j, 6m, 14a, 14b, 14c, 19d, 19f eta 19m itemak) indize partzial bat prestatu dugu, ikusteko zenbateraino dauden errotuta euskal herritarren artean immigrazioari buruzko zenbait estereotipo eta aurreiritzi. Gainerako indizeak bezala, honako hau ere 0 eta 10 puntu artekoa da; beraz, estereotipoak dituzten edo bultzatzen dituztenak 0 puntura hurbilduko dira, eta errealitatearekin ongien lotzen den ikuspegia dutenak edo estereotipoen eraginagatik hain ikuspegi desitxuratua ez dutenak 10 puntura.

Berriro ere estatistika-alde nabarmenak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean. Hala, estereotipoak barneratuta dituzten eta hain barneratuta ez dituzten pertsonen profila ikus daiteke 13.taulan.

13. taula. Estereotipoen presentzia adierazten duen indizearekin lotutako aldagaiak

ESTEREOTIPOEN PRESENTZIA

| Pertsona intoleranteenen profila | | Aldagaia | | Pertsona toleranteenen profila |
|---|---|---|---|---|
| Emakumea | 4,48 | Sexua | 4,91 | Hombre |
| 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 4,37 | Adina | 4,90/4,88 | 18 a 29 y 30 a 44 años |
| Ikasketarik ez | 4,09 | Ikasketak | 5,51 | Universitarios superiores |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak | 4,24/4,44º | Erlijioa | 5,27 | Agnósticas, ateas… |
| Erdaldunak | 4,52 | Hizkuntza | 4,87 | Euskaldunak |
| Espainiarra | 4,27 | Nazionalismoa | 5,02 | Euskalduna |
| Batik bat espainiar sentitzen dira | 3,81 | Identitate-sentipena | 4,90/4,48 | Batik bat euskaldun edo espainiar-euskaldunak sentitzen dira |
| Zentrokoak, eskuinekoak | 4,22/4,24 | Ideologia | 5,17 | Ezkerrekoak |
| Hileko 1.000 € | 4,34 | Diru-sarrerak | 5,16 | Hileko 2.500 €-tik gora |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 4,14 | Egoera-ekonomikoa | 5,02/4,74 | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin, ezaxola |
| Etxea zaintzen duten pertsonak | 4,18 | Lanbidea | 5,09/5,05 | Ikasleak eta langabezian |
| Apala, ertaina | 4,75/4,42 | Estatusa | 5,47 | Altua |
| Ezkorrak | 4,31 | Baikortasuna | 4,48/4,81 | Baikorrak, ezaxola |
| Aurreikuspen txarrak | 3,90 | Etorkizuna | 4,75/4,94 | Aurreikuspen onak eta normalak |
| Etorkinen presentzia altua | 4,06 | Auzoa | 4,84 | Bertakoak |
| Inolako harremanik ez | 4,36 | Interakzio pribatua | 4,98 | Interakzio apur bat |
| Inolako harremanik ez | 4,31 | Interakzio publikoa | 4,89/4,77 | Harreman handia edo interakzio apur bat |
| Inolako harremanik ez | 4,38 | Aisiako interak. | 4,88/5,03 | Harreman handia edo interakzio apur bat |

*Iturria: egileek egina.*

## Eskubideak eta zerbitzuak baliatzeko aukera: osasun-zerbitzua, hezkuntza, laguntza juridikoa, gizarte-laguntzak, familia berriro elkartzea, boto-eskubidea, BOEak eskuratzeko aukera, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE)

Atal honetan aztertuko dugu zer iritzi duten bertako herritarrek, etorkinek zenbait eskubide eta zerbitzu izateko eta erabiltzeko eskubideaz. Bertako herritaren arabera, eskubide horietako batzuk atzerriko etorkin guztiek izan beharko lituzkete; beste batzuk, berriz, etorkin bakar batek ere ez lituzke izan behar. Zer kasutan, zer eskubide eta norentzat aztertu dugu atal honetan. Eta amaieran, eskubideak eta zerbitzuak baliatzeko aukerari buruzko indize sintetikoa prestatu dugu.

Euskal herritar gehienen ustez denon eskubideak dira osasuna (% 75,8) eta hezkuntza (% 74), eta, beraz, eskubide eta zerbitzu horiek baliatzeko eskubidea etorkin guztiek izan beharko lukete, haien egoera legez kanpokoa (irregularra) nahiz legezkoa (erregularra) izan.

Baina beste eskubide batzuei dagokienez, bertako herritar gehienak mugatzearen aldekoak dira eta uste dute administrazio-egoera erregularrean daudenei baino ez litzaiekeela baliatzeko aukera eman behar; hauek dira eskubide horiek: laguntza juridikoa, DBEa, familia berriro elkartzekoa, BOEa eskuratzekoa eta botoa ematekoa. Horretarako, eskubide eta zerbitzu horiek baliatzeko aukera legezko egoeran daudenei soilik ematea xede duten politika murriztaileagoaren aldekoak dira: laguntza juridikoa (% 47,8), gizarte-laguntzak (% 59,8), familia berriro elkartzea (% 58,7), babes ofizialeko etxebizitza (% 64,2) eta botoa eman (% 62,6).

27. grafikoa. Immigranteek eskubideak eta zerbitzuak izatea (%), 2017




*15G. Orain, bertakoek dituzten zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere egoera beretan izan behar lituzkete eskubide horiek?*

Bilakaera aztertuta, 2004tik 2017ra bitartekoa, zenbait fase geratu dira agerian nabarmen. Lehenbiziko fasea ekonomiaren oparoaldiko garaiarekin bat dator, eta guztion eskubidetzat hartzen dira hezkuntza eta osasuna. Bigarren fasea krisi ekonomikoaren eta zenbait gizarte-politikaren murrizketen garaiarekin bat dator, eta orduan adierazi zuten gehien bertako herritarrek eskubide horiek administrazio-egoera erregularrean zeudenei bakarrik zegokiela, eta, beraz, politika murriztaileago baten aldekoak ziren. Eta hirugarren fasea gaur egungoa da; hau da, berriro hartzen dira haietatik gehienak guztion eskubide eta zerbitzutzat, batik bat osasuna eta hezkuntza, eta hortaz, paragrafoaren hasieran deskribatutako lehenbiziko fasearen oso antzeko egoeran gaude.

28. grafikoa. Etorkin GUZTIEK eskubideak eta zerbitzuak izatearen bilakaera (%), 2004, 2007-2017



| | 2004 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Seme-alaben hezkuntza | 55,4 | 60,0 | 64,9 | 59,7 | 63,4 | 71,1 | 52,8 | 58,8 | 68,4 | 69,9 | 78,0 | 75,8 |
| Osasun-zerbitzua | 65,0 | 65,0 | 71,2 | 66,7 | 70,1 | 72,9 | 57,5 | 58,9 | 64,9 | 67,8 | 72,5 | 74,0 |
| Zerbitzu juridikoa | 52,3 | 32,0 | 29,6 | 31,1 | 38,1 | 37,3 | 26,0 | 31,6 | 30,7 | 36,8 | 39,8 | 42,9 |
| Gizarte-laguntzak | 34,7 | 23,0 | 20,6 | 28,8 | 21,9 | 25,2 | 18,3 | 19,2 | 20,9 | 29,8 | 28,7 | 32,7 |
| Senideak | 30,6 | 20,0 | 18,1 | 18,6 | 16,7 | 23,1 | 14,1 | 17,4 | 17,4 | 22,8 | 17,3 | 29,4 |
| Bozkatzea | 23,2 | 18,0 | 14,7 | 17,6 | 15,5 | 18,3 | 11,3 | 13,5 | 13,5 | 17,0 | 17,3 | 20,9 |
| Babes ofizialeko etxebizitza | 27,2 | 15,0 | 14,3 | 17,6 | 14,4 | 18,3 | 13,5 | 17,7 | 18,4 | 23,6 | 22,5 | 26,6 |

*15G. Orain, bertakoek dituzten zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere egoera beretan izan behar lituzkete eskubide horiek?*

***Diru-sarrerak bermatzeko errenta***

Aurreko urteetan bezala, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE) eskuratzeko aukerari buruz herritarrek zer iritzi duten jakin nahi izan dugu. Gai horri heltzeko, etorkinek laguntza horiek eskuratzeko dituzten hainbat aukera adierazi ditugu.

Inkestari erantzun dioten pertsonen % 44,4k uste du eskubide hori mugarik gabe aitortu behar dela, hau da, premia duten bertoko eta kanpoko herritarrei aitortu behar zaiela, erroldatuta zenbat denbora daramaten kontuan hartu gabe. EAEko gizartearen beste zati batek, ordea, eskubide hori erabiltzeko aukera aitortzen du, baina mugak ezarrita. Hau da, batzuek uste dute lehenik eta behin bertoko biztanleen premiak ase behar direla (% 26), eta beste batzuek, berriz, egoera erregularrean egotea jartzen dute  baldintzatzat (% 20,7).

29. grafikoa. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko aukera (%), 2011-2017




*13G. Zer jarrera izan behar lukete erakundeek?*

Instituzioek DBEari buruz hartu beharreko jarrerari dagokionez, % 53,3k uste du DBEaren ondorioz etorkinek ez dutela lanik egiten edo ez dutela lanik bilatzen. Eta % 23,8 ez dator bat iritzi horrekin. Halaber, bertako herritarren % 57,6k uste du etorkinek gehiegi baliatzen dutela diru-sarrerak bermatzeko errenta, eta, azkenean, berenganatu egiten dutela (30. grafikoa). Azken urteotan iritzi hori ez da askorik aldatu, nahiz eta 2014az geroztik gaurdaino zertxobait behera egin duen iritzi hori dutenen kopuruak.

30. grafikoa Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko politika (%), 2011-2017




*14G. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren gai horretan askotariko iritziak daude. Esaldi hauekin ados zauden edo ez jakin nahi nuke*

***Prestakuntza profesionalarekin eta hizkuntzak ikastearekin loturiko zerbitzuak, bai etorkinen berezko hizkuntza, bai ama-hizkuntza, bai tokian tokikoak ikasteko***

Gaztelania eta euskara ikasteko eskolei dagokienez, gehienek uste dute pertsona guztiek izan beharko luketela aukera bai gaztelania (% 58,8) bai euskara (% 55,9) ikaste aldera eskolak jasotzeko. Ama-hizkuntza ikasteko eskolei dagokienez, EAEko biztanleriaren iritzia banatuta dago: batzuek uste dute etorkinek ez luketela eskubide hori izan behar (% 35,2), beste batzuek, guztiek izan behar luketela (% 34,2), eta egoera erregularrean daudenek soilik izan behar luketela uste dutenak ere badira (% 24,3).

31. grafikoa. Etorkinek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko duten aukera (%), 2017




*16G. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek doan izan beharko lituzkete zerbitzu hauek*

Bilakaerari erreparatuta (32. grafikoa), agerian dago EAEko herritarren iritzia egoera ekonomikoaren baitan dagoela. Hau da, krisi ekonomikoaren aurreko urteetan, joera handiagoa zegoen gaztion eskubide eta zerbitzutzat hartzeko –gaztelania, euskara eta ama-hizkuntza ikasteko, eta

prestakuntza profesionala jasotzeko-. Baina, 2012. urteaz geroztik, Euskadin krisi ekonomikoaren eragina gehien nabaritu zen urtetik, hala pentsatzen zutenen kopuruak behera egin zuen. Eta gero, 2012tik aurrera, krisiaren aurreko balioetara bueltatzen hasi gara. Bereziki nabarmenak izan ziren 2015. eta 2016. urteetako emaitzak, eta berriro behera egin du pixka bat 2017an.

32. grafikoa. Etorkin GUZTIEK eskubideak eta zerbitzuak izatea (%), 2007-2017



| | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Lanbide-heziketa | 37,2 | 33,6 | 41,3 | 43,7 | 44,8 | 24,4 | 35,4 | 37,4 | 44,1 | 51,2 | 49,2 |
| Gaztelania | 48,3 | 38,3 | 48,4 | 49,5 | 50,7 | 30,6 | 37,1 | 41,4 | 47,6 | 61,3 | 58,5 |
| Euskara | 44,3 | 35,0 | 46,4 | 47,1 | 49,0 | 29,2 | 35,0 | 40,2 | 44,9 | 57,3 | 55,9 |
| Jatorrizko hizkuntza | 35,0 | 28,7 | 34,7 | 31,3 | 37,6 | 18,2 | 23,3 | 28,9 | 30,4 | 32,5 | 34,2 |

*16G. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek doan izan beharko lituzkete zerbitzu hauek*

***Etorkinek eskubideak eta zerbitzuak jasotzeko aukera izatearen aurrean EAEko biztanleek duten jarrerari buruzko indize partziala***

14. taula. Eskubideak eta zerbitzuak jasotzeko aukerari buruzko indizearekin lotutako aldagaiak

ESKUBIDEAK ETA ZERBITZUAK JASOTZEKO AUKERA

| Pertsona intoleranteen profila | | Aldagaia | | Pertsona toleranteen profila |
|---|---|---|---|---|
| 5.000 biztanle edo gutxiago | 6,66 | Bizilekua | 7,34 | 20 eta 150.000 biztanle tartean |
| Ikasketarik ez | 6,44 | Ikasketak | 7,64 | Goi-mailako unibertsitate-ikasketak |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak | 6,74/6,75 | Erlijioa | 7,49 | Agnostikoak, ateoak… |
| Erdaldunak | 6,71 | Hizkuntza | 7,35 | Euskaldunak |
| Espainiarra , ezaxola | 6,37 | Nazionalismoa | 7,25 | Euskalduna |
| Batik bat espainiar sentitzen dira | 6,24 | Identitate-sentipena | 7,26/6,76 | Batik bat euskaldun edo espainiar-euskaldunak sentitzen dira |
| Zentrokoak, eskuinekoak | 6,63/6,43 | Ideologia | 7,66 | Ezkerrekoak |
| Hileko 1.000 € | 6,55 | Diru-sarrerak | 7,43 | Hileko 1.801-2.500 € |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 6,36 | Egoera-ekonomikoa | 7,42/7,08 | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin, ezaxola |
| Etxea zaintzen duten pertsonak | 6,08 | Lanbidea | 8,06/7,41 | Ikasleak eta langabezian daudenak |
| Apala | 6,86 | Estatusa | 7,43 | Altua |
| Ezkorrak | 6,66 | Baikortasuna | 7,27 | Baikorrak |
| Aurreikuspen txarrak | 6,34 | Etorkizuna | 6,90/7,42 | Aurreikuspen onak eta normalak |
| Etorkinen presentzia altua | 6,43 | Auzoa | 7,18 | Etorkinen presentzia ertaina |
| Inolako harremanik ez | 6,41 | Interakzio publikoa | 7,18/7,25 | Harreman handia edo interakzio apur bat |
| Inolako harremanik ez | 6,63 | Aisiako interak. | 7,38 | Harreman handia |

*Iturria: egileek egina.*

Esparru honetako galdera batzuei emandako erantzunekin (galdetegiko 15a, 15b, 15c, 15d, 15e, 15f, 15g, 16a, 16b, 16c eta 16d itemak) indize partzial bat landu dugu, ikusteko EAEko biztanleek zer jarrera duten atzerriko etorkinek eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeari buruz. Indize hori 0 puntutik 10 puntura artekoa da; horrela, jarrera uzkurrena edo itxiena dutenak 0 puntutik hurbilago ageri dira, eta jarrera positiboena eta irekiena dutenak 10 puntutik hurbilago.

Beste behin ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu. Jarrera toleranteena eta irekiena duten pertsonen profila eta jarrera intoleranteena eta itxiena dutenena 14. taulan jaso ditugu.

### Harremanetarako eremuak eta kultura-ereduei eustea

Ondoren, bertako biztanleak eta atzerriko etorkinak non erlazionatzen diren aztertuko dugu; hots, harremanetarako eta elkarreraginerako zer espazio dituzten. Aurreko urteetan bezala, lehenik eta behin, bizitoki-eremuen tipologia planteatu dugu (atzerritar gehiago edo gutxiago bizi diren eremuak), jakiteko galdekatutako pertsonek zer motatako bizitokian nahiago duten bizi. Eta bestetik, atzerriko etorkinen kultura-ohiturekin lotutako gaiak planteatu dizkiegu, kultura-aniztasuneko edo kulturartekotasunezko testuinguruetan gerta daitezkeen aldaketak eta sor daitezkeen ohitura berriak zenbateraino onartzen dituzten jakiteko. Gero, beren udalerriko edo auzoko bizikidetza-giroari buruz galdetu diegu. Amaitzeko, harremanetarako eremuei buruzko indize laburtua aurkeztuko dugu.

33. grafikoa. Bizitoki-eremuekin loturiko lehentasunak (%), 2007-2017




*21G. Non bizi nahi duzun erabaki beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke hiru udalerri- edo auzo-mota hauetatik*

Bizitoki-eremuei dagokienez (33. grafikoa), euskal herritar gehienek (% 68,7) nahiago dute auzokide gehienak beren arraza edo talde etniko berekoak dituen auzoren batean bizi. Bost lagunetik batek (% 21,3) nahiago du biztanle guztiak euskal herritar gehienen arraza edo talde etniko berekoak diren lekua, bizitzeko; eta gutxi batzuek (% 5,6) nahiago dute beste arraza edo talde etniko batzuetako pertsonak bizi diren lekuren bat, bizitzeko.

2007. urtetik gaurdaino, 2017. urtera arte, esan daiteke ez dela aldaketa handirik izan. Horrenbestez, euskal herritar gehienek gaur egun bizi diren antzeko inguruneetan bizi nahi dute; izan ere, Bilboko eta Gasteizko alde zaharretan dauden bizpahiru tokitan izan ezik, esan daiteke ez dagoela kontzentrazio etniko nabarmenik.

Atal hau bukatzeko, aztertuko dugu zenbaterainoko tolerantzia duen hemengo biztanleriak etorkinak hemen finkatzearen ondorioz eta haien kultura- eta erlijio-ohiturei eustearen ondorioz sortu ohi diren egoerekiko.

Horretarako, zehaztasun handiagoz jokatzeko eskatu diegu inkestatuei, eta galdetu diegu ea ondo ala gaizki iruditzen zaien atzerritarrek saltokiak, jatetxeak eta janari-dendak irekitzea, elkarren artean beren hizkuntzan hitz egitea, beren janzkera erabiltzea, gurtzarako tenpluak izatea, beren ikastetxeak izatea, eta lanpostu eta toki publikoak betetzea.

34. grafikoa. Etorkinen kultura-ereduekiko tolerantzia-maila (%), 2017




*18G. Ondo edo gaizki iruditzen zaizu atzerriko pertsonek…*

Euskal herritar gehienei ondo iruditzen zaie atzerritarrek sukaldaritza exotikoko edo atzerriko sukaldaritzako jatetxeak irekitzea (% 64,6), haien dendak irekitzea (% 61,3) edo janari-dendak edukitzea (% 58,8).

Baina hain exotikoak ez diren gaien eta kultura-portaera jakin batzuen muinera gehiago hurbiltzen garen heinean, asimilazioaren aldeko ikuspegia azaleratzen da. Hau da, azaleko kultura-aniztasuna dela esan genezake; izan ere, jende gutxiagori iruditzen zaizkio ondo zenbait kultura-portaera, hala nola plaza eta espazio publikoak hartzea (% 46,1), beren erlijioetarako tenpluak irekitzea (% 40,2), beren jantziak janztea (% 32,8) eta beren ikastetxeak edukitzea (% 30,1).

2008tik 2017ra bitarteko tolerantzia-maila alderatuta (35. grafikoa), agerian dago gehienetan jarrera gero eta toleranteagoa dela, beren jantziak janzteari dagokion aldagaia izan ezik, apur bat behera egin baitu tolerantzia-mailak (2,4 puntu).

35. grafikoa. Etorkinen kultura-ereduekiko tolerantzia-mailaren bilakaera (Ondo, %), 2008-2017




*18G. Ondo edo gaizki iruditzen zaizu atzerriko pertsonek…*

Euskadira beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak etortzeari dagokionez, janzkerei buruz galdetu zaie euskal herritarrei, eta gehienei ez zaie egokia iruditzen ez nikaba (% 82,2), ez burka (% 83,5) janztea, eta, hein txikiagoan, txadorra (% 52,7) janztea ere ez. Aitzitik, tolerantzia handiagoa dago hijabarekiko (% 66,1) eta kiparekiko (% 67,2).

Azkenik, 2014. urteaz geroztik euskal herritarrei galdetzen diegu ea zer pertzepzio duten, bizi diren herri edo auzoan, bertakoen eta atzerritarren artean duten bizikidetza-giroaz. Otik 10erako eskalan baloratu behar zuten bizikidetza-giroa, kontuan hartuta 0 harreman txarra dela 10 harreman bikaina dela; bada, euskal gizarteak 6 puntuko (hamarretik) balorazioa eman zioten bizikidetza-giroari, eta balorazioak hobera egin du azken bi urteetan.

36. grafikoa. Janzkerekiko tolerantzia-maila (%)







*12G. Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAEra etortzeak bestelako janzkera-ohiturak sortzea eragin du. Ohitura horietako batzuei buruz zer iritzi duzun jakin nahi genuke.*

37. grafikoa. Udalerrian edo auzoan bertakoen eta atzerritarren artean dagoen bizikidetza- eta harreman-giroa (0 oso harreman txarra, 10 oso harreman ona), 2014-2017




*7G. 0tik 10era bitarteko eskala batean (0 oso txarra, eta 10, bikaina), zenbat puntu emango zenizkioke zure udalerrian edo auzoan bertakoen eta atzerritarren artean dagoen bizikidetza- eta harreman-giroari?*

***Harremanetarako eremuei buruzko pertzepzioaren indizea***

Esparru honetako galderei emandako erantzunekin (galdetegiko 18a, 18b, 18c, 18d, 18e, 18f, 18g, 18h, 21 eta 36 itemak) harremanetarako eremuak direla-eta EAEko biztanleek duten jarrerari buruzko indize partziala landu dugu. Indize hori 0 eta 10 puntu artekoa da; horrela, elkartrukerako jarrera uzkurrena edo itxiena dutenak 0 puntutik hurbilago ageri dira, eta jarrera pluralena eta irekiena dutenak 10 puntutik hurbilago.

Beste behin ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean. Jarrera toleranteena eta intoleranteena dutenen profilak 15. taulan jaso ditugu.

15. taula. Harremanetarako eremuei buruzko pertzepzioaren indizearekin lotutako aldagaiak

HARREMANETARAKO EREMUAK

| Pertsona intoleranteenen profila | | Aldagaia | | Pertsona toleranteenen profila |
|---|---|---|---|---|
| Emakumea | 5,64 | Sexua | 6,24 | Gizona |
| 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 5,16 | Adina | 6,51/6,35/5,94 | 18-29, 30-44 eta 45-64 urte bitartekoak |
| Ikasketarik ez | 4,69 | Ikasketak | 7,09 | Goi-mailako unibertsitate-ikasketak |
| 5.001 eta 20.000 biztanle artean | 5,48 | Bizilekua | 6,37 | 20.001 eta 150.000 biztanle artean |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak | 5,15/5,60 | Erlijioa | 6,73 | Agnostikoak, ateoak… |
| Erdaldunak | 4,13 | Hizkuntza | 6,23 | Euskaldunak |
| Espainiarra | 5,22 | Nazionalismoa | 6,20/6,07 | Euskalduna , ezaxola |
| Batik bat espainiar sentitzen dira | 4,13 | Identitate-sentipena | 6,11/5,89 | Batik bat euskaldun edo espainiar-euskaldunak sentitzen dira |
| Eskuinekoak | 5,23 | Ideologia | 6,35 | Ezkerrekoak |
| Hileko 1.000 € | 5,49 | Diru-sarrerak | 7,02 | Hileko 2.500 € edo gehiago |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 5,16 | Egoera-ekonomikoa | 6,71 | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin |
| Etxea zaintzen duten pertsonak, erretiratuak | 5,06/5,32 | Lanbidea | 7,14 | Ikasleak |
| Apala, ertaina | 6,07/5,53 | Estatusa | 7,08 | Altua |
| Ezkorrak | 5,18 | Baikortasuna | 6,18/6,19 | Baikorrak, ezaxola |
| Aurreikuspen txarrak | 4,79 | Etorkizuna | 6,52 | Aurreikuspen normalak |
| Inolako harremanik ez, harreman handia | 5,75/5,74 | Interakzio pribatua | 6,45 | Interakzio apur bat |
| Inolako harremanik ez | 5,15 | Interakzio publikoa | 6,12/6,26 | Harreman handia edo interakzio apur bat |
| Inolako harremanik ez | 5,13 | Aisiako interak. | 7,17 | Handia |

*Iturria: egileek egina.*

## Begikotasun-maila eta lehentasunak

Atal honetan, euskal herritarrek hainbat jatorritako etorkinekiko duten begikotasun-maila aztertuko dugu. Horrezaz gain, gure barometroan lehenbizikoz jakin nahi izan dugu zein diren lehentasunak datozen urteetan etor daitezkeen jatorri atzerritarreko biztanleen jatorriarekiko. Aurrerago ohartuko garenez, lotura zuzena dago euskal herritarrek nahiago duten immigrazioaren eta jatorri horiekiko duten begikotasun-mailaren artean.

38. grafikoan agerian dagoenez, kulturaren, politikaren edo gizartearen ikuspegitik gertukoagoak diren taldeei begikotasun handiagoa zaie. Otik 10erako eskala batean neurtu dugu begikotasun hori, kontuan hartuta 0 etorkinak ez dituztela batere begiko dela eta 10 oso begiko dituztela. Hona hemen joerak: Europar Batasuneko herritarrei (6,4) eta Argentinakoei (6,2) zaie begikota-

sun handiena, eta txikiena, berriz, jatorri magrebtarra duten kolektiboei (4,3) eta Errumaniakoei (4,9); eta gainerako jatorrietakoei dagokienez, tarteko puntuazioa eman diete. Talde horretakoak dira Nikaragua, Honduras (6,0), Saharaz hegoaldeko Afrika, Paraguai, Brasil, AEB (5,9 puntu, hurrenez hurren), Bolivia, Kolonbia, Ekuador eta Peru herrialdeetakoak (5,8), eta bai Txina (5,5) eta Pakistan  herrialdeetakoak (5,1).

38. grafikoa. Etorkinenganako begikotasun-maila etorkinen jatorrizko herrialdearen arabera (0 begikotasun gutxi edo batere ez, 10 begikotasun handia), 2016, 2017




*20G. Otik 10era bitarteko puntuazioa duzula,zenbatekoa den munduko herrialde edo eskualde hauetako pertsonenganako sentitzen duzun sinpatia.*

Azken urtean hobera egin du aztertutako jatorri guztiekiko begikotasun-mailak. Bestalde, euskal herritarrek 2007an atzerritarrei zieten begikotasuna, kolektiboka, eta hamar urteren buruan (2017an) dietena alderatuta, bi joera berretsi dira. Lehenbizikoa, lehentasunei eta begikotasunei buruzkoa, ez da aldatu. Eta bigarrena, begikotasun-mailari buruzkoa, hobera egin du galdetutako jatorri guztietan.

Aurten, lehenbizikoz galdetu zaie euskal herritarrei zer herrialdetako atzerritarrak nahiago dituzten. Inkesta erantzun dutenei galdetu zaie etorkizunean ere etorkinek EAEra etortzen jarraituz gero, etorkin horiek nongoak izatea nahiko luketen lehenik, bigarrenik eta hirugarrenik. Euskal herritarrek nahiago lukete (erantzun guztiak kontuan hartuta) lehenik Mendebaldeko Europako herritarrak (% 41,3) izatea, bigarrenik Latinoamerikakoak (% 26,9) izatea, eta hirugarrenik AEB eta Kanada herrialdeetakoak (% 21). Hori bera gertatu du lehendabiziko aukerako herrialdea kontuan hartuta: Mendebaldeko Europa (% 32,5), Latinoamerika (% 12,1) eta Ameriketako Estatu Batuak eta Kanada (% 4,2). Gutxien aukeratu dituztenei dagokienez, Magreb eskualdeetakoak dira (erantzun guztiak kontuan hartuta % 1,4, eta lehen aukera gisa % 0,1).

39. grafikoa. Lehentasuna jatorrien arabera (lehen aukera, aukerak guztira, %)




*23G. Demagun, etorkizunean ere etorkinek EAEra etortzen jarraitzen dutela, etorkin horiek nongoak izatea nahiko zenuke lehenik? Eta bigarrenik? Eta hirugarrenik? (gehienez ere 3 erantzun)*

Datu horiek eta begikotasun-maila batera aztertuta, garbi dago gure Barometroan urtez urte gauza bera jaso dugula, eta estatu- zein nazioarte-mailan egindako azterketetan ere gauza berbera hautematen dela. Bertako herritar gehienek ez dute begi onez ikusten jatorri magrebtarra duten herritarren etorrera. Beste hainbeste gertatzen da begikotasun-mailarekin zerikusia duten itemetan, lehen ere adierazi denez.

5. irudia Immigrazio gustukoena (jatorrien lehentasuna) eta begikotasun-maila batera




*20G. Begikotasun-maila 23G. Jatorrien araberako lehentasuna*

Euskal herritarrek gustukoen duten immigrazioa eta jatorrien araberako begikotasun-maila elkartuz gero (4. irudia), oro har, hiru talde bereiz ditzakegu: lehenbiziko taldea bertako herritarrek begikotasun handien dieten jatorriek osatuko lukete, eta etorkizunean ere etorkinek EAEra etortzen jarraituz gero gustukoen dituzten jatorriak dira, hau da, Mendebaldeko Europako eta Latinoamerikako herritarrak; bigarren taldea, tartekoa, begikotasun-maila ertaina dieten jatorriek eta gurera etortzea oso gustuko ez lituzketen jatorriek osatuko lukete –Saharaz hegoaldeko Afrika eta Asia–, Errumaniarekin batera; eta hirugarrena, jatorri magrebtarreko herritarrek osatuko lukete, begikotasun-maila txikiagoa eta gurera etortzea apenas nahiko lituzketen herritarrek.

Eta azkenik, immigrazioarekiko tolerantzia-mailari dagokionez, galdetu dugu ea norberak bere buruaz zer pertzepzio duen eta bere ustez euskal gizarteak zer pertzepzio duen. 40. grafikoak adierazten duenez, emaitzak hobeak dira immigrazioarekiko tolerantziaz nork bere burua ebaluatzen duenean (hamarretik 6,4 puntu), euskal gizarteak ustez duen tolerantzia ebaluatzen duenean baino (6,1 puntu).

40. grafikoa. Euskal biztanleriaren tolerantzia-mailaren pertzepzioa, 2016 eta 2017




*28G. Immigrazioarekiko tolerantzia-eskala batean, zer lekutan jarriko zenuke zeure burua, 0 "guztiz intolerantea" baldin bada eta 10 "oso tolerantea" baldin bada? 29G. Zein lekutan jarriko zenuke euskal gizartea?*

### **Laburrean.** Harrerako komunitatearen eta etorkinen arteko bizikidetza eta integrazioa

2017ko Barometroko emaitzek adierazten dute euskal herritarrek kultura anitzeko gizarte baten aldekoak izaten jarraitzen dutela, baina asimilazioaren aldeko ikuspegi argi batetik. Aniztasuna onartzen du euskal gizarteak eta aitortzen du aberastu egiten duela gizartea bera, baina, aldi berean, bertako pertsona gehienek uste dute, bizikidetza hobetzeko, etorkinek gure ohiturak eta tradizioak hartzen saiatu beharko luketela.

Aurreko urteetako barometroetan ere immigrazioaren fenomenoari buruz honako hau adierazi dugu: "Egoera berri honek asimilazioaren aldeko erreakzioak sorrarazi ohi ditu. Gorabidean diren errealitate berrien aurrean norberaren ohiturak, gure gizartean nagusi direnak, babestea da erantzun horien funtsa eta helburua. Gizarte-jarrera hori nahiko normala da immigrazioa gertakari nahiko urri eta apartekoa izatetik egiturazko fenomeno sozial, egonkor eta garrantzitsua izatera igarotzen ari den gizarteetan". Euskal gizarteak balorazio ona egin du norberaren udalerriko edo auzoko bizikidetza-giroaz (hamarretik, sei puntu).

**Estereotipo eta aurreiritzien** artean –immigranteek lana kentzen digute, immigranteek matxismoa eta genero-indarkeria handitzen dute, immigranteek ez dute integratu nahi eta immigranteak gizarte-laguntzei esker bizi dira-, gizarte-laguntzekin zerikusia dutenak daude errotuen euskal gizartean, nahiz eta azken urteotan hala pentsatzen dutenen kopuruak behera egin duen (2013an % 63k adierazi zuen hori, eta 2017an, berriz, % 44,6k).

Euskal gizarteak eskubideak eta zerbitzuak baliatzeko aukera oraindik ere EAEn legez bizi diren atzerritarrekin lotzen jarraitzen dute. Hala eta guztiz ere, osasuna eta hezkuntza denon eskubidetzat hartzen dira, eta eskubide eta zerbitzu horiek baliatzeko eskubidea etorkin guztiek izan beharko luketela uste dute, haien egoera legez kanpokoa nahiz legezkoa izan.

**Harremanetarako eta kultura-portaerei eusteko eremuak**

Atzerritarren kultura-portaerekiko tolerantzia-mailari dagokionez, bertako biztanleek jarrera toleranteagoa erakusten dute zerbitzu bat eman diezaieketen alderdi eta kultura-aniztasunaren kanpoko elementutzat edo elementu estetikotzat har daitezkeen alderdiekiko; hau da, begi onez ikusten dituzte atzerritarrek dituzten saltokiak edo, oro har, merkataritza etnikoa. Merkataritza-bide berri horiek onuragarriak direla uste da, eta jende gehienak onartu egiten ditu. Hala ere, kultura-aniztasunak berezko dituen beste elementu batzuekiko tolerantzia-maila txikiagoa da; adibidez, ez dira hain begi onez hartzen beren usadio eta ohituren adierazpenak, beren jatorriko herrialdeko arropak janztea, beren erlijioetarako tenpluak eraikitzea, eta haiek plaza eta espazio publikoak hartzea.

Eta azkenik, kultura, politika eta gizarte aldetik hurbilen dituen kolektiboak begikotasun handiagoz ikusten dituzte bertako herritarrek, eta alderantziz. Hortaz, bertakoek begikotasun handiagoa diete Mendebaldeko EBko eta Argentinako herritarrei, eta ez dituzte begi onez ikusten jatorri magrebtarreko herritarrak. Euskal gizarteak egun dituen lehentasunak eta duela hamar urte zituenak ez dira oso desberdinak; are gehiago, berdinak dira, baina puntuazioa hobea da hamar urteren buruan.

Aurten lehenbizikoz egin den galdera zuzenari dagokionez, hau da, Euskadira etorkin gehiago etorriko balitz nongoak izatea nahiko luketen galderari dagokionez, lehenbizi Mendebaldeko EBko herritarrak adierazi dituzte, eta bigarrenik Latinoamerikako herritarrak; aitzitik, jatorri magrebtarreko herritarrak dira gutxien aukeratu dituztenetako bat.

## Immigrazio-politika

Azken atal honetan, EAEko biztanleen arabera EAEko erakundeek zer-nolako immigrazio-politika egin behar duten aztertuko dugu. Horretarako, hemengo jendeari galdetu diogu zer den, haien ustez, immigrazio-politikarik egokiena kanporatzeko arrazoiei buruz edo egin beharreko politika babes politikoa eskatzen duten pertsonekin, eta zer iritzi duen EAEko gizartea errefuxiatuen aurrean izaten ari den erantzunaz. Amaitzeko, hartu beharreko migrazio-politikari buruzko indize laburtuaren emaitzak aurkeztuko ditugu.

6. irudia. Immigrazio-politika: aztertutako alderdiak




## Sartzea, bertan gelditzea eta kanporatzea

Etorkinei hemen sartzeko eskatzen zaizkien baldintzei dagokienez, euskal gizarteak oraindik ere immigratzaileen lan-egoerarekin lotzen du migrazio-politika. Hala, inkesta bete duten pertsonen % 43,4 etorkinei sartzen uztearen alde dago, baldin eta lan-kontraturik badute. Nolanahi ere, tesi horrek indarra galdu du azken urteotan eta beste batzuk gailentzen ari dira, hala nola "legezko inolako oztoporik gabe sartzen uztea" (% 18,3) eta "legezko baldintzak betetzen dituztenei uztea (familia berriz elkartzeko helburua dutenei, ikasleei, errefuxiatuei eta abarri)" (% 28). Hain zuzen ere, legezko beste baldintza batzuk betetzen badira sartzen uztea da azken bi urteotan indarra hartu duen aukeretako bat.

41. grafikoa. Immigrazio-politika EAEko biztanleen arabera[1] (%), 2007-2017




*9G. Zure ustez, zer politika-mota litzateke egokiena immigranteen kasurako?*

Azken batean, euskal herritar gehienak etorkinak sartzearen alde daude, baina zenbait baldintza betez gero (% 71,4): "lan-kontratua edukitzea" (% 43,4) edo "legezko beste baldintza batzuk betetzea" (% 28); eta % 18,3 inolako lege-oztoporik gabe sartzen uztearen aldekoa da (41. grafikoa).

42. grafikoa. Etorkinak bertan gelditzeko eta kanporatzeko faktoreak (%), 2007-2017




*6G. Txartel hau erabilita, esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin*

Euskal herritarren ustetan jatorri atzerritarra duten biztanleak hemen sartzeko bete beharko lituzketen baldintzak aztertu ondoren, honako gai honi heldu diogu: zein dira, inkesta bete dutenen ustez, hemen geratzen uzteko edo kanporatzeko faktoreak? Faktore edo arrazoien artean, bolada batez lanik gabe geratzea ez da kanporatzeko arrazoi (% 70,5), eta euskal herritarren % 16,2k

baino ez du uste hori nahikoa arrazoi dela (42. grafikoa). Nolanahi ere, bertakoak zorrotzagoak dira indarrean dagoen legedia betetzeari dagokionez; hain zuzen, inkesta erantzun duten pertsonen erdiak uste du (% 49) delitu bat egiten duten atzerritarrak kanporatu egin beharko liratekeela. Eta herritarren % 32,1k, berriz, uste du ez dela nahikoa arrazoi kanporatzeko edo berdin zaio (% 17,3).

## Egoera irregularrean dauden etorkinekiko politika

Oro har immigrazio-politika egokienari buruz eta kanporatzeko balizko arrazoi batzuei buruz hemengo biztanleen iritzia aztertuta, jakin nahi izan dugu haien iritziz erakundeek zer ildori jarraitu beharko lioketen administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritarrekin.

EAEko gizarteak lana eta langile atzerritarrak onartzea lotzen jarraitzen du; hori horrela izanik, lana duten atzerritarren egoera erregularizatzearen (bizileku-baimena ematea) aldeko da (% 42,7). Jarrera hori 2016an erakutsi zutenaren oso antzekoa da (% 43,3). 2016an adierazitako jarreraren oso antzekoa da, halaber, etorkin guztiak erregularizatzeari edo "paperak ematea" beharrezkoa delako jarrerari dagokionez (% 23,7). Baina iaz nabarmen egin zuen gora hori pentsatzen zutenen kopuruak; 2015ean % 17,2 ziren, eta 2016an % 24,5.

43. grafikoa. Egoera irregularrean dauden etorkinekiko politika (%), 2008-2017




*10G. Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak erregularizatu gabeko immigranteekin?*

## Babes politikoa edo asiloa eskatzen duten pertsonekiko politika

Babes politiko edo asiloari buruzko gaiari dagokionez, gizartean eta komunikabideetan oihartzun handia duen gaia den aldetik, hemengo jendeak babes-politikoa eskatzen duten errefuxiatuekin egin beharreko politikaz zer iritzi duen jakin nahi izan dugu.

Bildutako datuen arabera, euskal gizarteak jarrera irekia eta tolerantea du errefuxiatuekiko. Hori hala dela adierazten dute barometroko emaitzek (44. grafikoa), herritarren % 67,9k adierazi baitu hori, izan asilo politikoa eskatzen duten pertsonak mugarik gabe hartu beharko liratekeela uste dutelako (% 27), edo ihesi dabiltzala egiaztatuta badago hartu egin beharko liratekeela uste dutelako (% 40,9). Bestalde, % 19,1ek uste du urtean kopuru mugatu bat, jakin bat, hartu beharko litzatekeela, eta % 5,1ek bakarrik uste du ez liratekeela inola ere hartu behar.

44. grafikoa. Babes politikoa eskatzen duten pertsonekiko politika (%), 2008-2017




*11G. Eta babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena?*

Bilakaera aztertuta, ikus daiteke 2016ko joera ez dela askorik aldatu, nahiz eta errefuxiatuekiko jarrera aldekoenak, hau da, mugarik gabe hartu beharko liratekeela uste dutenen kopuruak, behera egin duen (2016an % 29,8 zen horren aldekoa, eta 2017an % 27). Eta urtean kopuru mugatu bat hartu beharko litzatekeela pentsatzen dutenen kopuruak, berriz, gora egin du (+3,3 puntu).

### *Immigrazio-politikari buruzko pertzepzioaren indizea*

Esparru honetako galderei emandako erantzunekin (galdetegiko 6d, 6f, 9, 10 eta 11 itemak) hartu beharreko migrazio-politikaren gainean EAEko gizarteak duen jarrerari buruzko indize partziala landu dugu. Indize hori 0 eta 10 puntu artekoa da; horrela, jarrera itxiena eta murriztaileena dutenak 0 puntutik hurbilago ageri dira, eta jarrera positiboena eta irekiena dutenak 10 puntutik hurbilago.

Beste behin ere estatistikoki esanguratsuak diren aldeak hauteman ditugu herritar multzo batzuen eta besteen artean, gurutzaketa edo goiburuko aldagaien arabera. Jarrera toleranteena eta intoleranteena duten pertsonen profilak 16. taulan jaso ditugu.

16. taula. Migrazio-politikari buruzko indizearekin lotutako aldagaiak

MIGRAZIO-POLITIKA

| Pertsona intoleranteenen profila | | Aldagaia | | Pertsona toleranteenen profila |
|---|---|---|---|---|
| 65 urtekoak edo hortik gorakoak | 5,11 | Adina | 5,73/5,67/5,60 | 18-29, 30-44 eta 45-64 urte bitartekoak |
| Ikasketarik ez, lehen mailakoak eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak | 4,97/5,37/5,18 | Ikasketak | 6,08 | Goi-mailako unibertsitate-ikasketak |
| 5.000 biztanle edo gutxiago, 5.001-20.000 biztanle artean eta hiriburuak | 5,33/5,38/5,30 | Bizilekua | 5,93 | 20.000-150.000 biztanle artean |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak | 5,09/5,20 | Erlijioa | 6,11 | Agnostikoak, ateoak… |
| Erdaldunak | 5,27 | Hizkuntza | 5,76 | Euskaldunak |
| Batik bat espainiar sentitzen dira | 5,00 | Identitate-sentipena | 5,69 | Batik bat euskaldun sentitzen dira |
| Zentrokoak, eskuinekoak | 5,05/5,23 | Ideologia | 6,24 | Ezkerrekoak |
| Hileko 1.000 €, 1.001-1.800 € | 5,27/5,27 | Diru-sarrerak | 5,94/5,89 | Hileko 1.801-2.500 €, 2.500 €-tik gora |
| Ez daude pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin | 5,07 | Egoera-ekonomikoa | 5,74 | Pozik beren gaur egungo egoera ekonomikoarekin |
| Apala | 5,34 | Estatusa | 5,91 | Altua |
| Ezkorrak | 5,12 | Baikortasuna | 5,76 | Baikorrak |
| Aurreikuspen txarrak | 4,91 | Etorkizuna | 5,55/5,69 | Aurreikuspen onak eta normalak |
| Etorkinen presentzia altua | 4,63 | Auzoa | 5,66/5,50 | Bertakoak eta etorkinen presentzia ertaina |
| Inolako harremanik ez | 5,14 | Interakzio publikoa | 5,68 | Interakzio apur bat |

*Iturria: egileek egina.*

## **Laburrean.** Immigrazio-politika

Laburbilduz, euskal herritarrek, aurreko urteetan bezala, immigratzaileen lan-egoerarekin lotzen jarraitzen dute migrazio-politika, neurri handi batean, eta hori izan da aukera hautatuena. Nolanahi ere, tesi hori indarra galtzen ari da, azken hiru barometroetako emaitzen arabera (2014, 2015 eta 2016). 2015etik aurrera hasi ziren gailentzen beste iritzi batzuk, hala nola etorkinei hemen sarten uzteko legezko beste baldintza batzuk bete behar dituztelako iritzia (familia berriz elkartzeko helburua dutenei, ikasleei, errefuxiatuei eta abarri). Aldi berean, inolako lege-oztoporik gabe sartzen uztearen alde dauden herritarren kopuruak ere gora egin du.

Behin hona etorri ondoren, jendeak ez du uste lana galtzeak immigrantea kanporatzeko arrazoi izan behar duenik; izan ere, gehienek uste dute ez direla kanporatu behar aldi batez lanik gabe geratzen diren atzerritarrak. Jarrera horrek gora egin du aurten, eta 2013an hasitako joerak bere horretan dirau. Aldiz, aurreko urteetan bezala, delituak egin izana da, bertako jendearentzat, atzerritarrak kanporatzeko arrazoi nagusietako bat.

Lan-kontratua herrialdean sartzeko baldintza izateaz gain atzerritar guztiak erregularizatzeko oinarri bat da. Bertoko biztanleek uste dute lan-kontratua erabakigarria dela immigrazioa «kontrolatua» izateko; izan ere, komunikabideetan eta gizarte-diskurtsoetan nagusi den irudiaren arabera, immigrazio-fluxua masiboa eta kontrolik gabekoa da, eta etorkinak «uholdeka» datoz.

Errefuxiatuen gaiari dagokionez, gizartean eta komunikabideetan oihartzun handia duen gaiari dagokionez, euskal gizarteak jarrera irekia erakusten jarraitzen du, azken bi urteetan bezala.

# 3

# Immigrazioaren aurreko tolerantzia-indizea: tipologia bat

Aurten ere, 2017an, kalkulatu dugu euskal herritarrek atzerriko immigrazioarekiko duten gure tolerantzia-indizea. Urteroko argitalpen hau lehen aldiz eskuratzen dutenei esango diegu indize horren balioa 0tik 100era doala, eta zifra bakar batean biltzen dituela herritarrek galdera-sortako 65 galderari (itemik diskriminatzaileenei -bereizleenei-) emandako erantzunak. Horixe da, hain zuzen, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak atzerriko immigrazioaren aurrean EAEko gizarteak dituen iritzi eta jarrerei buruz urtero egiten duen barometroaren oinarria.

Indize hori zertan datzan ulertzeko, adierazi nahi dugu aurreko urteetan definitu bezala jarraitzen dugula definitzen zer den Immigrazioarekiko Tolerantzia: euskal jatorriko herritarrek etorkinenganako duten enpatia-gaitasuna, estereotipo negatiboak alde batera uztekoa, "besteengan" konfiantza izatekoa eta "gu" kontzeptu malguagoa izatekoa (nazionalismo metodologikoa gainditzea). Hizkera arruntagoan, euskal gizartearen "ahultasunaren pertzepzio subjektiboa" neurtzeko adierazlea da immigrazioarekiko gure tolerantzia-indizea. Aurreko urteetako barometroen beste txosten batzuetan ere adierazi izan dugu: pertsonek segurtasuna, konfiantza eta orainari eta etorkizunari aurre egiteko tresnak dituztela sentitzen duten neurrian (nortasunaren berezko ezaugarrien ondorioa, edota emozio, ekonomia, ongizate eta abarren aldetik ingurune pertsonal eta sozial sendoa edukitzearen ondorio izan daiteke hori), mehatxu sozial eta pertsonal gutxiago sentitzen dute etorkinen etorrera dela-eta, erreparo eta errezelo gutxiago adierazten dute, eta gure eskalan puntu gehiago eskuratzen dituzte. Eta alderantziz.

2017an zenbait aldaketa egin ditugu galdetegian, nahitaezko gogoeta bat egin ondoren; hala, bikoiztasunak ezabatu eta galdetegia "garbitu" egin dugu, urteen joanean "zikindu" egin baita (urtetik urtera galdera gehiago erantsi ditugu eta antzeko formulazioko galderak egitea eragin du horrek; horrezaz gain, denboraren joanean galdera batzuek zentzua galdu dute eta beste item batzuk sartzea komenigarritzat jo dugu). Edonola ere, item-kopuru berbera du aurtengo barometroak, eta, aipatutako ezinbesteko moldaketa horiek egin ondoren ere, formulazioa kasik berdina da 2013az geroztik.

Gogora ekarri nahi dugu, gurutzaketako edo goiburuko aldagaiei dagokienez, aurten ere ez dugula Bizitokiaren Lurraldea aldagaia landu, autonomia-erkidego osoa hartzen duen 600 inkestako lagina erabiltzen jarraitzen dugulako. Gure asmoa da lau urtean behin 1.200 inkestako hasierako lagina erabiltzea berriro ere (400 inkesta lurraldeko); izan ere, horrek aukera emango digu aldagai iragarle guztien artetik horrekin zehazki lan egiteko. Hala ere, 2019ko Barometroan izango da hori.

Dena den, goiburuko aldagaien multzoak berberak dira: soziodemografiari lotutako aldagaiak (sexua, adina, bizitokia eta ikasketak), ideologiari eta identitateari lotutako aldagaiak (erlijioa, euskara, identitateari lotutako sentimendua, ideologia eta abertzaletasun-maila), aldagai sozioekonomikoak (diru-sarrerak, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna, jarduera ekonomikoa, estatusa eta krisiaren eragina), eta, azkenik, harremanekin eta ezaugarri psikosozialekin lotutako aldagaiak (baikortasun-maila, etorkizunari begirako aurreikuspenak, auzo- edo bizitoki-mota, atzerritarrekiko harremana eremu pribatuan, eta haiekiko hartu-emana eremu publikoan eta aisialdian).

Urtero-urtero esaten dugunez, atzerriko immigrazioarekiko tolerantzia-indize hori lantzeko arrazoia da, hasteko eta behin, elementu jakin batzuei buruz euskal herritarrek zer iritzi duten jakitea, eta behin elementu eta iritzi horiek jakinda, euskal gizartearen "iritzia" sintetizatuko duen adierazle bat izatea eta, gainera, gertatzen ari diren sakoneko aldaketak eta joerak bereiziko dituena. Hori dela eta, pertsona bakoitzaren iritzia banaka sintetizatuko duen lanabesa behar dugu eta, aldi berean, azpitaldetan txerta daitekeena eta azpitalde horien artean alderaketak egiteko aukera emango duena. Hori horrela, informazio oso zehatza dugu euskal gizartearen pertzepzio, balio, iritzi eta jarrerei buruz eta, horrezaz gain, herritarren kolektibo edo azpitaldetan bana daitekeen osoko informazioa dugu.

Bestalde, datu-segiden luzetarako azterketari esker, epealdi bateko joerak ere hauteman ditzakegu, gero eta aniztasun handiagoko bizikidetza-ingurune batean atzerritarrekiko euskal gizartean sortzen diren pertzepzio, iritzi, diskurtso, posizio, jarrera eta jokabideen fenomeno interesgarriaren berri jakiteko.

Urteak daramatzagu gure tolerantzia-indizearen eta BPGd-aren datuen arteko lotura aipatzen; izan ere, hazkunde ekonomikoaz harago, etorkizunaren zalantzen aurrean "gizartearen aldartearen" berri ere ematen digute datuok. BPGd-ak behera egin eta gure etorkizuna goibeldu duenean, beherakada nabarmenak izan dira indizean ere. BPGd-a berrindartu denean, aldi baterako izan arren, indizeak ere gora egin du. Eta susperraldi ekonomikoa sendotuz doala dirudien honetan, tolerantzia-indizean islatu da horren eragina.

Horrexegatik diogu atzerriko nazionalitatea edo jatorria duen kolektiboarekiko euskal gizarteak duen jarrera oso baldintzatuta dagoela, etorkizunak ekar ditzakeenaren aurreko "aldartearen" ondorioz: gizarte-, politika- eta ekonomia-alorreko zalantzak ugaltzen direnean, tolerantzia-indizearen balioak behera egiten du, beldurra eta mesfidantza ugaldu egin delako adierazgarri; etorkizuna argi eta baikor agertzen denean, aldiz (gaur egun, esate baterako), indizeak gora egiten du, eta gizarte-giro hobea, irekiagoa, toleranteagoa eta lasaiagoa dela adierazten du.

2017ko barometroan 58,48 puntuko tolerantzia-indizea bildu dugu EAEko gizarte osoarentzat. 2016an lortutako balioa baino pixka bat apalagoa, baina susperraldi ekonomikoa hasi zenetik hautemandako hobekuntza sendotu egin da, gutxienez makro adierazleei dagokienez (BPGd-a, industriarekin lotutako adierazleak, langabeziaren bilakaera, Gizarte Segurantzako afiliazioa, IBEXaren bilakaera, inflazio-datuak, aldundien diru-sarreren bilakaera, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-premiak, autonomia-erkidegoen defizitaren zein superabitaren bilakaera, enpresek eta familiek kreditua lortzeko aukera, arrisku-prima…) eta krisi-amaierako prozesu honekiko gizarteak duen pertzepzio-multzoari dagokionez.

45. grafikoa. 2017ko tolerantzia-indizea




*Iturria: egileek egina.*

2008an goia jo ondoren (ikusi 46. grafikoa), 2009an, 2010ean eta 2011n EAEko gizarteak krisi ekonomikoaren lehen ondorioak bizi izan zituen. Hasieran esan zuten krisiak ez zuela luze iraungo eta epe laburrean hasiko ginela hazkundearen bidean pausoak ematen ("2010-11ko hazkunde-kimu" ospetsuak). Halere, errealitatea gailendu eta 2010eko amaierako eta 2011ko hasierako susperraldi laburraren ondoren, Espainiako eta EAEko gizarteak konturatu ziren prozesua luzeagoa eta gogorragoa izango zela. Hala, gure ingurunean eraikitako gizarte-ongizatea astindu eta zalantzan jarri du 2013ra arte luzatu den krisialdi gogorrak.

46. grafikoa. Tolerantzia-indizearen bilakaera, 2007-2017




*Iturria: egileek egina.*

Horrekin batera, atzerriko nazionalitatea edota jatorria duten pertsonekiko EAEko herritarren jarrerak ahuldu egin ziren 2009an, 2010ean eta, batik bat, 2012an, konturatu ginenean krisia larria zela eta hasieran esan ziguten baino luzeagoa eta gogorragoa izango zela. Eta 2013tik aurrera hasi zen EAEko gizartea jarrera irekiago, lasaiago eta toleranteagoak erakusten. Aurten, 2017an, nahiz eta gizartean desberdintasunak handiagoak diren eta krisiak EAEko gizarte-egiturako behe-mailetan zauriak eragin dituen, badirudi gizarte-konfiantza berreskuratzeko joera sendotzen ari dela.

47. grafikoa Tolerantzia-indizearen bilakaera 2007tik 2017ra bitartean




*Iturria: EUSTAT.*

Aurreko urteetako txostenean ere aipatu genuen zer faktore egon zitezkeen gorabehera horien atzean, betiere jakinik fenomeno konplexua dela eta aldagai asko sartzen direla tartean: norbearen nortasun-ezaugarriak eta bizitza-esperientziak, aldagai soziodemografiko eta psikosozialak, pertsonaren ingurune pertsonal eta sozial hurbila, aldagai ekonomiko eta ideologikoak eta abar. Oso kontuan izan behar dugu aldagai soziodemografikoek, identitarioek, sozioekonomikoek, psikosozialek eta harremanari lotutakoek gure tolerantzia-indizearen aldakortasunaren (bariantza) zati txiki bat baino ez dutela adierazten. Zehazki, 2017an, EAEko gizarte osoaren artean erakusten den tolerantzian dauden alde guztiaren, hau da, guztizko aldakortasunaren % 21,92 soilik adieraz daiteke. Eta aurreko urteetan zifra horren inguruan ibili gara, baina % 30era iritsi gabe.

Tolerantzia-indizearen datuen joera, azken urteotan, oso adierazgarria da, gure ustez; hau da, gure “gizartearen aldartea” hobetzen ari delako eta orainari zein etorkizunari begirako konfiantza handiagoa dugulako seinale dira, eta, horren ondorioz, tolerantzia handiagoa erakusten dugu atzerriko nazionalitatea edota jatorria duten pertsonen etorrerarekiko. Hobekuntza hori garrantzitsua delakoan gaude, datozen urteetan EAEko (eta Espainiako) gizarteak aniztasuna kudeatzeko erronka zailari egin beharko baitio aurre.

Zertan? Gure ikuspuntutik, EAEko gizarteak gai izan behar du etorkizuna eraikitzeko, kontuan hartuta gizarte-berdintasuna, desberdintasunen murrizketa, elkarrekiko errespetua, gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka eta diskriminazio ororen aurkako borroka. Krisi ekonomikoak eta finantzarioak gizarte-sektore aberatsenen eta ahulenen arteko etena handitu du (jada hasi dira zenbait erakunde soldata-igoera eskatzen, arindu ahal izateko krisiak gizarte-sektore ahulenetan eragin dituen kalteak) eta, gure ustez, gizarte-eraikuntzako ereduak honako hauek izan behar ditu oinarri: gizarte-kohesioa, diskriminaziorik eza eta berdintasuna.

Galdeketari erantzuten dioten pertsonek hamar arlotan eskuratzen dituzten puntuazioak gehituta lortzen dugu gure tolerantzia-indizea, aurreko urteetan bezala. Hauexek dira hamar arlo horiek: biztanleria immigratzailearen BOLUMENAren pertzepzioa; atzerriko immigrazioa ARAZOTZAT hartzea; EAEko EKONOMIAN duen eraginari buruzko iritzia; EAEko GIZARTEAN duen eraginari buruzko iritzia; BIZIKIDETZA-EREDUEI buruzko pertzepzioa; ESTEREOTIPOEK irautea; ESKU-BIDEAK eta zerbitzuak baliatzeko aukerari buruzko jarrera; HARREMANETARAKO EREMUEI buruzko iritzia; IMMIGRAZIO-POLITIKARI buruzko ikuspegia; eta atzerriko immigrazioak gure gizartean dituen ERAGIN GLOBALEI buruzko pertzepzioa.

EAEko gizarteak arlo horietan izan duen eta duen jokabidearen bilakaera ez da uniformea izan urteotan guztiotan (48. grafikoa). Horrenbestez, alderdi hauek nabarmendu ditzakegu:

- Immigrazioa arazotzat hartzeari buruz, gizarteak, oro har, ez du "arazotzat" hartzen; alegia, arazo izatearen kutsua kendu dio. Arazo larriagoak ditugu oraindik ere (langabezia, ekonomia-alorreko arazoak, ustelkeria eta iruzurra, klase politikoa, eta.), eta immigrazioa ez dago horien artean, nahiz eta diskurtso batzuek atzerriko immigrazioa arazo bihurtzeko ahalegina egin.

- 2016ko emaitzekin alderatuta, jarrera hobea dugu eskubideak eta zerbitzuak baliatzeko aukerari dagokionez, immigrazioak ekonomian eragiten dituen ondorio positiboen pertzepzioari dagokionez, eta atzerritarrekiko harremanetarako eremuei buruz euskal gizarteak duen pertzepzioari dagokionez.

- Immigrazio-politikari buruzko iritziak ez dira askorik aldatu, baina hobera egiten ari dira pixkanaka azken lau edo bost urteetan.

- Atzerriko immigrazioak gure kulturan eta gizartean oro har eragiten dituen ondorioez euskal gizarteak duen pertzepzioari dagokionez, azken urtean, 2017an, okerrera egin du apur bat, baina lehen ere adierazitako iritzien balioen barruan dago.

- Eta azkenik, 5 puntu baino gutxiagoko hiru arlo daude, eta, antza, iritzi horiek ez dira askorik aldatuko. Hauek dira hiru arloak: bertako herritarrek immigrazio-bolumenari buruz duen pertzepzioa, bizikidetza-ereduei buruz duen pertzepzioa eta atzerriko immigrazioari buruzko estereotipo negatiboen gaiari buruz duen pertzepzioa.

48. grafikoa. Puntuazioen bilakaera 10 arloetan. 2008-2017




*Iturria: egileek egina.*

Aurreko txostenetan egin izan dugun bezala, pertsona-talde batzuek eta besteek atzerriko immigrazioarekiko dituzten iritzi, pertzepzio, jokabide eta jarreretan egon daitezkeen aldeak aztertu ditugu. Aldagai biko analisietan, aldagai soziodemografikoak (4), ideologiko-identitarioak (5), sozioekonomikoak (5) eta psikosozialak eta harremanekin loturikoak (6) baliatu ditugu.

Aldagai horien artean adierazgarriak eta bereizleak direnak hautemateko, aldagai biko analisia egin dugu, aurreko urteetako ildoari jarraituz. Analisi hori egiteko beharrezkoa da mendeko aldagai batekin eta aldagai aske batekin lan egitea, faktore baten ANOVA analisia aplikatuta. Alde biko analisia, mugatua izanagatik ere, ezinbestekoa da, eta aldagai anitzeko beste edozein analisiren aurretik egin beharrekoa. Mugatua da, aldagai soziodemografiko aske batek ezkutatu egin dezakeelako elkarri eragiten dioten beste aldagai batzuen eragina edo ondorioa. Esate baterako, elkarri oso lotutako aldagaiak izaten dira batzuetan, eta alde biko analisi batean zaila da horietako bakoitzak duen eragina bereiztea; aldiz, aldagai anitzeko analisiak bakoitza bere lekuan jartzen du. Immigrazioari buruzko jarrerekin zerikusia duten gaiak aztertzen ditugunean, maiz nahasi egiten dira aldagai hauek: “adina” (hezkuntza-mailari, euskaraz hitz egiteari edo ez egiteari, lanbideari eta abarri lotua), “hezkuntza-maila” (adinari, estatusari, diru-sarrerei eta abarri lotua), “lanbidea” (estatusari, hezkuntza-mailari, diru-sarrerei eta abarri lotua) eta “estatusa” (hezkuntza-mailari, diru-sarrerei eta abarri lotua). Horregatik, bi aldagai horiek bereiz aztertzen baditugu, baliagarri izango dira taldeak bereizteko (esaterako, gazteak jarrera irekiekin lotzen dira, eta adinekoak jarrera itxiagoekin; edo esaten da heziketa gutxien duten pertsonak ez direla heziketa gehien dutenak bezain toleranteak), baina, elkarrekin aztertzen baditugu, gerta daiteke baten baino gehiagoren eragina ez nabaritzea.

Eta horrelaxe gertatzen da beste aldagai hauekin ere: ideologia politikoarekin, euskal identitatearen edota espainiar identitatearen sentimendu subjektiboarekin, euskal abertzaletasun-mailarekin edo nazionalista espainiarraren sentimendu-mailarekin eta abarrekin.

2017ko Barometroan, gurutzaketako hainbat aldagai baliatu ditugu analisia egiteko, eta aurreko azterlanetan ateratako ondorio berbera atera dugu: gurutzaketako edo goiburuko ia aldagai guztietan nabari da bereizketa eta, herritarrek immigrazioarekiko agertu duten tolerantzia-mailaren arabera, EAEko biztanleak talde batean edo bestean sailkatzen dira. Hau da, atzerriko immigrazioarekin tolerantzia handiagoa eta tolerantzia txikiagoa erakusten duten taldeak daude EAEko biztanleen artean; talde batzuek (irekiagoek eta toleranteagoek) puntuazio askoz handiagoak lortu dituzte tolerantzia-indizean eta beste batzuek (atzerriko immigrazioarekiko uzkurrago eta itxiago jokatzen duten taldeek), berriz, puntuazio nabarmen txikiagoak:

- immigrazioarekin tolerantzia handiagoa erakusten dute, nabarmen, gizonezkoek (60,38 puntu) emakumezkoek baino (56,69 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (60,09 puntu) eta 30 eta 44 urte bitartekoak (60,79 puntu), 65 urtekoak eta hortik gorakoak baino (54,62 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak (65,48 puntu), ikasketarik ez dutenak eta lehen mailako ikasketak bukatu gabe dituztenak baino (52,62 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira 20.000-150.000 biztanleko udalerrietan bizi direnak (61,14 puntu), 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi direnak baino (52,62 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira beste erlijio batzetako pertsonak (63,74 puntu), pertsona agnostikoak, ateoak eta erlijioarekiko axolarik ez dutenak (63,17 puntu), katolikoak baino, izan horiek elizkoiak (54,27 puntu) edo ez (56,47 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira euskaraz hitz egiten duten pertsonak (60,68 puntu), euskaraz hitz egiten ez dutenak baino (56,35 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira euskaldun soilik edo espainiar baino gehiago euskaldun sentitzen direnak (60,13 puntu) eta espainiar bezain euskaldun

sentitzen direnak (57,45 puntu), espainiar soilik edo euskaldun baino gehiago espainiar sentitzen direla esan dutenak baino (48,26 puntu);

- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira beren burua euskal abertzaletzat dutenak (61,14 puntu), beren burua euskal abertzale moderatutzat dutenak (58,76 puntu) eta abertzaletasunaren gaiarekiko axolarik ez dutenak (58,59 puntu), beren burua nazionalista espainiartzat jotzen dutenak baino (53,61 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira ezkerreko ideologia duten pertsonak (62,85 puntu), eskuinekoak (54,45 puntu) edo zentrokoak baino (55,45 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira etxean hilean 2.500 euro baino gehiagoko diru-sarrera garbiak dituzten pertsonak (64,11 puntu) eta 1.800 eta 2.500 euro bitarteko diru-sarrerak dituztenak (62,15 puntu), 1.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenak baino (54,21 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira beren egungo egoera ekonomikoarekin gustura dauden pertsonak (62,17 puntu), gustura ez daudenak baino (53,39 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira ikasten ari diren pertsonak (63,40 puntu), langabezian daudenak (60,27 puntu) eta lanean ari direnak (59,84 puntu), etxeko lanetan aritzen direnak baino (52,24 puntu);
- immigrazioarekiko nabarmen toleranteagoak dira estatus altua duten pertsonak (64,77 puntu), estatus ertaina dutenak (58,94 puntu) edo baxua dutenak baino (56,32 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira baikorrak direla dioten pertsonak (60,40 puntu) edo horri buruz iritzi garbirik ez dutenak (59,35 puntu), ezkorrak direla dioten pertsonak baino (54,53 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira etorkizunari begira aurreikuspen onak dituzten pertsonak (61,95 puntu), aurreikuspen txarrak dituztela diotenak baino (50,83 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira atzerriko etorkin gutxi dauden auzoetan bizi diren pertsonak (59,58 puntu) eta hainbat jatorritako pertsonak nahasten diren auzoetan bizi direnak (57,90 puntu), atzerriko etorkin asko dauden auzoetan bizi diren pertsonak baino (52,45 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira eremu pribatuan etorkinekin noiz edo noiz hartu-emanen bat duten pertsonak (61,47 puntu), haiekin hartu-eman handia dutenak (57,51 puntu) edo inolako hartu-emanik ez dutenak baino (57,42 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira eremu publikoan etorkinekin hartu-eman handia edo noiz edo noiz hartu-emanen bat duten pertsonak (59,99 puntu eta 59,96 puntu, hurrenez hurren), haiekin inolako hartu-emanik ez dutenak baino (53,83 puntu);
- immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira aisialdian etorkinekin hartu-eman handia edo noiz edo noiz hartu-emanak dituzten pertsonak (62,57 puntu eta 60,38 puntu, hurrenez hurren), haiekin inolako hartu-emanik ez dutela esaten dutenak baino (54,96 puntu).

17. taula Immigrazioarekiko tolerantzia-indizearekin (2017) lotutako aldagaiak

| TOLERANTZIA-ATALASE **TXIKIENA** DUTEN PERTSONEN PROFILA | Aldagaia | Esang. | TOLERANTZIA-ATALASE **HANDIENA** DUTEN PERTSONEN PROFILA |
|---|---|---|---|
| Emakumezkoak | Sexua | .001 | Gizonezkoak |
| 65 urte eta gehiago | Adina | .000 | 18-44 urte |
| Ikasketarik ez, bukatu gabeko lehen mailakoak | Ikasketak | .000 | Goi-mailako unibertsitate-ikasketak |
| 5.000 biztanlerarte | Bizilekua | .014 | 20.001-150.000 biztanle artean |
| Katokiko praktikanteak eta ez praktikanteak | Erlijioa | .000 | Beste erlijio batzuk, agnostikoak, ateoak... |
| Erdaldunak | Hizkuntza | .000 | Euskaldunak |
| Espainiar nazionalista | Abertzaletasuna | .002 | Euskal abertz., euskal abertz. moderatua, ezaxola |
| Batez ere espainiar sentitzen direnak | Identitate-sentimendua | .000 | Batez ere euskaldun eta euskal-espainiarrak |
| Eskuina eta zentroa | Ideologia | .000 | Ezkerra |
| Hilen 1.000 € gehienez | Diru-sarrerak | .000 | Hilean 1.800 € eta gehiago |
| Bere egoerarekin gustura ez daudenak | Egoera ekonomikoa | .000 | Bere egoerarekin gustura daudenak |
| Etxeko lanetan aritzen direnak | Lanbidea | .000 | Aktiboak, langabeak eta ikasleak |
| Estatus baxu eta ertaina | Estatusa | .000 | Estatus altua |
| Ezkorrak | Baikortasuna | .000 | Baikorrak eta ezaxolak |
| Aurreikuspen txarrak | Etorkizuna | .000 | Aurreikuspen onak |
| Etorkin ugari | Auzoa | .000 | Nahasketa eta bertakoak nagusi |
| Batere ez eta harreman handia | Interakzio pribatua | .005 | Nolabaiteko hartu-emana |
| Inolako hartu-emanik ez | Interakzio publikoa | .000 | Hartu-eman handia eta nolabaitekoa |
| Inolako hartu-emanik ez | Aisialdiko interakzioa | .000 | Hartu-eman handia eta nolabaitekoa |

*Iturria: egileek egina.*

Datu horiek eta aurreko urteetan jasotakoak alderatuta, aipatzeko moduko aldeak daude, adierazitako profil horietan. Bereizketa egiteko aukera ematen ez digun aldagai bakarra "krisiaren eragina" da.

Gero, aldagai anitzeko metodologiak baliatu ditugu, metodologia horiek lagundu egiten baitigute aldagaien arteko harremanak hobeto ulertzen, zer elkarreragin duten argitzen, bereizketa-ahalmenik handiena dutenak nabarmentzen, aldagai batzuen eta besteen eragin gurutzatuak eragozten eta indargabetzen, eta, beraz, zer errealitatetan bizi garen hobeto jakiten. Zehazki, aldagai anitzeko metodologia aplikatu dugu, AID deritzona. Segmentazio-zuhaitz bat ematen digu metodologia horrek, euskal herritarren tipologia zenbaitek osatua, eta tipologia horiek gutxi gorabehera bat datoz atzerriko immigrazioarekiko talde irekiagoak eta toleranteagoak edo itxiagoak eta uzkurragoak osatzen dituzten pertsonekin.

Horretarako, aldagai aske guztiak kontuan hartuta (20 guztira), beste segmentazio bat landu dugu. Aurreko urteetan bezala, aldagai anitzeko metodologia hori aplikatzeak ez du xede zehatza, zorrotza eta eztabaidaezina izatea; hau da, asmoa ez da tolerantzia handia edo txikia erakusten duten jarrerekin lotutako aldagaiei buruzko debatea ixtea. Aitzitik, errealitatea ikusteko eta ulertzeko modu xume bat baino ez dugu eskaini nahi. Badakigu proposatzen dugun tipologia horixe

besterik ez dela: tipologia bat, kontuan hartu ditugun aldagaiek, bildu ditugun bezala bilduta, sortutako tipologia.

2017ko segmentazio-zuhaitzeko lehenbiziko segmentazio-aldagaia erlijioa da, eta, beraz, bereizgarriena izan ohi den ikasketa-mailaren aldagaia ordeztu du (iaz, ideologia izan zen lehenbiziko aldagai iragarlea). Aldagai hori, erlijioa, iragarleena izan zen 2010ean.

Bestalde, segmentazio-zuhaitzean (49. grafikoa), jokabide-bereizketak egiteko beste aldagai batzuk gailendu dira, lehen adierazitako erlijioa aldagaiaz gain; hain zuzen, honako hauek: hartu-emana etorkinekin aisialdian, estatus sozioekonomikoa, baikortasun-maila, etorkizunari begirako aurreikuspenak, etxeko diru-sarrera garbiak eta sexua.

Zehazki, hauek dira gure segmentazio-zuhaitzaren aldagai bereizleak edo iragarleak, eta zuhaitz hori bere maila guztietan osatzeko aukera eman dutenak, garrantziaren arabera sailkatuta:

- 1. mailan: erlijioa (es. 0,000).
- 2. mailan: atzerritarrekin hartu-emana aisialdian (es. 0,000) eta estatus sozioekonomikoa (es. 0,003).
- 3. mailan: baikortasun-maila (es. 0,002), etorkizunari begirako aurreikuspenak (es. 0,042) eta etxeko diru-sarrera garbiak hilean (es. 0,027);
- 4. mailan: sexua (es. 0,005).
- 5. mailan: etxeko diru-sarrera garbiak hilean (es. 0,004).

Aldagai horiekin 10 segmentu atera ditugu guztira. Segmentazio-zuhaitzaren 49. grafikoan, euskal gizarte osoaren batez bestekotik gorako puntuazioa lortu dutenak eta hortik beherako puntuazioa dutenak azpimarratu ditugu, more argiz aurrenekoak eta more ilunez bigarrenak. Hauek dira segmentuak, tolerantziarik handiena erakusten dutenetatik tolerantziarik txikiena erakusten dutenetara ordenatuta:

1. Agnostikoak, ateoak, erlijioarekiko axolarik ez dutenak edo beste erlijio batzuetakoak eta estatus sozioekonomiko altukoak: 70,00 puntu eta euskal herritarren % 8,3 dira.

2. Beren burua katolikotzat dutenak, elizkoiak izan ala ez, atzerritarrekin aisialdian hartu-eman handia edo noiz edo noiz dutenak, baikorrak direla dioten pertsonak edo horri buruz iritzi garbirik ez dutenak, gizonezkoak eta hilean 1.800 eurotik gorako diru-sarrerak dituztenak: 68,10 puntu eta euskal herritarren % 5,4 dira.

3. Agnostikoak, ateoak, erlijioarekiko axolarik ez dutenak edo beste erlijio batzuetakoak, estatus sozioekonomiko ertaina edo baxua dutenak eta hilean 1.800 eurotik gorako diru-sarrerak dituztenak: 67,85 puntu eta euskal herritarren % 6,8 dira.

4. Beren burua katolikotzat dutenak, elizkoiak izan ala ez, atzerritarrekin aisialdian hartu-eman handia edo noiz edo noiz dutenak, baikorrak direla dioten pertsonak edo horri buruz iritzi garbirik ez dutenak, gizonezkoak eta hilean 1.801 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenak: 59,87 puntu eta euskal herritarren % 7,0 dira.

5. Agnostikoak, ateoak, erlijioarekiko axolarik ez dutenak edo beste erlijio batzuetakoak, estatus sozioekonomiko ertaina edo baxua dutenak eta hilean 1.801 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztenak: 59,61 puntu eta euskal herritarren % 22,1 dira.

6. Beren burua katolikotzat dutenak, elizkoiak izan ala ez, atzerritarrekin aisialdian hartu-eman handia edo noiz edo noiz dutenak, baikorrak direla dioten pertsonak edo horri buruz iritzi garbirik ez dutenak eta emakumezkoak: 58,25 puntu eta euskal herritarren % 12,9 dira.

7. Beren burua katolikotzat dutenak, elizkoiak izan ala ez, atzerritarrekin aisialdian hartu-emanik ez dutenak eta etorkizunari begirako aurreikuspen onak dituztenak: 56,64 puntu eta euskal herritarren % 8,2 dira.

8. Beren burua katolikotzat dutenak, elizkoiak izan ala ez, atzerritarrekin aisialdian hartu-eman handia edo noiz edo noiz dutenak, ezkorrak direla dioten pertsonak: 53,77 puntu eta euskal herritarren % 9,1 dira.

9. Beren burua katolikotzat dutenak, elizkoiak izan ala ez, atzerritarrekin aisialdian hartu-emanik ez dutenak eta etorkizunari begirako aurreikuspen normalak dituztenak: 52,79 puntu eta euskal herritarren % 14,7 dira.

10. Beren burua katolikotzat dutenak, elizkoiak izan ala ez, atzerritarrekin aisialdian hartu-emanik ez dutenak eta etorkizunari begirako aurreikuspen txarrak dituztenak: 47,35 puntu eta euskal herritarren % 5,6 dira.

Urtero esaten dugunez, EAEko biztanleriaren segmentazio horrek ez du erabat zehatza izan nahi; joerak adieraztea da, batik bat, xedea. Kontua ez da zehatz-mehatz adieraztea zenbat taldek osatzen duten EAEn atzerriko immigrazioarekiko jarreren panorama; aitzitik, helburua da aldagai garrantzitsuak identifikatzea atzerriko immigrazioarekiko portaera, jarrera, iritzi eta balio toleranteak eta ez hain toleranteak aurreikusteko, eta zenbait zertzelada adierazkor ematea gizarte-talde irekienak eta toleranteenak direnen profilak zehazteko, bai eta jarrera itxi eta intoleranteenak adierazten dituztenen profilak zehazteko ere.

Lehen ere adierazi dugunez, ereduaren ahalmen iragarlea, gutxiago edo gehiago, aurreko urteetakoen antzekoa da. Aurten, lagina osatzen duten pertsonen puntuazioaren guztizko aldakortasunaren (bariantza) % 21,92 inguru azaldu dezakegu, eta aurreko urteetan, berriz, honako hauek izan ziren zifrak: 2016an, guztizko bariantzaren % 24,66 azaldu genuen; 2015ean, % 20,43; 2014an, % 27,53; 2013an, % 27,65; 2012an, % 23,77; eta 2011n, % 28,31.

Barne-lanak nahiz beste talde batzuen lanak aztertzen jarraitzen dugu, xede izanik, EAEko herritarrei jatorri atzerritarra duten biztanleen etorrerarekin zerikusia duten galderak egiten zaizkienean, erantzunetan aldakortasunaren zatirik handiena azalduko duten jobide-eredu iragarleak prestatzen lagunduko diguten beste aldagai aske batzuk antzematea. Jakin badakigu, ordea, literatura zientifikoak ere dioenaren ildotik, pertsona bakoitzaren beraren banakako desberdintasunak egon daitezkeela guztizko aldakortasunaren bariantzaren zati handi baten atzean.

49. grafikoa. EAEko populazioaren segmentazio-zuhaitza eta tipologiak, 2017ko tolerantzia-indizean lortutako puntuazioaren arabera




*Iturria: egileek egina.*
*Eranskinean begiratu*

# 4

# EAEko biztanleriaren talde handiak

Analisi tipologikoa oso grafikoa da, eta lagungarria euskal herritarren artean askotariko motak daudela bereizteko eta bakoitzaren ezaugarri soziodemografikoak zein diren jakiteko, atzerriko immigrazioarekiko duten tolerantzia-maila handiago edo txikiagoaren berri emango baitugu. Horrezaz gain, oso erabilgarri gertatuko zaigu, talde horiek 0 puntutik 100era bitarteko continuumean kokatzeko eta beren artean dauden desberdintasunak begiesteko, bai batzuen eta besteen tolerantzia-mailako desberdintasunak, bai talde horiek deskribatzen dituzten aldagaien arteko desberdintasunak; zehazki, aldagai hauen artekoak: aldagai soziodemografikoak, sozioekonomikoak, ideologiko-identitarioak, psikosozialak eta harremanei lotutakoak.

Dena den, nahiko informazio lausoa ematen digute, gure indizea osatzen duten arlo edo dimentsioetan dituzten desberdintasunei buruz. Hau da, badakigu, oro har, indizean talde batzuek besteek baino puntuazio handiagoa lortzen dutela, baina ez dakigu gure indizea osatzen duten hamar arloetan desberdintzen diren, edota hamar horietako batean edo bestean soilik.

Hori dela eta, 2017. urtean ere aldagai anitzeko "k-means" analisia (ez-hierarkikoa) erabili dugu, bai informazio gehiago lortzeko, bai immigrazioarekiko jarrera, balio eta sinesmenekin loturiko aldagaien artean euskal biztanleak gehien bereizten dituzten aldagai horietan sakontzeko. Horrezaz gain, analisi horren bidez biztanleen sailkapenak ere egin nahi izan ditugu, euskal biztanleek immigrazioari buruz dituzten jarrera diferenteak agerian uzteko eta aurreko eta hurrengo urteei begira erraz alderatzeko eta kontrastatzeko moduko informazioa eskuratu ahal izateko.

Aurreko urteetan erabili dugun metodologia berari jarraituz, eta aztertutako epean nagusitzen ari diren joeren analisia egin ahal izateko, hiru talde handitan sailkatu ditugu euskal biztanleak: atzerriko immigrazioarekiko talde tolerantea, talde anbibalentea eta talde uzkurra edo itxia.

Euskal biztanleria hiru talde horietan sailkatzeko irizpidetzat erabili diren aldagaiak eta aurreko urteetako barometroetan erabilitakoak berdinak dira; hau da, immigrazioarekiko tolerantzia-indizea kalkulatzeko oinarri diren eta adierazi ditugun hamar arlo horietan, herritar bakoitzak lortutako puntuazioak. Azken batean, arlo bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera (0tik 10era) sailkatuko ditugu euskal biztanleak. Arloak honako hauek dira: biztanleria immigratzailearen BOLUMENAren pertzepzioa; atzerriko immigrazioa ARAZOTZAT hartzea; EAEko EKONOMIAN duen eraginari buruzko iritzia; EAEko GIZARTEAN duen eraginari buruzko iritzia; BIZIKIDETZA-EREDUEI buruzko pertzepzioa; ESTEREOTIPOEK irautea; ESKUBIDEAK eta zerbitzuak baliatzeko aukerari buruzko jarrera; HARREMANETARAKO EREMUEI buruzko iritzia;

IMMIGRAZIO-POLITIKARI buruzko ikuspegia; eta atzerriko immigrazioak gure gizartean dituen ERAGIN GLOBALEI buruzko pertzepzioa.

Tarteko aldagaiak direnez (zenbakizkoak edo kuantitatiboak ere esaten zaie), "k means" deritzon aldagai anitzeko sailkapen-analisia aplikatu dugu, eta laginean bildutako multzo osoa hiru taldetan sailkatu dugu: atzerriko immigrazioarekiko tolerantea, anbibalentea eta uzkurra edo itxia. Teknika horren bidez, irizpide erlatiboen bidez sailkatuko da euskal gizartea hiru talde horietan. Hau da, datu-basea osatzen duten pertsona guztien artean toleranteenek osatuko dute toleranteen multzoa, hamar arloetan puntuaziorik handienak eskuratzen dituztenek; datu-baseko pertsona guztien artean tolerantzia gutxien ageri dutenek osatuko dute uzkurren taldea, puntuazio txikienak dituztenek, alegia; eta bi talde horietatik gehien urruntzen direnek osatuko dute anbibalenteena, erdibideko puntuazioak eskuratzen dituztenek, alegia.

K-means sailkapen-analisiaren estatistika-prozesuetan talde barneko homogeneotasuna eta taldeen arteko heterogeneotasuna aztertu ondoren, ondorioztatu dugu onargarria dela banaketa[2] eta egiaz hiru talde berezitu daudela. Talde horien artean, nola ez, azpimarratzekoak dira batez ere herritar toleranteen eta herritar uzkurren arteko aldeak. 2017an ere pertsona anbibalenteen taldea ia distantzia berera dago puntuazioetan toleranteen taldera nahiz uzkurren taldera, baina aurten, ordea, uzkurren taldearekiko aldea pixka bat handiagoa da toleranteen taldearekikoa baino.

Galdeketako itemei emandako erantzunen arabera eta hamar arloetan eskuratutako puntuen arabera, talde bateko edo besteko kidetzat jotzen da pertsona bakoitza, eta behin hori eginda, hiru taldeek zer jarrera eta jokabide duten azter dezakegu. Nolanahi dela ere, hiru multzoen arteko desberdintasunak nabarmenak dira, eta horixe adierazten dute aztertutako eremu bakoitzean talde bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioek (18. taula). Hor ikus dezakegu aztertutako arlo bakoitzean toleranteen taldeak lortutako puntuazioa altuagoa dela anbibalenteen taldeak lortutakoa baino eta, era berean, anbibalenteen taldeak puntuazio handiagoa lortu duela uzkurren taldeak baino. Aldagai guztiek F balio esanguratsuak dituztela erakusten du bariantza-analisiak, eta horrek adierazten du finkatutako taldeen artean alde nabarmenak daudela, aztertutako aldagai guztietan.

18. taula. Azken konglomeratuen zentroak, 2017

| | Toleranteen taldea | Anbibalenteen taldea | Uzkurren taldea |
|---|---|---|---|
| Bolumenaren pertzepzioa | 6,40 | 3,91 | 1,93 |
| Arazoaren pertzepzioa | 9,86 | 9,63 | 9,13 |
| Eragina ekonomian | 7,07 | 5,32 | 3,06 |
| Eragina euskal gizartean | 7,46 | 6,41 | 4,31 |
| Immigrazio-politika | 7,10 | 5,04 | 3,48 |
| Erabateko eraginak | 6,90 | 5,04 | 2,95 |
| Elkarbizitza ereduak | 4,77 | 3,68 | 2,21 |
| Estereotipoak | 6,30 | 4,23 | 2,59 |
| Eskubideei heltzea | 8,67 | 6,61 | 4,69 |
| Harremanetarako espazioak | 7,72 | 5,67 | 2,80 |

*Iturria: egileek egina.*

[2]Taldeen arteko distantziak, oro har, apur bat handiagoak dira talde barneko distantziak baino. Haien artean, normala denez, nabarmena da toleranteen taldearen eta uzkurren taldearen erdialdeko amaieraren arteko distantzia. Talde barneko distantziei dagokienez, puntuazioetan homogeneoena toleranteen taldea da eta heterogeneoena, berriz, uzkurren taldea.

Pertsona toleranteen taldeak, aurreko urteetako joerari jarraituz, balio handiagoak erakusten ditu arlo guztietan: ez dute ikuspegi hain distortsionatua atzerriko immigrazioaren egungo bolumenarekiko, ez dute uste immigrazioa arazoa denik, immigrazioak ekonomian, gizarte osoarengan (guztizko ondorioak) eta euskal gizartean eta kulturan alderdi eta ondorio onuragarriak dituela onartzen dute, irekiagoak dira administrazioak egin beharko lukeen immigrazio-politikari buruzko iritzietan, ez dute bizikidetza-ereduak erabat asimilaziozkoak izan behar dutenik pentsatzen, estereotipo gutxiago dituzte, jarrera ireki eta unibertsalagoa ageri dute etorkinek eskubideak eta zerbitzuak baliatzeko izan beharko luketen aukerari dagokionez, eta haien harreman-eremuak irekiago daude pertsonen arteko truke eta elkarreraginera.

Kontrako muturrean, uzkur jokatzen duten pertsonen taldeak oso puntuazio baxuak ditu eremu guztietan, immigrazio atzerritarra arazotzat hartzeko eremuan izan ezik. Argi geratu da, beraz, euskal gizartean inork, ezta uzkurren taldeak ere, ez duela immigrazioa arazotzat hartzen. Gainerako balioetan ikusten da atzerriko immigrazioarekiko ageriko jarrera intoleranteak dituztela, eta argi dago, beraz, gure gizartearen zati bat uzkur ageri dela atzerriko etorkinen aurrean, arazo ote diren edo haien kopurua kontuan hartu gabe ere. Izan ere, askotan jarrera horiek etorkinen presentzia baino lehenagotik datoz.

50. grafikoa. Taldeen puntuazioa hamar arloetan (azken zentroak), 2017




*Iturria: egileek egina.*

Azkenik, anbibalenteek tarteko puntuazioak dituzte eremu guztietan, batzuetan uzkurren taldeak ateratakoetatik hurbilagokoak eta beste batzuetan toleranteen puntuazioetatik hurbilagokoak.

Oro har, hiru taldeen arteko jokabide berezitua aurreko urteetan aipatutakoaren oso antzekoa da, haien artean alderaketak egiten hasiz gero. Baina talde bakoitzak izandako jokabidea eta lortutako puntuazioak aurreko barometroetakoekin alderatu eta gero, nabarmentzeko moduko hainbat aldaketa izan direla ohartuko gara. Erreparatu besterik ez dago batzuek eta besteek arlo bakoitzean lortutako puntuazioei:

- Toleranteen taldeak, iazko datuen aldean, jarrera hobea adierazi du zenbait arlotan: immigrazioa arazotzat hartzeari buruzko pertzepzioak eta jarrerak, atzerriko etorkinek eskubideak eta zerbitzuak baliatzeko aukerak, harremanetarako eremuak, ezarri beharreko immigrazio-politika, bizikidetza-ereduekin zerikusia duten alderdiak eta immigrazioarekiko estereotipo negatiboei buruzko alderdiak. Jarrera ez da aldatu atzerritarren bolumenari buruzko pertzepzioari dagokionez eta immigrazioak EAEko ekonomian dituen

ondorioei buruzko pertzepzioari dagokionez. Eta azkenik, jarrerak okerrera egin du eta pertzepzioak txarrera atzerriko immigrazioak EAEko gizartean eragiten dituen ondorioei dagokienez eta, halaber, gure gizartean eragiten dituen ondorio globalei dagokienez.

51. grafikoa. Toleranteen taldea: bilakaera hamar arloetan, 2008-2017




*Iturria: egileek egina.*

52. grafikoa. Anbibalenteen taldea: bilakaera hamar arloetan, 2008-2017




*Iturria: egileek egina.*

- Anbibalenteen taldeak jarrera hobeak ditu, 2016ko datuen aldean, arlo hauetan: immigrazioa arazotzat hartzeari buruzko pertzepzioa, immigrazioak EAEko ekonomian dituen ondorioak, bizikidetza-ereduetan eta atzerriko immigrazioarekiko estereotipo negatiboak. Puntuazio oso antzekoak ditu honako hauei buruzko pertzepzio, jarrera eta iritzietan: atzerritarrek eskubideak eta zerbitzuak baliatzeko aukerez, harremanetarako eremuez, ezarri beharreko immigrazio-politikaz eta atzerritar-bolumenaren pertzepzioaz. Eta azkenik, tolerantzia-mailan puntuazio txikiagoak izaten jarraitzen du euskal gizartean kultura-alorrean eragiten dituen ondorioei dagokienez eta euskal gizartean eragiten dituen ondorio globalekiko jarrerei dagokienez.

53. grafikoa. Uzkurren taldea: bilakaera hamar arloetan, 2008-2017




*Iturria: egileek egina.*

- Eta hirugarren taldeak, uzkurren taldeak, puntuazio hobeak lortu ditu immigrazioa arazotzat hartzeari buruzko pertzepzioan eta EAEko ekonomian hautemandako ondorioei buruzko pertzepzioan. Aldiz, apenas aldatu dira bizikidetza-ereduen, immigrazioak EAEko gizartean eragiten dituen ondorio globalen eta estereotipo negatiboen inguruko pertzepzioak, jarrerak eta iritziak. Eta, azkenik, taldearen puntuazioak okerrera egin du, 2016ko datuen aldean, atzerritarrek eskubideak eta zerbitzuak baliatzeko aukerari dagokionez, EAEko gizartean kultura-alorrean eragiten dituen ondorioei dagokienez, harremanetarako eremuekin zerikusia duenari dagokionez, ezarri beharreko immigrazio-politikari dagokionez eta atzerritar-bolumenaren pertzepzioari dagokionez.

Hiru talde horietako bakoitzaren batez besteko portaerari erreparatuz gero, aipatu berri ditugun aldaketa horiek esan nahi dute, 2016ko datuen aldean, toleranteen taldeak puntuazio hobea lortu duela (puntu 1 pasatxo gehiago), anbibalenteen taldeak ia bere horretan jarraitzen duela eta uzkurren taldearen puntuazioak behera egin duela (puntu 1 pasatxo gutxiago).

Hiru taldeen puntuazioek (54. grafikoa) beren arteko estatistika-alde nabarmenak adierazten dituzte, eta, beraz, baiezta dezakegu hiru taldeek oso bestelako pertzepzio, iritzi, jarrera, sinesmen eta jokabideak dituztela atzerriko immigrazioarekiko.

54. grafikoa. Taldeek tolerantzia-indizean lortutako puntuak, 2017




*Iturria: egileek egina.*

Azken urteotan hautemandako joerei dagokienez, honako hauek dira nabarmentzeko modukoak (55. grafikoa):

- Toleranteen taldea, 72,25 puntu egin ditu, oso egonkor dago aztertutako epean, 70 puntu inguruan.
- Anbibalenteen taldea ere, 55,54 puntu egin ditu, oso egonkor dago goialdeko tartean, 50 eta 56 puntu bitartean lortu baititu aztertutako epean.
- Uzkurren taldea, 37,14 puntu egin ditu, 40 puntutik hurbil dago, iaz bezala, baina oso urrun datu kaskarrenetatik, 2012an eta 2015ean lortutakoetatik, alegia.

55. grafikoa. Talde nagusiek tolerantzia-indizean lortutako puntuen bilakaera, 2008-2017




*Iturria: egileek egina.*

Talde bakoitzaren tamainari buruzko analisia oso baliagarria da datuen taula osatzeko: toleranteen taldeak euskal herritarren % 35 baino pixka bat gehiago hartzen ditu; anbibalenteen taldeak herritarren ia erdia; eta uzkurren taldeak, berriz, euskaldunen % 15 pasatxo.

56. grafikoa. Taldeen tamaina (%), 2017




*Iturria: egileek egina.*

Aurreko urteekin alderatuta talde horiek zer tamaina duten, zer puntuazio lortu duten eta tolerantzia-eskalan non dauden, hauek dira ondorioak:

- Toleranteen taldeak 70 puntu inguru lortu ditu beti urteen joanean (gehienetan zifra horretatik gora), eta bolumena % 35-40 ingurukoa izan da ia urtero. krisialdi bete-betean bakarrik, 2011n, murriztu zen kopurua ia erdira. 2016ko datuekiko, toleranteen taldeak puntuazio hobea lortu du (iaz baino ia puntu 1 gehiago), baina anbibalenteen taldera igarotako kideak galdu dituelako (bolumenean 8 puntu egin du behera).

- Anbibalenteen taldeak, 50 eta 56 puntu bitartean lortuta segida osoan, segida osoko bolumen handiena du 2017an: euskal herritarren % 48,5 bildu ditu. Tolerantzia-mailari buruzko puntuazioa, iazko datuekiko, apenas aldatu da; batik bat toleranteen taldeko kideak bildu ditu, aurten jarrera epelagoak adierazi baitituzte, baina uzkurren taldekoak ere bai, zenbaitek jarrera intolerantea baretu dutelako, antza.

- Uzkurren taldeak 30 eta 42 puntu bitartean lortu ditu, eta 2017an, iaz bezala, goialdeko tartean ditu puntu gehien. Segidako bolumen txikiena du 2017an, baina horrek ez du esan nahi jarrera erradikalagoa duenik (aurten, 40 puntu inguru egin ditu), 2015ean gertatu bezala, kide asko galdu bazituen ere, jarrera intoleranteena adierazi zutenak geratu baitziren.

57. grafikoa. Talde nagusien tamainaren bilakaera (%), 2008-2017




*Iturria: egileek egina.*

Indizeko 65 itemak multzokatu ditugun 10 eremuetan lortutako puntuazio partzialen arabera zehaztu dugu pertsona bakoitza zein taldetakoa den, eta pertsonak talde batean eta bestean zuzen banatu ditugula egiaztatzeko, analisi bereizle bat egin dugu, aurreko urteetan bezala.

Aldagai anitzeko analisi-mota horrek, sailkapena egiteaz gain, aukera ematen digu jakiteko gizabanako bakoitza dagokion taldean zuzen banatu dugun ala ez. Kasu honetan, gizabanako bakoitzak aztertutako hamar eremuetako bakoitzean lortutako puntuazioak dira aldagai askeak, eta talde bateko edo besteko (tolerantea, anbibalentea, uzkurra) kide izatea da mendeko aldagaia. Nahiz eta jakin analisi horrek aukera eman digula gure usteak berresteko eta gizabanakoak taldeka zuzen banatu ditugula egiaztatzeko, azter ditzagun funtzio bereizleak, gizabanako bakoitza talde batean edo bestean modu egokian banatzeko aukera ematen dutenak.

Bi funtzio bereizleen azterketak argi uzten du biak ere bereizleak direla, baina lehenak (horrek azaltzen du bariantzaren % 97,8) bigarrenak baino lan bereizle nabarmen handiagoa egiten duela (bariantza osoaren % 2,2 soilik azaltzen du bigarrenak). I. funtziorako .906 eta II. funtziorako .309 korrelazio kanonikoek eta Wilks-en lambda eta Khi karratuko kontraste erabat esanguratsuek (es. 0.000) agerian utzi dute bi aldagaiak direla bereizleak edo diskriminatzaileak, nahiz eta bigarrenak korrelazio baxua izan eta aldakortasuna azaltzeko oso baliagarria ez izan.

Funtzio bakoitza osatzen duten aldagaiei dagokienez, egiturazko matrizearen analisiak honako hau adierazten digu:

- Lehen funtzio bereizleak ia arlo guztiak biltzen ditu, baina lehen funtzio horretan, hauek dira, batez ere, eremurik bereizleenak: immigrazioak euskal gizartean eragiten dituen ondorio guztien pertzepzioa, estereotipoen pertzepzioa, atzerriko immigrazioak eragiten dituen ondorio ekonomikoei eta harremanetarako eremuei buruzko pertzepzioa (lehenbiziko hirurak zein azken biak, baina ez ordena horretan). Beste hauek ere esku hartzen dute funtzio horretan: eskubideak baliatzeari buruzko pertzepzioa, immigrazio-bolumenari buruzko pertzepzioa, immigrazio-politikari buruzko iritzia eta bizikidetzako eremuen inguruko pertzepzioa.

- Arlo bakar batek osatzen du bigarren funtzioa: atzerriko immigrazioak EAEko gizartean dituen ondorio kulturalen inguruko pertzepzioak[3].

58. grafikoa. EAEko biztanle taldeen mapa, 2017




*Iturria: egileek egina.*

[3]Euskal gizarteak atzerriko immigrazioa arazotzat hartzeari buruzko pertzepzioarekin lotutako arloari dagokion aldagaia ez da bereizlea, eta ez da ustekabeko datua, orain artean azatertutako datuen arabera.

Lehen funtzioak batez ere toleranteen taldea bereizten du pertsona uzkurren taldearekiko, eta bigarren funtzioak anbibalenteen taldea bereizten du pertsona uzkurren taldearekiko (batez ere) eta toleranteen taldearekiko. Edonola ere, badirudi bi funtzioek ondo asko bereizten dituztela hiru taldeak; izan ere, analisi bereizleak pertsonen % 96-97 inguru sailkatzen du zuzen (hasieran taldetan sailkatutakoen % 97,7 zuzuen sailkatuta, bai eta balidazio gurutzatu bidez taldekatutako kasu baliozkotuen % 96,9 ere).

Eta azkenik, eta aurreko urteetan ere egin dugun bezala, erabaki genuen aztertzea zer aldagai (soziodemografikoak, sozioekonomikoak, ideologiko-identitarioak, psikosozialak eta harremanei lotutakoak) eta aldagai horien arteko zer multzo dauden lotuago talde batekoa edo bestekoa izatearekin. Hau da, zein ezaugarri lotzen diren modu esanguratsuan pertsona tolerante, anbibalente eta uzkurren taldeekin. Horretarako, kontingentzia-taulak eta AFC korrespondentzia sinpleen faktore-analisia erabili ditugu (60. grafikoa), oso irtenbide grafiko argigarria eta intuitiboa eskaintzen dutelako, eta koherentea ere bai, aurreko atalean deskribatutako tipologiaren profilekin.

59. grafikoa. Korrespondentzia sinpleen analisia. Taldeen posizionamenduaren mapa, 2017




*Iturria: egileek egina.*

Hala, behin AFCn egiaztatuta Khi karratuak balio estatistiko esanguratsua duela (Khi karratua = 520,582, es. 0,000), eta ezaugarrien eta pertsona tolerante, anbibalente eta uzkurren taldeen arteko loturak adierazten dituela, honako lotura hauek hauteman ditugu:

- Toleranteen taldea: batez ere gizonezkoak dira, goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzte, 65 urte baino gutxiago dituzte, euskaraz hitz egiten dute, agnostikoak dira, edo ateoak edo erlijioarekiko axolarik ez dutenak, ezkerreko ideologiakoak dira, euskaldunak sentitzen dira, euskal abertzaleak direla diote, beren ekonomia-egoerarekin gustura daude, hilero 1.800 euro baino gehiagoko diru-sarrera garbiak dituzte etxean, lan egiten dute edo ikasleak dira, estatus sozioekonomiko ertain edo altukoak dira, baikorrak direla diote, etorkizunari begirako aurreikuspen onak dituzte, etorkinekin noizbehinka dituzte hartu-emanak eremu pribatuan, askotan eremu publikoan eta noizbehinka edo askotan aisialdian.

- Anbibalenteen taldea (toleranteen taldeko ezaugarri batzuk ditu eta uzkurren taldeko beste batzuk, gehiago bigarren taldekoak): batez ere emakumezkoak dira, 64 urtetik gorakoak, ikasketarik ez dute edo lehen mailako ikasketak edo erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzte, katolikoak dira, elizkoiak zein ez, ez dute euskaraz hitz egiten, zentroko edo eskuineko ideologiakoak dira, euskaldun bezain espainiar sentitzen dira, nazionalismoaren gaiarekiko axolarik ez dutela diote, erretiroa hartu dute edo etxeko zaintzak egiteaz arduratzen dira, beren egoera ekonomikoarekiko ez daude ez gustura eta ez kontrakoa, 1.001 eta 1.800 euro bitarteko diru-sarrera garbiak dituzte, estatus-maila baxukoak dira, krisiak ez die askorik eragin, ezkorragoak dira baikorrak baino edo tartekoak, etorkizunari begirako aurreikuspen txarrak dituzte, eta etorkinekin ez dute inolako hartu-emanik, ez eremu pribatuan, ez publikoan, ez aisialdian.

- Uzkurren taldea: batez ere emakumezkoak dira, 64 urtetik gorakoak, ikasketarik ez dute edo lehen mailako ikasketak dituzte, katolikoak dira, elizkoiak zein ez, ez dute euskaraz hitz egiten, eskuineko edo zentroko ideologiakoak dira, espainolak sentitzen dira, nazionalista espainolak direla diote, erretiroa hartu dute edo etxeko zaintzak egiteaz arduratzen dira, ez daude gustura beren egungo egoera ekonomikoarekin, 1.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera garbiak dituzte etxean, estatus sozioekonomiko baxu edo ertainekoak dira, krisiak asko eragin die, ezkorrak, etorkizunari begirako aurreikuspen txarrak dituzte, eta etorkinekin ez dute inolako hartu-emanik, ez eremu pribatuan, ez publikoan, ez aisialdian.

AFC honetan, hiru kategoriako aldagai batekin bakarrik lan egiten dugunez (pertsonen taldeak), bi dimentsio baino ez ditugu atera analisi horretatik, eta bariantzaren % 100 azaltzen dute bi dimentsio horiek. Egia esan, lehen dimentsioak azaltzen du ia bariantza osoa (% 83,8), eta bigarrenak azalpen-balio oso txikia du (gainerako % 16,2a).

# 5

# Ondorioak

2017ko barometro honetan jaso eta aztertutako datuak aintzat hartuta, gure ustez komenigarria da ondorio hauek nabarmentzea:

1. 2017an puntuazioak okerrera egin du apur bat, 2016ko puntuazioaren aldean. 58,48 puntuko indizea lortu dugu, eta horrek pentsarazi digu azken urteotako krisi ondorengo egoera egonkortzen ari dela.

2. Baina EAEko gizartearen jarrerak ez dira aurreko urteetan adierazitakoen oso bestelakoak: oraindik ere kontraesanak ditugu eta anbibalenteak gara; hau da, gauza batzuetarako oso irekiak, toleranteak eta solidarioak gara, baina beste batzuetan, berriz, jarrera itxiak erakusten ditugu, geurekoiak gara eta mesfidantzaz jokatzen dugu.

3. Pentsatzen jarraitzen dugu gure tolerantzia-indizea erabat lotuta dagoela etorkizunarekiko dugun konfiantzarekin edo mesfidantzarekin, baikortasunarekin edo zalantzarekin.

4. Gure datuek agerian utzi dute atzerriko immigrazioaren fenomenoa normalizatzen ari dela EAEko gizartean: nahiz eta politika globalaren alorrean ziurgabetasuna nagusi den (brexita, terrorismoa, AEBren jarrera protekzionistak…) eta lan-arloan, ekonomian eta etika-alorrean kezka handiak eduki (ustelkeria politikoa), euskal gizarteak ez du, inolaz ere, immigrazioaren gaia arazotzat hartzen.

5. Aurreko urteetako ildoari jarraituz, EAEko gizarteak bizikidetza-ereduen inguruan daukan diskurtsoak eta jarrerek oso tolerantzia-maila txikia erakusten dute. Hau da, oraindik ere somatzen da “asimilazio biguna” edo “pixkanakako asimilazioa” deritzoguna; hau da, integrazio-prozesuan ezinbestekoa da kolektibo guztiek parte hartzea eta horren alde lan egitea, baina atzerriko immigratzaileen kolektiboek ahalegin handiagoa egin behar dute.

6. EAEko biztanleak hiru taldetan sailkatu ondoren (toleranteak, anbibalenteak eta uzkurrak), 2017an aldaketa hauek hauteman ditugu: a) toleranteen taldeak kide gutxiago ditu, baina tolerantzia-maila hobeak lortuta konpentsatu du galera; b) anbibalenteen taldeak kide dezente gehiago ditu, eta tolerantzia-jarrerak apenas aldatu dira; c) uzkurren taldeak kide gutxiago ditu, baina ez du eragin tolerantzia-mailak behera askorik egitea, 2016an baino maila pixka bat txikiagoa baita.

7. Taldeen arteko aldea apur bat handiagoa da 2017an: EAEko gizartea, oro har, tarteko eremuan dago (58,48 puntu); toleranteen taldeak 72,25 puntu egin ditu, anbibalenteen taldeak 55,54 puntu eta uzkurren taldeak, berriz, 37,14 puntu eskas.

8. 2017an, erlijioa da jokabideak gehien bereizi dituen aldagaia, eta portaerak, jarrerak eta sinesmenak aurreikusteko ahalmen handien izan duena, eta, beraz, ez da izan, ez ikasketa-maila (bereizleena izan ohi da), ez ideologia (aldagai-igarle hoberena 2016an).

9. Atzerriko immigrazioarekiko tolerantzia txikien erakusten duten pertsonen profilei dagokienez, zenbait ñabardura aldatu dira, 2017ko datuen arabera. Horrenbestez, honako hauek eman nahi ditugu ezagutzera.

   1) **Egoeraren araberako xenofoboak**: gurera lan egitera etortzen diren etorkinekin gizarte-egiturako eremu berberetan lehian aritzen diren pertsonak dira; ikasketa-maila txikiko pertsonak, lan- edota lanbide-kualifikazio txikikoak, etxean diru-sarrera txikia dutenak, gizarte-laguntzak behar dituztenak (aldian-aldian, gutxienez), langabezian daudenak, maila sozioekonomiko txikikoak, beren egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenak, etorkizunari begira aurreikuspenak txarrak dituztenak, krisi ekonomikoak kalte handiak eragin dizkien pertsonak...

   2) **Egoera ahulean dauden arrazistak**: objektiboki zein subjektiboki egoera pertsonal eta sozial ahulean dauden pertsonak, segurtasunik gabe eta mehatxatuta sentitzen direnak etorkinen etorrerak beren ingurunean aldaketak eragiten dituelako eta aldaketa horiei aurre egiteko beren burua gai ikusten ez dutelako edo nahikoa baliabide ez dutela pentsatzen dutelako; adineko pertsonak dira (65 urtetik gorakoak), erretiroa hartu dutenak, etxearen zaintzaz arduratzen direnak, diru-sarrera txikikoak, pertsona ezkorrak direla diotenak, krisiaren ondorioak bizi izan dituztenak, gizarte-laguntzen bidez diru-sarrerak osatzen (neurri handi batean) dituztenak, gizarte-sare eskasekoak, etorkizunari begira beldur direnak edo ziurtasunik gabe sentitzen direnak…

   3) **Ideologikoki intoleranteak**: ohikoak ez diren ezaugarri eta bereizgarriak (hizkuntza, erlijioa, kultura, ohiturak, mundu-ikuskerak, arraza…) dituzten etorkinen etorrera onartzen ez duten pertsonak, nortasun autoritario eta dogmatikoa duten pertsonak, mentalitate itxikoak, aldaketetara egokitzeko arazoak dituztenak, zurrunak; eskuineko ideologia politikoa dutela diote, espainolak direla diote (Euskadin…), katolikoak, elizkoiak zein zen, nazionalista espainiarrak direla diote (Euskadin…), adinez nagusiak dira…

## ERANSKINA

Honako hauek dira arlo bakoitzari esleitutako aldagaiak eta egin ditugun haztapenak:

- BOLUMENA. Etorkinen bolumenaren pertzepzioa, 0tik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 3. galdera: 0tik (gehiegi), 1 (askotxo), 2 (kopuru egokia) eta 3ra (gutxi edo ez dira nahikoa) kodetua,
  - 5. galdera: 0tik (gehiegi), 1 (askotxo), 2 (kopuru egokia) eta 3ra (gutxi edo ez dira nahikoa) kodetua,
  - 4. galdera: 0tik (% 30 baino gehiago), 1 (% 21-30), 2 (% 11-20), 3 (% 6-10) eta 4ra (% 0-5) kodetua.

- ARAZOA. Arazotzat hartzea, 0tik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 1. galdera: 0tik (arazoa 1. aipamenean), 1 (arazoa 2. aipamenean), 2 (arazoa 3. aipamenean) eta 3ra (ez da aipatzen) kodetua,
  - 2. galdera: 0tik (arazoa 1. aipamenean), 1 (arazoa 2. aipamenean), 2 (arazoa 3. aipamenean) eta 3ra (ez da aipatzen) kodetua,
  - 3. galdera: 0tik (arazoa 1. aipamenean), 1 (arazoa 2. aipamenean), 2 (arazoa 3. aipamenean) eta 3ra (ez da aipatzen) kodetua.

- EKONOM. Ekonomian dituen eraginak, 0tik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 6a galdera: 0tik (erabat ados), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (batere ados ez) kodetua,
  - 6c galdera: 0tik (erabat kontra), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (oso ados) kodetua,
  - 6e galdera: 0tik (erabat kontra), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (oso ados) kodetua,
  - 6h galdera: 0tik (erabat ados), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua,
  - 19j galdera: 0tik (erabat ados), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua.

- EUSKGIZARTEA. Euskal gizartean dituen eraginak, 0tik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 19e galdera: 0tik (erabat ados), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua,
  - 19h galdera: 0tik (erabat kontra), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua,
  - 24a galdera: 0tik (erabat ados), 0,375, 0,750, 1,125, eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 24b galdera: 0tik (erabat ados), 0,375, 0,750, 1,125, eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 24c galdera: 0tik (erabat ados), 0,375, 0,750, 1,125, eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 24d galdera: 0tik (erabat ados), 0,375, 0,750, 1,125, eta 1,5era (erabat kontra) kodetua.

- POLITIKA. Immigrazio-politika, 0tik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 6d galdera: 0tik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 6f galdera: 0tik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 9. galdera: 0tik (erabat debekatu), 1,5 eta 3ra (trabarik ez) kodetua,
  - 10. galdera: 0tik (guztiak kanporatu), 1 (itzultzeko bitartekoak), 2 (langileak erregularizatu) eta 3ra (guztiak erregularizatu) kodetua,
  - 11. galdera: 0tik (inoiz ez), 0,5era ("baldintzak") eta 1era (mugarik ez) kodetua.

- ERAGINAK. Eraginak guztira, 0tik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 8. galdera: 0tik (okerrera egin du), 0,5era (berdin jarraitzen du) eta 1era (hobera egin du) kodetua,
  - 19k galdera: 0tik (erabat kontra), 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua,

- 6b galdera: 0tik (erabat ados), 0,375, 0,750, 1,125, eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
- 6k galdera: 0tik (erabat ados), 0,375, 0,750, 1,125, eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
- 6l. galdera: 0tik (erabat ados), 0,375, 0,750, 1,125, eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
- 26. galdera: 0tik (negatiboak) 3ra (positiboak) kodetua.

- BIZIKIDETZA. Bizikidetza-ereduak, 0tik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 19a galdera: 0tik (erabat kontra), 0,25, 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat ados) kodetua,
  - 19b galdera: 0tik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 19c galdera: 0tik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 19g galdera: 0tik (erabat ados), 0,25, 0,5, 1, 1,5 eta 2ra (erabat kontra) kodetua,
  - 19i galdera: 0tik (erabat ados), 0,375, 0,75, 1, 1,125 eta 1,5era (erabat kontra) kodetua,
  - 19l galdera: 0tik (erabat kontra), 0,375, 0,75, 1,125 eta 1,5era (erabat ados) kodetua.

- ESTEREOT. Estereotipoak, 0tik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 6g galdera: 0tik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
  - 6i galdera: 0tik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
  - 6j galdera: 0tik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
  - 6m galdera: 0tik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
  - 14a galdera: 0tik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
  - 14b galdera: 0tik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
  - 14c galdera: 0tik (erabat kontra), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat ados) kodetua,
  - 19d galdera: 0tik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
  - 19f galdera: 0tik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua,
  - 19m galdera: 0tik (erabat ados), 0,25, 0,5, 0,75 eta 1era (erabat kontra) kodetua.

- ESKUBIDEAK. Eskubideak eta zerbitzuak baliatzeko aukera, 0tik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 15a galdera: 0tik (inork ez), 0,75era (legez daudenek) eta 1,5era (denek) kodetua,
  - 15b galdera: 0tik (inork ez), 0,75era (legez daudenek) eta 1,5era (denek) kodetua,
  - 15c galdera: 0tik (inork ez), 0,5era (legez daudenek) eta 1era (denek) kodetua,
  - 15d galdera: 0tik (inork ez), 0,5era (legez daudenek) eta 1era (denek) kodetua,
  - 15e galdera: 0tik (inork ez), 0,5era (legez daudenek) eta 1era (denek) kodetua,
  - 15f galdera: 0tik (inork ez), 0,5era (legez daudenek) eta 1era (denek) kodetua,
  - 15g galdera: 0tik (inork ez), 0,5era (legez daudenek) eta 1era (denek) kodetua,
  - 16a galdera: 0tik (inork ez), 0,25era (legez daudenek) eta 0,5era (denek) kodetua,
  - 16b galdera: 0tik (inork ez), 0,25era (legez daudenek) eta 0,5era (denek) kodetua,
  - 16c galdera: 0tik (inork ez), 0,25era (legez daudenek) eta 0,5era (denek) kodetua,
  - 16d galdera: 0tik (inork ez), 0,25era (legez daudenek) eta 0,5era (denek) kodetua.

- HARREMANAK. Harremanetarako eta kultura-portaerei eusteko eremuak, 0tik 10erako eskala, honako hauen batukaria
  - 18a galdera: 0tik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
  - 18b galdera: 0tik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
  - 18c galdera: 0tik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
  - 18d galdera: 0tik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
  - 18e galdera: 0tik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
  - 18f galdera: 0tik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
  - 18g galdera: 0tik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,
  - 18h galdera: 0tik (gaizki), 0,5era (berdin), eta 1era (ondo) kodetua,

- 21. galdera: 0tik (desberdinik ez), 0,5era (desberdin batzuk) eta 1era (desberdin asko) kodetua,
- 36. galdera: 0tik (inoiz ez), 0,5 (batzuetan, maiz), eta 1era (maiztasun handiz, etengabe) kodetua.

Galdeketari erantzun dioten pertsonek 65 aldagairi emandako erantzunez osatutako indize batekin lan egitean, aurten ere zailtasun bat izan dugu: galdeketari erantzun dioten pertsonek galdera gehienei erantzun dieten arren, askotan ez dute erantzun nahi izan edo ez dira gai izan egindako 65 galderetako bati erantzun balioduna emateko, eta horrek eragotzi egin digu **tolerantzia-indizean** pertsona horiek lortutako azken puntuazioa kalkulatzea.

Erantzun baliodun gehienak ez galtzeko, galdutako balioen (erantzunik gabe) ordezkoak (beste erantzun batzuk) egoztea erabaki dugu. Aurreko urteetan egin bezala egin dugu: 65 aldagai zuzen bakoitzean galdutako balioak egozte aldera, aldagai jakin horretan datu-base osoaren batez besteko puntuazioa hartu dugu oinarri. Galdutako balioak egotzita, arloz arloko puntuazioak kalkulatu ditugu eta, ondoren, **tolerantzia-indizean** puntuazio osoa eskuratu dugu.

ikuspegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

# BAROMETROA 2017
# ATZERRIKO IMMIGRAZIOAREKIKO PERTZEPZIOAK ETA JARRERAK

| | |
|---|---|
| Galdeketa-zenbakia | |
| Data (eguna-hilabetea-urtea) | |
| Udalerria | |
| Probintzia | |
| Inkestagilea | |

Egun on / Arratsalde on. IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokia atzerriko immigrazioarekiko euskal herritarren iritziari buruzko ikerketa egiten ari da. Horrenbestez, zure laguntza preziatuaren beharra dugu, galdera-sorta bati erantzuteko. Zure erantzunak anonimatuan eta sekretupean gordeko direla bermatzen du Unibertsitateak; izan ere, erantzunak multzoan bakarrik aztertuko dira. Kontuan hartu ez dagoela erantzun zuzenik edo okerrik, ez da azterketa, immigrazioarekin zerikusia duten zenbait galderari buruz zure benetako iritzia jakin nahi dugu bakar-bakarrik.

**1.** Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun **3 arazo nagusiak?** (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)

| | 1º | 2º | 3º |
|---|---|---|---|
| Langabezia | 1 | 1 | 1 |
| Drogak | 2 | 2 | 2 |
| Herritarren segurtasun eza | 3 | 3 | 3 |
| Terrorismoa, ETA | 4 | 4 | 4 |
| Azpiegiturak | 5 | 5 | 5 |
| Osasuna, osasun-sistema | 6 | 6 | 6 |
| Etxebizitza | 7 | 7 | 7 |
| Arazo ekonomikoak | 8 | 8 | 8 |
| Enpleguarekin lotutako arazoak (prekarietatea, soldata txikiak) | 9 | 9 | 9 |
| Nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-arazoak | 10 | 10 | 10 |
| Korrupzioa eta iruzurra | 11 | 11 | 11 |
| Pentsioak | 12 | 12 | 12 |
| Politikariak, alderdi politikoak, gobernua | 13 | 13 | 13 |
| Gerrak, orokorrean | 14 | 14 | 14 |
| Justizia-administrazioa | 15 | 15 | 15 |
| Arazo sozialak | 16 | 16 | 16 |
| Arrazakeria | 17 | 17 | 17 |
| Immigrazioa | 18 | 18 | 18 |
| Emakumeen aurkako indarkeria | 19 | 19 | 19 |
| Gazteekin zerikusia duten arazoak | 20 | 20 | 20 |
| Balioen krisialdia | 21 | 21 | 21 |
| Hezkuntza | 22 | 22 | 22 |
| Ingurumen-arazoak | 23 | 23 | 23 |
| Zerbitzu publikoen funtzionamendua | 24 | 24 | 24 |
| Nazionalismoak | 25 | 25 | 25 |
| Emakumeekin lotutako arazoak (berdintasuna...) | 26 | 26 | 26 |
| Nazioarteko terrorismoa eta jihadista | 27 | 27 | 27 |
| Kezka eta egoera pertsonalak | 28 | 28 | 28 |
| Beste erantzun batzuk | 29 | 29 | 29 |
| Bat ere ez | 30 | 30 | 30 |
| Ez daki / Ez du erantzuten | 0 | 0 | 0 |

**2.** Txartel honetan ageri diren arazoetatik (1. txartela ERAKUTSI) zein dira, zure iritziz, Euskadiko **3 arazo garrantzitsuenak**? (IRAKURRI ERANTZUN GUZTIAK ozenki: 3 erantzun gehienez)

| | 1º | 2º | 3º |
|---|---|---|---|
| Delinkuentzia | 1 | 1 | 1 |
| Egoera ekonomikoa | 2 | 2 | 2 |
| Prezioen garestitzea / Inflazioa / Bizi-kostua | 3 | 3 | 3 |
| Zergak | 4 | 4 | 4 |
| Langabezia | 5 | 5 | 5 |
| Terrorismoa | 6 | 6 | 6 |
| Etxebizitza | 7 | 7 | 7 |
| Zor publikoa | 8 | 8 | 8 |
| Immigrazioa | 9 | 9 | 9 |
| Osasuna eta gizarte-segurtasuna | 10 | 10 | 10 |
| Hezkuntza-sistema | 11 | 11 | 11 |
| Pentsioak | 12 | 12 | 12 |
| Ingurumena, klima eta energiari buruzko gaiak | 13 | 13 | 13 |
| Ed/Ede | 0 | 0 | 0 |

**3.** **Beste herrialde batzuetatik etorri** eta Euskadin bizi diren **etorkinen kopurua**, zure iritziz, … (2. txartela ERAKUTSI)?

| | |
|---|---|
| Handiegia da | 1 |
| Nahikoa da | 2 |
| Egokia da | 3 |
| Txikia da | 4 |
| Ez da nahikoa | 5 |
| Ez daki / Ez du erantzuten | 0 |

**4.** Euskadin bizi diren 100 pertsonetatik **zenbat** dira, zure ustez, **atzerriko etorkinak** (alegia, Espainiatik kanpoko herrialdeetatik etorriak)? (ED/EE=99)

| |
|---|
| |

**5.** Nik esango banizu Euskadin bizi diren pertsonen **%9 gutxi gorabehera beste herrialdetako etorkinak** direla, berdin pentsatzen al duzu edo… (2. txartela ERAKUTSI)?

| | |
|---|---|
| Handiegia da | 1 |
| Nahikoa da | 2 |
| Egokia da | 3 |
| Txikia da | 4 |
| Ez da nahikoa | 5 |
| Ez daki / Ez du erantzuten | 0 |

**6.** Txartel hau erabilita (3. txartela ERAKUTSI), esan iezadazu **zenbateraino zauden ados edo ez** esaldi horietan adierazten denarekin (1= erabat ados; 2= ados; 3 = ez ados ez kontra; 4 = kontra; 5 =erabat kontra; 6 = ez daki/ez du erantzuten):

| | EA | A | EA EK | K | EK | ED EE |
|---|---|---|---|---|---|---|
| a) Jendea bizitzera eta lan egitera etortzen denez, oro har, soldaten zenbatekoak behera egiten du. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| b) Ikasle immigranteek jaitsi egiten dute eskoletako hezkuntza-maila | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| c) Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| d) Lanera etortzen diren atzerritarrak denboraldi batez langabezian geratuz gero, kanpora bidali beharko lirateke. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| e) Etorkinei esker, ekonomiak hobera egiten du, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| f) Hona etorri den norbaitek delituren bat egiten badu, herrialdetik kanpora bidali beharko litzateke. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| g) Atzerriko etorkinen presentziak segurtasun falta eta delinkuentzia eragiten ditu | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| h) Immigranteek lana kentzen digute | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| i) Immigrazioak handitu egiten ditu matxismoa eta genero-indarkeria | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| j) Immigranteek ez dute integratu nahi | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| k) Etorkinek neurriz kanpo erabiltzen dute EAEko osasun-sistema eta kolapsatu egiten dituzte larrialdi-zerbitzuak. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| l) Etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratzen dituzte. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| m) Etorkinek espazio publikoak hartzen dituzte, neurriz kanpo eta gaizki erabiltzen dituzte. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |

**7.** 0tik 10era bitarteko eskala batean (0 oso txarra, eta 10, bikaina), zenbat puntu emango zenizkioke zure udalerrian edo auzoan bertakoen eta atzerritarren artean dagoen bizikidetza- eta harreman-giroari?

| Oso txarra | | | | | | | | | | Bikaina | Ed |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

**8.** Euskal herritarren eta atzerriko jendearen arteko **harremanak**, zure ustez, hobera egin du, txarrera egin du, edo duela urtebete bezalakoa da?

| | |
|---|---|
| Hobera egin du | 1 |
| Berdin jarraitzen du | 2 |
| Txarrera egin du | 3 |
| Ez daki / Ez du erantzuten | 0 |

**9.** Zure ustez, zer **politika-mota** litzateke egokiena immigranteen kasurako?

| | |
|---|---|
| Inolako lege-trabarik gabe sartzen uztea | 1 |
| Lan-kontratua dutenei bakarrik sartzen uztea | 2 |
| Legezko beste baldintza batzuk betetzen dituzten pertsonei sartzen uztea: familia berriz biltzea, ikasleak, errefuxiatuak... | 3 |
| Erabat debekatzea etorkin atzerritarrak sartzea | 4 |
| Ed/Ede | 0 |

**10.** Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak **erregularizatu gabeko immigranteekin**? (EZ AIPATU: bat-bateko erantzuna)

| | |
|---|---|
| Guztiak erregularizatu, "paperak" eman | 1 |
| Lana dutenak bakarrik erregularizatu | 2 |
| Bitartekoak eman guztiak beren herrialdera itzultzeko | 3 |
| Guztiak kanpora bidali | 4 |
| Ed/Ede | 0 |

**11.** Eta **babesa edo asiloa** eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena? (EZ AIPATU: bat-bateko erantzuna)

| | |
|---|---|
| Mugarik gabe hartu | 1 |
| Hartu, ihesi dabiltzala egiaztatzen bada | 2 |
| Hartu, baina urtean kopuru jakin bat baino ez | 3 |
| Ez hartu, inola ere | 4 |
| Ed/Ede | 0 |

**12.** Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAEra etortzeak bestelako janzkera-ohiturak sortzea eragin du. Ohitura horietako batzuei buruz zer iritzi duzun jakin nahi genuke. Horretarako, zenbait irudi erakutsiko dizkizut, eta gure gizartean egokiak iruditzen zaizkizun ala ez esatea nahi nuke (4. txarteleko TESTUA SOILIK IRAKURRI)

| | Egokia da | Ez da egokia | Ed/Ee |
